



Euskadi 2020

Gobernu Programa

XI. Legegintzaldia

(2016-2020)

Estrategia bat:
**“Giza garapen
jasangarria”**

Lau Oinarriko programa:

- I. Enplegua, ekonomiaren suspertzea eta jasangarritasuna**
- II. Giza garapena, gizarteratzea, berdintasuna eta kalitatezko zerbitzu publikoak**
- III. Bizikidetzaren eta Giza Eskubideak**
- IV. Autogobernu gehiago eta hobea**

Herriaren 15 helburu:

1. Langabeziaren tasa % 10 baino txikiagoa izatea
2. 20.000 gaztek lehen lan-esperientzia izatea
3. BPGd industrialak % 25 izan dadin lortzea, eta EBko biztanleko BPGd-aren % 125era iristea
4. Berrikuntzako 100 proiektu estrategiko
5. Berotegi-efektuko gasaren isurpena % 20 murriztea
6. Defizit publikoaren Europako konpromisoa betetzea
7. Gardentasunaren nazioarteko indizeetan lider izatea
8. Bizi osasuntsuaren itzaropena urtebete igotzea
9. Eskola uztearen tasa % 8tik beherakoa izatea
10. 25 urtetik beherakoen % 75 euskal hiztun izatea
11. Pobreziaren tasa % 20 murriztea
12. Jaiotza-tasa igotzea. Seme-alabak dituzten familientzako laguntzak igotzea.
13. Euskadi Europako lehenengo 4 herrien artean jartzea genero-berdintasunean
14. ETA behin betiko armagabetzea eta desegitea
15. Estatutu politiko berria

15 Plan estrategiko:

1. Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Plana (2017-2020)
2. Nazioartekotzeko "Basque Country" estrategia, 2020
3. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Plana (2017-2020)
4. Enpleguaren Plan Estrategikoa (2017-2020)
5. Industrializazio Plana (2017-2020)
6. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (ZTBP), 2020
7. Ingurumeneko IV. Esparru Programa, 2020
8. Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoa, 2020
9. Osasun Plana (2013-2020)
10. Lanbide Heziketako V. Euskal Plana (2018-2021)
11. IV. Unibertsitate Plana (2019-2022)
12. Euskararen Agenda Estrategikoa (2017-2020)
13. Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa, 2020
14. Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VII. Plana (2018-2021)
15. Euskadiko Segurtasunaren Plan Orokorra, 2020

10 Ardatz estrategiko:

I. ENPLEGUA, EKONOMIAREN SUSPERTZEA ETA JASANGARRITASUNA

I.1. Hazkunde sendoa, enplegu gehiago eta hobeak dakarrena

I.2. Hazkunde jasangarria

I.3. Hazkunde arduratsu, moderno eta gardena

II. GIZA GARAPENA, GIZARTERATZEA, BERDINTASUNA ETA KALITATEZKO ZERBITZU PUBLIKOAK

II.1. Osasun eskubide unibertsala

II.2. Bikaintasunezko hezkuntza, oreka soziala bermatzeko

II.3. Bizikidetzarako giza eta kultur garapena

II.4. Integrazioarako eta berdintasunerako agenda soziala

II.5. Kalitatezko zerbitzu publikoak

III. BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEAK

III.1. Bizikidetzak eta giza eskubideak

IV. AUTOGOBERNU GEHIAGO ETA HOBEA

IV.1. Autogobernu gehiago eta hobeak

Gobernu Programaren garapena:

4 OINARRI

10 ARDATZ

175 KONPROMISO

650 EKIMEN

Aurkibidea:

I. OINARRIA. ENPLEGUA, EKONOMIAREN SUSPERTZEA ETA JASANGARRITASUNA	
KONPROMISOAK	SAIL ARDURADUNA
I.1. ARDATZA. Hazkunde sendoa, enplegu gehiago eta hobea dakarrena	
Enplegu gehiago eta hobea	
1. Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru Programa	Lehendakaritza
2. Enpleguaren 2017-2020 Plan Estrategikoa onartu	Enplegu eta gizarte politikak
3. Lanbide berri eta modernizatu	Enplegu eta gizarte politikak
4. Prestakuntza eta birziklatze profesionala hobetu	Enplegu eta gizarte politikak
5. Gazteen laneratzea sustatu	Enplegu eta gizarte politikak
Elkarrizketa sozialaren, ekonomia sozialaren eta laneko segurtasunaren alde	
6. Elkarrizketa soziala, langileek enpresetan duten parte-hartzea eta langile autonomoen arteko lankidetzak sustatu	Lan eta justizia
7. Enpresen gizarte-erantzukizuna sustatu	Lan eta justizia
8. Enplegu-politika pasiboaren eta Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketa eskatu	Lan eta justizia
9. Gizarte-ekonomiaren aldeko apustua	Lan eta justizia
10. Osasuna eta segurtasuna sustatu lanean eta berdintasuna	Lan eta justizia
11. Lan-iruzurrari aurre egin. Lan-ikuskaritza	Lan eta justizia
Industria lehiakorrago jakintzaren ekonomian	
12. "Basque Industry 4.0". Euskal industriaren aldeko plan integrala	Ekonomi garapen eta azpiegiturak
13. ETEei lagundu eta zailtasunak dituzten enpresak berregituratu	Ekonomi garapen eta azpiegiturak
14. Proiektu industrial estrategikoak garatu	Ekonomi garapen eta azpiegiturak
15. Ekintzaitzari lagundu	Ekonomi garapen eta azpiegiturak
16. Ikerketa, berrikuntza eta teknologiaren aldeko apustua	Ekonomi garapen eta azpiegiturak
17. Berrikuntza ez-teknologikoa eta enpresa-kudeaketa aurreratua garatu	Ekonomi garapen eta azpiegiturak
18. Euskadi Europako erreferente bihurtu Elektronikaren, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia aplikatzen, industriaren esparruan.	Ekonomi garapen eta azpiegiturak
Europako helburuekin bat egiten duen energia-estrategia	
19. Energia-politika lehiakorra eta jasangarria	Ekonomi garapen eta azpiegiturak
Egoera ahuleko eremuak suspertzea	
20. Egoera ahuleko eskualdeetan eta udalerrietan jarduteko berariazko planak	Ekonomi garapen eta azpiegiturak
Euskadi-Basque Country nazioartekotzeko estrategia	
21. Basque Country nazioartekotzeko estrategia globala garatu, eremu publiko eta pribatuarekin elkarlanean	Lehendakaritza

22. Europako erakundeetan parte-hartze aktibo eta zuzena izan	Lehendakaritza
23. Euskal euroeskualdearen lurralde-antolaketa indartu	Lehendakaritza
Euskal Zentroak	
24. Euskal komunitate globala sustatzea, atzerriko euskal komunitateekiko harremanak estututa	Lehendakaritza
Enpresak nazioartekotzea	
25. Enpresak nazioartekotzeko bultzada, "Basque Country" Estrategiaren parte	Ekonomi garapen eta azpiegiturak
Lehen sektore errentagarri, berritzaile eta lehiakorra	
26. Euskadiko lehen sektorea garatu	Ekonomi garapen eta azpiegiturak
27. Nekazaritzako elikagaiak eta jarduera sustatu	Ekonomi garapen eta azpiegiturak
Turismoa, tokiko merkataritza eta kontsumo arduratsua sustatu	
28. Bikaintasuna eta jasangarritasuna sustatu euskal turismo-jardueran	Turismo, merkataritza eta konts.
29. Turismo esperientzialaren aldeko apustua	Turismo, merkataritza eta konts.
30. Herriaren turismo-marka, Euskadi Basque Country	Turismo, merkataritza eta konts.
31. Euskal merkataritza-sektorearen lehiakortasuna sustatu	Turismo, merkataritza eta konts.
32. Kontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutua	Turismo, merkataritza eta konts.
I.2. ARDATZA. Hazkunde jasangarria	
Mugikortasun jasangarria eta garraio publikoa	
33. Garraio publikoa eta intermodalitatea sustatu	Ekonomi garapen eta azpiegiturak
34. Mugikortasun Iraunkorraren Estrategia	Ekonomi garapen eta azpiegiturak
35. Txartel bakarra	Ekonomi garapen eta azpiegiturak
36. Euskadiko Garraio Agintaritzaren barruan, garraio agintaritzak koordinatuta jardutea	Ekonomi garapen eta azpiegiturak
Garapen jasangarria lortzeko azpiegiturak	
37. Euskadi, nodo logistikoa. Euskal Y amaitu	Ekonomi garapen eta azpiegiturak
38. Trenbideko garraioa hobetu	Ekonomi garapen eta azpiegiturak
39. Jarduera integral eta koordinatua portu eta aireportuetan	Ekonomi garapen eta azpiegiturak
40. Nafarroa eta Akitaniarekiko interkonexioa hobetu	Ekonomi garapen eta azpiegiturak
Ingurumen-politika arduratsua	
41. Karbono gutxiko ekonomia lehiakorra bultzatu	Ingurumen, lurralde plangintza eta etxebizitza
42. Ekonomia zirkularra bultzatu	Ingurumen, lurralde plangintza eta etxebizitza
43. Ingurumenari, Klima Aldaketari eta Natura Zaintzeari buruzko Legea	Ingurumen, lurralde plangintza eta etxebizitza
44. Enplegu berdea	Ingurumen, lurralde plangintza eta etxebizitza
45. Politika publikoetan ingurumenaren aldagaia txertatu	Ingurumen, lurralde plangintza eta etxebizitza
46. Ingurune naturalaren kalitatea hobetu	Ingurumen, lurralde plangintza eta etxebizitza
47. Lurraldearen oreka. Lurralde-plangintza eta estrategia	Ingurumen, lurralde plangintza eta etxebizitza

48. Hiri-birgaitzea, -berroneratzea eta -berritzea	Ingurumen, lurralde plangintza eta etxebizitza
49. Pasaiaiko badia berroneratu	Ingurumen, lurralde plangintza eta etxebizitza
I.3. ARDATZA. Hazkunde arduratsu, moderno eta gardena	
Finantza publikoen kudeaketa arduratsua	
50. Ekonomia Ituna eguneratu eta defendatu	Ogasun eta ekonomia
51. Aurrekontu-politika zorroztasunean eta jasangarritasunean oinarritzen dela eta defizit publikoaren helburua betetzen duela zaindu	Ogasun eta ekonomia
52. Zerga eta finantza-politika hazkundearen eta elkartasunaren zerbitzura jarri	Ogasun eta ekonomia
53. Ekonomi- eta finantza-ordenamendua eguneratuta eduki	Ogasun eta ekonomia
54. Zerga-iruzurraren aurkako borroka	Ogasun eta ekonomia
55. Gizarte-erantzukizuna zaindu kontratazio publikoan	Gobernantza pub. eta autogober.
Administrazio ireki, garden eta eraginkorra	
56. Enplegu publikoaren arau-esparrua zerbitzu publiko gehiago eta hobeak eskatzen dituen gizartearen beharretara egokitu. Euskal Enplegu Publikoaren Legea	Gobernantza pub. eta autogober.
57. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu publikodunen integritate etikoa ziurtatu	Gobernantza pub. eta autogober.
58. Euskal enplegu publikoa erronka berrietara egokitu	Gobernantza pub. eta autogober.
59. Sektore publikoa sinplifikatu	Gobernantza pub. eta autogober.
60. Efizientzia eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu	Gobernantza pub. eta autogober.
61. Gardentasuna eta herritarren partaidetza sustatu	Gobernantza pub. eta autogober.
62. Gobernantza publikoan berritzailea den Europako eskualde gisa sendotu Euskadi	Gobernantza pub. eta autogober.
63. konpromisoa: Hiriburutza dela-eta Gasteizekin hartutako erantzukidetasun-konpromisoari eutsi	Gobernantza pub. eta autogober.
II. OINARRIA: GIZA GARAPENA, GIZARTERATZEA, BERDINTASUNA ETA KALITATEZKO ZERBITZU PUBLIKOAK	
KONPROMISOAK	SAIL ARDURADUNA
II.1. ARDATZA. Osasun eskubide unibertsala	
<i>Pertsonak hartzea politika guztien ardatz nagusitzat, eta, halaber, politika horiek unibertsaltasunaren, elkartasunaren, ekitatearen, kalitatearen eta herritarren parte-hartzearen printzipioetan oinarritzea.</i>	
64. Osasun-sistemaren estaldura unibertsala eta irisgarritasuna bermatu	Osasuna
65. Itxarote-zerrendak ezarritako ratioen azpitik mantendu	Osasuna
66. Osasunaren zainketan pertsonen erantzukidetasuna sustatu	Osasuna
67. Ekitatea babestea osasun-arretan, arreta berezia jarritz genero-ikuspegian eta giza talde ahulenetan	Osasuna

68. Pazienteari informazio eta arreta pertsonalizatu osoa eta kalitatezkoa eman	Osasuna
<i>Prebentzioaren eta osasun-sustapenaren kultura garatzen jarraitu</i>	
69. Osasuna sustatu ingurune komunitarioan	Osasuna
70. Osasun publikoa sustatu, eta zaintza-sistema integral bat abian jarri	Osasuna
71. Koordinazioa bultzatu, osasuna hobetzeko	Osasuna
72. Arreta berezia eman mendekotasun-arazoak dituzten pertsoneri	Osasuna
73. HIESaren eta beste gaixotasun infekzioso batzuen prebentzioa	Osasuna
<i>Osasun-arloko erronka berriei erantzun egokia emateko arreta integratuko eremuan sakondu</i>	
74. Osasun-esparruko arreta integratua indartu, Osasun Erakunde Integratuen eredia finkatuz.	Osasuna
75. Informazio Klinikoko Sistema Bateratua sendotu	Osasuna
76. Koordinazio soziosanitarioa sustatu	Osasuna
<i>Osasun-sistemaren hobekuntza eta modernizazioa sustatu, espezializazio altua bultzatuz eta berriazko planak eta programak sustatuz</i>	
77. Espezializazio altua eta bikaintasun klinikoa sustatu	Osasuna
78. Morbimortalitatean eraginik handiena duten arazoentzako prozesu asistentzialak berrantolatu	Osasuna
79. Asistentzia onkologikoa berrantolatu. Plan Onkologiko Integrala	Osasuna
80. Zainketa aringarria bultzatu. Zainketa Aringarrien Plana zabaldu	Osasuna
81. Gaixotasun kronikoei, gaixotasun mentalei eta gaixotasun arraroei berriazko arreta eman	Osasuna
82. Arreta farmazeutikoa	Osasuna
<i>Baliabide sanitarioen kudeaketa efizientea eta berrikuntza kudeaketa-metodoetan</i>	
83. Pazienteen premietara egokitutako osasun-azpiegiturak bermatu	Osasuna
84. Lehen mailako arreta eta hark sistema sanitarioan jokatzeko duen eginkizun nagusia bultzatu	Osasuna
85. Osasun-sistemari eutsi, metodoak eta baliabideak optimizatuz	Osasuna
86. Pazientearen Segurtasun Estrategia garatu	Osasuna
87. Herritarren partaidetza eta Osasun Sistema Publikoaren gardentasuna bultzatu	Osasuna
<i>Osasun-arloko profesionalen protagonismoa eta inplikazioa bultzatu</i>	
88. Osasun-arloko profesionalen inplikazioa	Osasuna
<i>Osasun-arloko Ikerketa eta Berrikuntza sustatu</i>	
89. Osasun-arloko ikerkuntzarako eta berrikuntzarako inbertsioa handitu. Jakintzaren kudeaketa sustatu, bai eta osasun-arloko ikerketan parte hartzen duten eragileekiko lankidetzaren ere	Osasuna
II.2. ARDATZA. Bikaintasunezko hezkuntza, oreka soziala bermatzeko	
<i>Hezkuntza, gizartearen eta pertsonen aurrerapen-faktore nagusia</i>	

90. Hezkuntza Ituna bultzatu, Hezkuntzaren Euskal Lege berri bat sortzeko	Hezkuntza
91. Eskola inklusiboaren, ekitatiboaren eta berritzailearen alde egin, bikaintasunerantz aurrera egiteko	Hezkuntza
92. Oreka, gizarte-kohesio, kulturartekotasun eta bizikidetza handiagoa lortu gure ikastetxeetan	Hezkuntza
93. Eleaniztasuna bultzatu eskolan	Hezkuntza
94. Hezkuntza-sisteman sartzean berdintasuna bermatu	Hezkuntza
95. Irakasleen eginkizuna sustatu, Hezkuntzaren hobekuntzaren eta aldaketaren eragile nagusiak diren aldetik	Hezkuntza
96. Hezkuntza-azpiegiturak sortu, berritu eta egokitu	Hezkuntza
97. Irakaskuntzaren modernizazio teknologikoa bultzatu	Hezkuntza
Lidergoa Lanbide Heziketan	
98. Euskadik Bikaintasunezko Lanbide Heziketan duen lidergoari eutsi. Euskal Lanbide Heziketaren Legea	Hezkuntza
99. Berrikuntza Aplikatua eta Ekintzaitza babestu, Lanbide Heziketako ikastetxeetan	Hezkuntza
100. Lanbide Heziketako euskal ereduaren nazioartekotzea bultzatzen jarraitu	Hezkuntza
101. Lanbide Heziketako V. Euskal Plana egin	Hezkuntza
102. Euskarazko prestakuntza-zikloak ezartzen aurrera egin eta Lanbide Heziketan eleaniztasuna bultzatzen jarraitu	Hezkuntza
Bikaintasuna, espezializazioa eta nazioartekotzea unibertsitatean	
103. Unibertsitate-mailako oinarrizko politika zientifikoa eta ikertzailea garatu eta talentua sustatu, bikaintasunaren bila	Hezkuntza
104. Euskal unibertsitate-sistema garatzen jarraitu, emaitzetara bideratutako kudeaketaz eta inguru global berrira egokitzeko gaitasunaz, euskal gizartearen etorkizuneko erronkei erantzuteko	Hezkuntza
105. Euskal Unibertsitate Sistemaren nazioartekotzearen alde egin	Hezkuntza
106. Beken politika indartu ikertzaileen karreran	Hezkuntza
107. Unibertsitate-enpresako programak sustatu	Hezkuntza
II.3.ARDATZA. Bizikidetzarako giza eta kultur garapena	
Kultura integratzailea eta irekia	
108. Kultura dinamizatze eta sustatzeko estrategia sustatu, 2020. urteari begira	Kultura eta hizkuntz politika
109. Euskadiko sortzaileen sarearen alde egin, sortzaileei eta kultura-industriei lagunduz	Kultura eta hizkuntz politika
110. Euskadiko kultura-produkzioaren ikusgarritasuna eta irisgarritasuna indartu	Kultura eta hizkuntz politika
111. Sormen-industrien sektorearen antolakuntza bultzatu	Kultura eta hizkuntz politika
112. Erreferentziarako azpiegiturretan egiten diren ekitaldien eginkizun eragilea eta nazioarteko hedadura finkatu	Kultura eta hizkuntz politika
113. Ondare kulturala babesteko politikak gehiago zabaltu, bai eta haien eragin soziala ere	Kultura eta hizkuntz politika

114. Euskal kulturaren espazio digitala indartu, kultur ondarearen politika publikoak berrituz, eta irisgarritasunean eta herritarren partaidetza aktiboan arreta jarrita	Kultura eta hizkuntz politika
115. Gobernantza partekatua areagotu kultura-arloan	Kultura eta hizkuntz politika
Euskara eta hizkuntza-bizikidetz	
116. Euskararen gizarte-hazkundera finkatu, euskal hiztunen kopurua handituz eta haien hizkuntza-gaitasuna hobetuz	Kultura eta hizkuntz politika
117. Aisialdian eta formalak ez diren eremu funtzionaletan zabaldu euskararen erabilpena	Kultura eta hizkuntz politika
118. Eraginkortasunez egin aurrera, herritarren hizkuntza-eskubideak eremu publikoan eta pribatuan gauzatzeko aldera	Kultura eta hizkuntz politika
119. Euskararen hiru lurraldeen erakundeen arteko lankidetz antolatu eta indartu, eta euskararen nazioarteko aitormena bultzatu	Kultura eta hizkuntz politika
120. Euskal kulturaren eta euskararen nazioarteko proiektzioa sustatu, Etxepare Institutuaren bidez	Kultura eta hizkuntz politika
EITB. Eredua plurala, objektiboa eta jasangarria	
121. EITB zerbitzu publikoa izatea bermatu eta bikaintasuneko kudeaketa sustatu	Kultura eta hizkuntz politika
Kirola, osasunaren eta integrazioaren sustatzaile	
122. Euskal kirol-sistema kalitatezkoa finkatu	Kultura eta hizkuntz politika
123. Kirola maila guztietan babestu eta kirola egitea sustatu, osasuna, integrazio soziala eta berdintasuna bultzatzeko	Kultura eta hizkuntz politika
124. Turismoa bultzatzen duten eta inguruan aberastasuna sortzen duten kirol- ekitaldien antolakuntza babestu	Kultura eta hizkuntz politika
II.4. ARDATZA. Integrazioarako eta berdintasunerako agenda soziala	
Aukerez betetako etorkizuna gazteentzat	
125. IV Gazte Plana onartu (Gazteplana 2020)	Enplegu eta gizarte politikak
Kohesioa eta elkartasun soziala, bizikidetz-eredu gisa	
126. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta finkatu	Enplegu eta gizarte politikak
127. Inklusio Plana (2017/2021) egin eta abian jarri	Enplegu eta gizarte politikak
128. Gizarte-prestazioen eta politiken kudeaketa osoa aldarrikatu	Enplegu eta gizarte politikak
129. Gizarte-zerbitzuen Sistema finkatu eta indartu	Enplegu eta gizarte politikak
130. Gizarte-larrialdiko laguntzak bermatu	Enplegu eta gizarte politikak
131. Pobrezia energetikoari aurre egin	Enplegu eta gizarte politikak
132. Etxegabeak artatu	Enplegu eta gizarte politikak
133. Gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen arteko koordinazioa bultzatu	Enplegu eta gizarte politikak
134. Osasun-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen arteko lankidetz estua finkatu	Enplegu eta gizarte politikak
135. Zahartze aktiboa eta belaunaldien arteko elkartasuna	Enplegu eta gizarte politikak
136. Zaintzaileak babestu	Enplegu eta gizarte politikak
137. Boluntarioen lana bultzatu	Enplegu eta gizarte politikak
138. Hirugarren Sektorre Soziala babestu	Enplegu eta gizarte politikak

Familiak eta haurrak babestu	
139. Familien eta haurren aldeko ituna	Enplegu eta gizarte politikak
Aniztasuna eta integrazioa errespetatu	
140. Gizarte-ituna immigrazioaren alde eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka	Enplegu eta gizarte politikak
141. Aniztasun afektibo-sexualaren errespetua sustatzea	Enplegu eta gizarte politikak
Etxebizitza eta hiri-berrenoratzea	
142. Etxebizitzaren Legean aitortutako etxebizitza bat izateko eskubide subjektiboa garatu	Ingurumen, lurralde plangintza eta etxebizitza
143. Alokairu-erregimena lehenetsi, baita gazteen emantzipazioa ere	Ingurumen, lurralde plangintza eta etxebizitza
144. Eraikita dagoen parkea birgaitzen lagundu	Ingurumen, lurralde plangintza eta etxebizitza
Berdintasuna	
145. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu, garapen jasangarria lortzeko funtsezko zutabea den aldetik	Lehendakaritza
146. Lan-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatu	Lehendakaritza
147. Emakumeen kontrako biolentzia desagerrarazi	Lehendakaritza
II.5.ARDATZA. Kalitatezko zerbitzu publikoak	
Segurtasuneko zerbitzu publiko efizientea eta gertukoa	
148. Segurtasun-zerbitzuak eta Ertzaintza herritarrengana gerturatzen jarraitu	Segurtasuna
149. Ertzaintzaren prestakuntza eta egokitzapen profesionala bultzatu	Segurtasuna
150. Beste polizia-kidego batzuekiko koordinazioa eta lankidetzaren indartu	Segurtasuna
151. Ertzaintza, polizia integrala eta eskusiboa Euskadin	Segurtasuna
152. Segurtasuna eta mugikortasuna hobetu gure errepideetan	Segurtasuna
153. Larrialdiak prebenitzeko eta ohartarazteko sistema eta herritarren autobabesa indartu	Segurtasuna
154. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia, segurtasun publikoaren bermea	Segurtasuna
Kalitatezko Justizia	
155. Sistema judizial modernoa, azkarra eta eraginkorra	Lan eta justizia
156. Hurbiltasuneko Justiziaren eta koordinazio judizialaren eredu indartu	Lan eta justizia
157. Genero-indarkeriaren biktimei zuzendutako arreta judiziala hobetu	Lan eta justizia
158. Adingabeentzako arreta judiziala garatu	Lan eta justizia
159. Gatazkak ebazteko sistema alternatiboak sustatu	Lan eta justizia
160. Desagertutako pertsonen inguruneari lagundu	Lan eta justizia
III. OINARRIA: BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEAK	
KONPROMISOAK	SAIL ARDURADUNA

III.1. ARDATZA. Bizikidetzeta eta giza eskubideak	
161. Indarkeriaren amaiera ordenatua	Lehendakaritza
162. Egia-, justizia- eta erreparazioa- eta elkartasun-politika publikoak ezarri biktima guztiekin	Lehendakaritza
163. Memoria kritikoa, terrorismoaren edo indarkeriaren edozein formaren legitimazioa, konpentsazioa edo minimizazioa arbuiatzen oinarrituta	Lehendakaritza
164. Espetxe-politika legezko printzipio hauek oinarri hartuta: indibidualizazioa, humanitatea, sortutako kaltearen aitorpena eta birgizarteratzea	Lehendakaritza
165. Aniztasuna positiboki kudeatu, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan sortzen ari diren erronken aurrean	Lehendakaritza
166. Bake- eta bizikidetzeta-kultura, giza eskubideen eta pluralismoaren errespetuan oinarrituta	Lehendakaritza
167. Elkarrizketa eta akordioa, funtsezko lanabes demokratiko gisa bizikidetzeta-kultura sustatzeko	Lehendakaritza
<i>Garapenerako lankidetzeta, bizikidetzeta eta giza eskubideen faktore gisa</i>	
168. Garapenerako lankidetzari buruzko politika finkatu, eta euskal lankidetzeta-eredua gaurkotu	Lehendakaritza
169. Ebaluazio-kultura sustatu, lankidetzari dagokionez	Lehendakaritza
170. Garapenerako Lankidetzako Euskal Agentziaren gaitasunak indartu, garapenerako lankidetzako politika diseinatzeko eta kudeatzeko	Lehendakaritza
171. Lankidetzeta-politika koherenteagoa, koordinatuagoa eta partaidetzazkoagoa izan	Lehendakaritza
IV. OINARRIA: AUTOGOBERNU GEHIAGO ETA HOBEA	
KONPROMISOAK	SAIL ARDURADUNA
IV.1.ARDATZA. Autogobernu gehiago eta hobea	
172. Autogobernu aitortuaren defentsa	Gobernantza pub. eta autogober.
173. Eskuratzeko dauden Gernikako Estatutuko eskumenen transferentzia burutzeko eskatu	Gobernantza pub. eta autogober.
<i>Barrura begirako autogobernua</i>	
174. Hobetu barrura begirako autogobernua. Egungo erakunde-esparruari buruzko proposamenak	Gobernantza pub. eta autogober.
<i>Eremu juridiko eta politiko berria</i>	
175. Estatutu-ituna eguneratzea	Gobernantza pub. eta autogober.

I. Oinarria: Enplegua, ekonomiaren suspertzea eta jasangarritasuna

Ardatzak

I.1.- Hazkunde sendoa, enplegu gehiago eta hobeak dakarrena

I.2.- Hazkunde jasangarria

I.3. Hazkunde arduratsu eta gardena

I.1. ardatza: Hazkunde sendoa, enplegu gehiago eta hobea dakarrena

BIDE-ERAKUSLEAK

- 1. Enplegua, gure lehentasuna. Enplegua da Jaurlaritza osoaren ekintza politikoaren oinarritzko ardatza. Gure gizartearen erronka langabeziaren tasa % 10etik behera jaitea da. Horretarako, enplegu gehiago eta hobea sortzea zuzeneko helburu duten politika publikoak sustatuko ditugu ekonomiaren eta gizartearen arloan. Politika publiko horiek aurrera eramateko, Esparru Programa batean eskutik uztartu behar dira bai berariazko enplegu politikak bai garapen ekonomikoa eragina duten politikak. Izan ere, enplegua eta ekonomiaren suspertzea lotuta daude, bereizi ezinik lotuta egon ere.*
- 2. Enplegua eta ekonomia suspertzeko politika publikoa elkarrizketa sozialak lagundu eta bultzatu behar du, eta, horretarako, eragile ekonomiko eta sozialen artean etengabeko negoziazio-esparru bat finkatu behar da, eta Lan Harremanen Euskal Sistema indartu.*
- 3. Enplegurako prestakuntza kalitatezko enplegua bultzatzeko eta bermatzeko tresna nagusietako bat da. Eta aldi berean, enpresak teknologia eta antolakuntza erronka berrietara egokitzeko funtsezko tresna da.*
- 4. Industria lehiakorragoa jakintzaren ekonomian. Gure ongizaterako eta gure ekonomia garatzeko, funtsezkoa da Euskadik aurrerantzean ere ekonomia-sare indartsua edukitzea, munduari irekia, eta produktibitatea hobetzearen alde apustu egitea, berrikuntza eta giza baliabideen prestakuntza bidelagun dituela.*
- 5. Gure industria-sarea modernizatu behar dugu, "Basque Industry 4.0" estrategian aurrera eginez: fabrikazio aurreratu eta adimentsuko sistema berriak sartu behar ditugu, eta heziketa- eta prestakuntza-sistemak ingurune berri honen eskakizunetara egokitu. Jakintzaren ekonomia lehiakorrago baterantz urratsa egiteko, euskal berrikuntza sistema bultzatzeko apustu sendoa egin behar da. Berrikuntza, industria, nazioartekotzea eta inbertsio produktiboa; horra hor, Euskadin ekonomiaren sustapena eta enplegua finkatzeko lau oinarriak.*
- 6. Talentua, pertsonen parte-hartzea eta lan-harremanen eredu berri bat, gardenagoa, giltzarri dira gure ekonomiaren lehiakortasunerako. Horregatik, enpresen eraldaketa bultzatuko dugu, antolakunde lehiakorragoak izan daitezen eta enpresetako kide diren pertsonak parte-hartze handiagoa izan dezaten.*

KONPROMISOAK

Enplegu gehiago eta hobea

1. konpromisoa: Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru Programa

1. EKIMENA 2017ko lehen sei hilekoan, Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru Programa onartzea.

Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru Programa horretan, Enpleguaren Plan Estrategikoa sartuko da, eta, osagarri, ekonomia suspertzeko lau plan bilduko ditu, inbertsioaren, berrikuntzaren, nazioartekotzearen eta industria- eta energia-garapenaren esparruetan.

2. konpromisoa: Enpleguaren 2017-2020 Plan Estrategikoa onartu

1. EKIMENA Enpleguaren 2017-2020 Plan Estrategikoa onartu, Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru Programaren funtsezko ardatz gisa.

Enpleguaren Plan Estrategikoan honako hauek bultzatzeko neurriak jasoko dira: gazteen enplegua sustatzea, emakumea ekonomia- eta lan-jardueran bete-betean txertatzea, tokiko eta eskualdeko enplegu-planen bitartez laneratzea, enplegurako prestakuntza, ekintzailatza, ETEetarako eta langile autonomoentzako laguntza, tokiko merkataritza finkatzea eta "Renove" programak etxegintzan, bereziki intentsiboak enplegua sortzeko. Halaber, lehenetsia emango zaie laneratzeko zailtasunik handienak dituzten taldeen enplegarritasuna hobetzeko jarduketari (gazteak, 45 urtetik gorakoak, denbora luzez lanik gabe daudenak, emakumeak, bereziki zaugarriak diren edo baztertzeko-arriskuan daudenak eta mendetasunak dituztenak).

3. konpromisoa: Lanbide berritu eta modernizatu

1. EKIMENA Lanbide-Enplegu Zerbitzu Publikoa berritu eta modernizatu, bitartekoak emanez orientazioa, prestakuntza eta laneratzeko eginkizunak indartzeko, eta, betiere, lehenetsia izanik zailtasun handienak dituen taldeari lana bilatzen laguntzea eta laneratzeko ibilbide indibidualizatuak diseinatzea. Berrantolaketa hori egiteko, gizarte- eta ekonomia-eragileekin akordioa lortzeko ahalegina egingo da eta lehenetsizko tokia emango zaio gizarte-zerbitzuekiko

lankidetzari, gizarte-laguntzak jasotzen dituztenen laneratzea optimizatzeko eta, hala, gizarte-bazterketa kroniko egin dadin eragozteko.

2. EKIMENA Lanbidek enplegua eskaintzen duten enpresen eskura jartzen duen zerbitzu-eskaintza zehaztu; zerbitzu horiek langileak kontratatu, prestatu eta eguneratzeko gaur egungo beharrei erantzuteko dira, eta etorkizuneko profesionalen profilak zehazteko.
3. EKIMENA Lanbidek enplegua eskatzen dutenen eskura jartzen duen zerbitzu-eskaintza zehaztu; zerbitzu horiek orientazio pertsonalizatua bermatzeko dira, eta, horretarako, ibilbide pertsonalizatuak ezartzen dira, enplegarritasuna hobetze aldera.
4. EKIMENA Arreta-, orientazio- eta laneratze-eredu berariazkoa ezarri lana eskuratzeko zailtasunak dituztenentzat edo lan- eta gizarte-bazterketaren arriskuan daudenentzat.
5. EKIMENA Lan Merkatuari buruzko Informazio Sistema Integrala bultzatu, lehenago ikusteko enplegu eta prestakuntzako joerak, aukerak eta premiak.
6. EKIMENA Euskal Enplegu Sistemaren Legea onar dadin bultzatu.

4. konpromisoa: Prestakuntza eta birziklatze profesionala hobetu.

1. EKIMENA Prestakuntza eta birziklatze profesionala sustatu. Horretarako, unibertsitateekin eta lanbide-heziketako ikastetxeekin elkarlan estuan jardungo dugu, eta prestakuntza duala eta enpresetan zein entitateetan praktikak egitea sustatuko dugu.
2. EKIMENA Enplegurako lanbide-heziketaren kudeaketa osoa Lanbiden bateratu, Hobetuzen funtzioak ere sartuz.
3. EKIMENA Enplegu-politika aktiboen kalitatea eta eraginkortasuna ziurtatu. Horretarako, hobari-sistemaren ebaluazioa, jarraipena eta kontrola egiteko beharrezkoa den informazio guztia emateko eskatuko zaio Estatuko Gobernuari.
4. EKIMENA Enplegurako zeharkako trebetasunak eskuratzeko bultzatu, batik bat honako hauekin lotutakoak: talde-lana, arazoak konpontzea, egoera berrietara egokitzeko gaitasuna, trebetasun digitalak eta hizkuntza-gaitasunak (ingelesa, kasurako).

5. Konpromisoa: Gazteen laneratzea sustatu.

1. EKIMENA Gazteentzako enplegu-plan bat sustatu, lan-aukerak eta prestakuntza bultzatzeko, gazte-bermea aplikatuz. Plan horretan, honako hauek jasoko dira: prestakuntza dualeko programak abiaraztea, kontratazeko konpromisoa hartuz; hezkuntzaren arlotik lanera igarotzeko bekak; gazteak itzultzeko programak eta kultura ekintzailearen sustapena. Legegintzaldi honetan, helburua da 20.000 gaztek lehen aukera eta lan-esperientzia edukitzea.

Elkarrizketa sozialaren, ekonomia sozialaren eta laneko segurtasunaren alde

6. konpromisoa: Elkarrizketa soziala, langileek enpresetan duten parte-hartzea eta langile autonomoen arteko lankidetzak sustatu.

1. EKIMENA Lan Harremanen Euskal Sistema indartu, Lan Harremanen Kontseiluaren eta Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren jarduerari bultzada emanez eta langazketan bitartekari jardun dezaten bultzatuz.
2. EKIMENA Elkarrizketa soziala sustatu, Elkarrizketa Sozialaren Organo Iraunkorra sortuta eta bultzatuta. Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak eta ordezkariak zabalena duten sindikatu eta enpresaburu antolakundeetatik organoan instituzionalki parte hartu nahi dutela adierazten dutenen ordezkariak osatuko dute.
3. EKIMENA Negoziazio kolektiboa sustatu, lan-kalitatea eta egonkortasuna eta enpresa-lehiakortasuna hobetzeko.
4. EKIMENA Gizarte-eragileen parte-hartze instituzionala sustatu eta elkarrizketa sozialaren protagonista gisa duten zeregina gauzatu.
5. EKIMENA Langileek enpresetan parte hartzea bultzatu. Horretarako, helburu horretara bideratutako diru-laguntza programak eta zerga- pizgarriak indartuko dira, eta parte-hartzeak zer-nolako onurak dakartzan ikertzeko eta gizarte horretaz sentsibilizatzeko eta jakinaren gainean jartzeko ekimenak sustatuko dira.
6. EKIMENA Langile autonomoei bultzada emateko politika sustatu, haien interes profesionalak defendatzeko eta aholkua eta laguntza jasotzeko elkarte-egiturak indartuta.

7. konpromisoa: Enpresen gizarte-erantzukizuna sustatu

1. EKIMENA Enpresen gizarte-erantzukizunaren kultura sustatu gure enpresetan. Horretarako, gardentasuna azpimarratuko da, gizarte-erantzukizuna garatze bidean enpresako estamentu guztien inplikazioa lortzeko tresna baita.
2. EKIMENA Lan-munduan eragina duten gaiei buruz –gaur-gaurkoez zein gerora begirakoez– jarduteko, gogoeta egiteko eta eztabaidatzeko jarduerak garatu.

8. konpromisoa: Enplegu-politika pasiboen eta Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketa eskatu.

1. EKIMENA Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketa eskualdatzeko eskatu Estatuari, eta eskualdatze hori arautzeko behar diren hitzarmenak negoziatu Transferentzien Batzorde Mistoan, elkartasun-printzipioa eta sistemaren batasuna errespetatuz.

9. konpromisoa: Gizarte-ekonomiaren aldeko apustua.

1. EKIMENA Gizarte-ekonomiako enpresa berriak sortzea sustatu.
2. EKIMENA Gaur egungo gizarte-ekonomiako sarea indartu eta garatu ekonomia-sektore guztietan.
3. EKIMENA Partzuergoak eta lankidetzaren sareak eratzeari laguntza eman, jarduera-ahalmen handiagoa izan dezaten.
4. EKIMENA Gizarte-ekonomiaren sektoreari lagundu berrikuntzan, kalitatean, transferentzia teknologikoan eta informazioaren teknologiak ezartzen.
5. EKIMENA Gizarte-ekonomiaren prestakuntza eta informazioa zabaldu hezkuntzaren maila eta eremu guztietan, helburu horretara bideratutako programei laguntza ekonomikoa emanez. Bereziki, 3 euskal unibertsitateetan eta lanbide-heziketan sustatuko da gizarte-ekonomiako prestakuntza.
6. EKIMENA Elkartegintza sustatu, sektorea ordezkatzeko duten elkarteekin harremana indartu eta sendotuta.
7. EKIMENA Gizarte-ekonomiako enpresen gobernu ona eta enpresa horietako bazkideen prestakuntza sustatu.
8. EKIMENA Gizarte-ekonomiaren balioak eta printzipioak hedatu esparru guztietan.

9. EKIMENA Erakunde arteko eta eremu publiko eta pribatuaren arteko adostasuna eta lankidetzak, Euskadin gizarte-ekonomia bultzatzeko eta sustatzeko politikak diseinatu eta gauzatu daitezten.

10. EKIMENA Kooperatiben Lege-aurreproiektua sustatu.

10. konpromisoa: Osasuna eta segurtasuna sustatu lanean eta berdintasuna.

1. EKIMENA Gizarte-eragileekin batera lan egin, lan-baldintzak hobetzeari begira. Ildo horretatik, konpromisoa hartzen dugu enpresetako prebentzio-ordezkariekin prestakuntza-ekintzak bultzatzeko, lan-istripuei buruzko erregistroak eta informazioa modernizatzeko –ikerketari argitasun handiagoa emate aldera–, eta gaixotasun profesionalak detektatu eta aitortzeko protokoloak garatzeko.

2. EKIMENA Laneko Osasunaren eta Segurtasunaren 2015-2020 Euskal Estrategiaren garapena sustatu.

3. EKIMENA Soldata-diskriminazioari aurre egin, eta gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna bultzatu lan-eremuan.

11. konpromisoa: Lan-iruzurrari aurre egin. Lan-ikuskaritza

1. EKIMENA Lantokietako lan-baldintzak zaindu eta haiei buruzko informazioa eman.

2. EKIMENA Laneko ikuskaritza-zerbitzuak indartu, eta kontratazio arloko irregulartasunak eta lan-iruzurra aurkitzeko ikuskaritza-kanpainak sustatu.

3. EKIMENA Sindikazio maila baxuko taldeen ikuskaritza egiteko lagungarri diren neurriak garatu.

Industria lehiakorragoa jakintzaren ekonomian.

12. konpromisoa: "Basque Industry 4.0". Euskal industriaren aldeko plan integrala.

1. EKIMENA Euskadiko 2017-2020 Industrializazio Plana egin eta ezarri. Berrikuntza, fabrikazio adimentsuan aitzindari izatea eta industrian zerbitzu aurreratuak txertatzea ditu ardatz, eta industria-sektorea euskal BPGd-aren % 25 izatera heltzea du helburu.

13. konpromisoa: ETEei lagundu eta zailtasunak dituzten enpresak berregituratu.

1. EKIMENA Euskal enpresa txiki eta ertainek inbertsio produktiboan eta finantzaketan dituzten beharrei laguntzeko finantzabide eta abal publikoak bultzatu.
2. EKIMENA "Bideratu" programa sendotu, zailtasunak dituzten enpresak berregituratzeko tresna gisa.
3. EKIMENA Partaidetzako maileguak indartu Luzaro EFCren bidez, hartara inbertsioak finantzatu, finantza-arloa indartu eta nazioartekotzeko prozesuak garatu ahal izateko.
4. EKIMENA Zailtasunak dituzten enpresei banakako soluzioak eman, tartean diren eragile guztiekin koordinatuta jardunez.
5. EKIMENA Ekipamendu industrialean inbertsioa eta berrikuntza sustatu, *Remove Maquinaria* Programaren bidez.
6. EKIMENA Inbertsio teknologikoak bultzatu: Gauzatu programa eta Arrisku Kapitala.

14. konpromisoa: Proiektu industrial estrategikoak garatu.

1. EKIMENA Proiektu industrial estrategikoak garatzea eta enpresak handitzea bultzatu, bide-erakusle diren sektore eta jardueretan.
2. EKIMENA 250 milioi arteko funts publiko-pribatu bat bultzatu, teknologian eta nazioartekotzen gaitasuna duten euskal enpresen hazkundea eta sustraitzea bermatzeko.
3. EKIMENA Kluster politika sustatu gure enpresa-sarearen lotura gisa, sektore bereko enpresen artean lankidetzaz handiago sor dadin.

15. konpromisoa: Ekintzaitzari lagundu.

1. EKIMENA Foru-aldundiekin elkarlanean, Ekintzaitzaren Euskal Sistema sustatu, gizartean ekintzaitzaren kultura aktibatzeke eta atzerriko talentu ekintzailea erakartzeko –batez ere gazteen artean–, hartara Euskadi ekintzaileen lurraldea izan dadin.
2. EKIMENA Ekintzaileei Laguntzeko 2017-2020 Plana egin eta ezarri. Neurri fiskalak eta pizgarri ekonomikoak bilduko ditu, bai eta "leihatila bakarra" sortzea ere, enpresak sortzeko izapideak sinplifikatzeaz arduratzeko, ekintzaile izateko

ekintza eta aholkularitza-zerbitzu guztien berri emateko, eta gazteen ekintzaitzari, emakume ekintzaileei eta autonomoei arreta eta laguntza berezia emateko.

3. EKIMENA Ekintzaitzaren eta ekintzaileen balioa aitortu eta azpimarratu gizartean.
4. EKIMENA Euskadi lurralde ekintzaile gisa jartzea Industria 4.0 esparruan, Bind 4.0 nazioarteko ekimenaren bidez.
5. EKIMENA Barne-ekintzaitza sustatu enplegua eta jarduera ekonomikoa sortzeko bide gisa.
6. EKIMENA Euskal enpresa berrien hazkundera, sendotzea eta, hala badagokio, transmisioa bultzatu.
7. EKIMENA Enpresa berriak finantzatzeko formulak garatu.

16. konpromisoa: Ikerketa, berrikuntza eta teknologiaren aldeko apustua.

1. EKIMENA "RIS 3 Euskadi" espezializazio adimentsuaren estrategia garatu. Gutxienez bost urteko ziklo batez, aurrekontu publikoa urtean % 5 igotzeko konpromisoa hartu da, I+G+b-ren inbertsio publiko-pribatua suspertzeko.
2. EKIMENA Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2020 ezarri, Euskadik Europako eskualde berritzaile gisa duen tokia indartzeko, eta I+G+b-ren inbertsio publiko-pribatua % 3rantz gerturatzeko.
3. EKIMENA 100 ikerketa-proiektu estrategiko garatu, Euskadi aitzindari izan dadin lehentasun-estrategikoko ikerketa-proiektuetan (esaterako, fabrikazio aurreratuaren, energiaren eta biozientzia/osasunaren arloan).
4. EKIMENA Talentuaren balioa azpimarratu, eta giza kapitalaren garapena bermatu. Horretarako, gazte ikerlariak euskal produkzio-sarean sartzeko plan berezi bat egingo da, elkarlanean jardunez enpresekin, unibertsitateekin eta zientzia eta teknologiako euskal sarearen eragileekin.
5. EKIMENA Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren bikaintasuna hobetu.
6. EKIMENA Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema irekitzea eta nazioartekotzea sustatu.
7. EKIMENA Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema integratu bakar batean bildu berrikuntza enpresariala, berrikuntza publikoa eta berrikuntza soziala.

8. EKIMENA Patenteak sustatzeko euskal estrategia garatu.

17. konpromisoa. Berrikuntza ez-teknologikoa eta enpresa-kudeaketa aurreratua garatu.

1. EKIMENA Kudeaketa Aurreratuaren eredua zabaldu euskal enpresen artean, lehiakorragoak izan daitezen.
2. EKIMENA “Innobideak” estrategia garatu, produktuak eta merkatuak dibertsifikatzera bideratutako berrikuntza ez-teknologikoa ezartzeko (Innobideak lehiabide), kudeaketa berritzeko (Innobideak kudeabide), eta pertsonetan oinarritutako antolaketa-ereduak sustatzeko (Innobideak pertsonak).

18. konpromisoa: Euskadi Europako erreferente bihurtu Elektronikaren, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak aplikatzen, industriaren esparruan.

1. EKIMENA Euskadiko 2020ko Agenda digitala ezarri, Euskadin behar bezala sustatzeko Informazioaren eta Jakintzaren Gizartea, eta, betiere, teknologiek lehiakortasuna, ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko ematen dituzten aukerak balia daitezen lagunduz.
2. EKIMENA Industria adimentsua bultzatu, Basque Industry 4.0 Programa ezarrita.
3. EKIMENA Fabrikazio aurreratuko talde pilotutik ateratako ekimen estrategikoak ezarri: 4.0 Plataforma.
4. EKIMENA Banda-zabal ultra-azkarra zabaldu Euskal Autonomia Erkidego osoan; batik bat, jarduera ekonomikoa garatzen den eremuetan eta eremu periferikoetan.
5. EKIMENA Zibersegurtasuneko euskal zentroa sortu eta euskal enpresetan zibersegurtasuna sartzea sustatu, kudeaketa berritzeko oinarritzko ondorio gisa.

Europako helburuekin bat egiten duen energia-estrategia

19. konpromisoa: Energia-politika lehiakorra eta jasangarria.

1. EKIMENA Gasaren alde apustu egin, energia berriztagarrien hedapen handiagorako trantsizioko energia gisa, eta gasaren eta elektrizitatearen hornikuntzan

- Europarekiko interkonexio energetikoa sustatu, baliabideen erabilera maximizatuz.
2. EKIMENA Euskadiko 2030eko Energia Estrategia sektoreka garatu, energia berriztagarriak sustatzeko berariazko planak eginez: Euskadiko Plan Eolikoa / Biomasa Plana / Plan Fotovoltaikoa / Plan Geotermikoa / Itsas Energiaren Plana.
 3. EKIMENA Energia-iturri berriztagarri eta jasangarriak erabiltzeko teknologia- eta enpresa-garapena bultzatu.
 4. EKIMENA Diru-laguntza programak prestatu, aurrezte eta efizientzia energetikoko proiektuak sustatzeko eta ibilgailu elektrikoa zabaltea bultzatzeko; garrantzi berezia emango zaio bateriak eta birkargarako azpiegiturak garatzeari.
 5. EKIMENA Aurrezte eta efizientzia energetikoko proiektuak finantzatzen laguntzeko bitarteko berriak sustatu.
 6. EKIMENA Euskal enpresek jasaten dituzten argindarraren gailuzko behin betiko kintzako exijitu eta defendatu Espainiako Gobernuaren aurrean, eta Estatuaren araudi-aldaketa bultzatu arlo honetan.
 7. EKIMENA Estrategia aktiboa eduki, Garoñako zentral nuklearra itxi dezaten exijitzeko.
 8. EKIMENA Administrazio Publikoen Energia Iraunkortasunaren Lege-proiektua onartzea bultzatu, Eusko Legebiltzarrerara 2016ko uztailan bidali zen lege-proiektuaren arabera.
 9. EKIMENA BIMEP indartu, proiektu estrategikoa baita itsas energiaren teknologia- eta industria-garapenaren aldeko apustuan.
 10. EKIMENA Apurka-apurka, gasolioa garraiotik kanpo utzi, lurreko zein itsasoko garraioaren gasifikazioa sustatuta eta ibilgailu elektrikoa sartuta.
 11. EKIMENA Banatutako energiaren esperientzia pilotua abian jarri (Smart Grid).
 12. EKIMENA Energia Taldeko Erosteko Sistema eratu.

Egoera ahuleko eremuak suspertzea

20. konpromisoa: Egoera ahuleko eskualdeetan eta udalerrietan jarduteko berariazko planak.

1. EKIMENA Foru-aldundiekin eta egoera horretan dauden udalerriekin elkarlanean, programa integralak aktibatuko dira, egiturazko aldaketa handiak izaten ari

diren eremuetan edo Europar Batasunaren Eskualde Laguntzen Mapak (DAR) jasotzen dituen krisi larriak jasaten ari direnetan jarduteko.

2. EKIMENA Halaber, foru-aldundiekin eta egoera horretan dauden udalerriekin elkarlanean, tokiko eta eskualdeko garapen-planak bultzatuko dira, ekonomiaren eta gizartearen dinamizazioa bultzatzeko indize sozioekonomiko larrienak dituzten udalerrietan, EAEn batez bestekoa baino langabezia tasa nabarmen handiagoak jasaten dituzten udalerrietan, altzairuaren krisiak bereziki eragindako udalerrietan edo, puntako enpresak itxi edo lekualdatu dituztelako, enplegu galera handiak pairatu dituzten udalerrietan. Eremu horietan, era intentsiboan egingo da lan, Sprilur eta Indartu Programaren bidez.

Euskadi-Basque Country nazioartekotzeko estrategia

21. konpromisoa: Basque Country nazioartekotzeko estrategia globala garatu, eremu publiko eta pribatuarekin elkarlanean.

1. EKIMENA Euskadi-Basque Country marka indartzeko nazioartekotzeko estrategia bateratua garatu.
2. EKIMENA Kanpoko sare integratu batekin jardun, eta Euskadiren atzerriko ordezkartzen eta bulego sektorialen sarea indartu.
3. EKIMENA Bazkide estrategikoekin harreman handiagoa izan, Euskadiren kanpo-harremanak proiektatzeko; horretarako, nazioarteko erakundeekin eta estatuz azpiko entitateekin lankidetzeta-hitzarmenak sinatuko dira, eta learning tour ekimena indartuko da.

22. konpromisoa: Europako erakundeetan parte-hartze aktibo eta zuzena izan.

1. EKIMENA Ahalik eta gehien indartu Euskadik erabaki-esparru komunitarioetan duen parte-hartzea, batik bat Europar Batasuneko Kontseiluan eta Europako Batzordearen batzorde teknikoetan.
2. EKIMENA Euskadi-Estatua bitariko batzordea berreskuratu, Europako gaiak eta kanpo-harremanak aztertzeke.
3. EKIMENA Euskal eragileek sare, ekimen eta proiektu transeuroparretan parte hartzea sustatu.
4. EKIMENA Europako nazioekin eta eskualdeekin duen harremana indartu.

23. konpromisoa: Euskal euroeskualdearen lurralde-antolaketa indartu.

1. EKIMENA Euskadi-Nafarroa-Akitania euroeskualdea finkatu.
2. EKIMENA Mugaz gaindiko lankidetzak indartu, eta lankidetzak hitzarmenak sustatu EAE, Nafarroa eta Iparraldeko Mankomunitatearen artean.

Euskal Zentroak

24. konpromisoa: Euskal komunitate globala sustatzea, atzerriko euskal komunitateekiko harremanak estututa.

1. EKIMENA Euskal Diasporak egindako ekarpenaren berri eman Euskadin, ekonomiari, kulturari eta euskal gizarte globalaren garapenari egin dion ekarria ezagutarazteko.
2. EKIMENA Euskal Etxeen sare fisikoa indartu eta zabaltu.
3. EKIMENA "Basque Global Network" sare birtuala sendotu.

Enpresak nazioartekotzea

25. konpromisoa: Enpresak nazioartekotzeko bultzada, "Basque Country" Estrategiaren parte

1. EKIMENA Enpresak Nazioartekotzeko 2017-2020 Plana ezarri, "Basque Country" Nazioartekotzeko Euskal Estrategiaren testuinguruan, Basque Consortium-Nazioarteko Euskal Partzuergoa indartuta.
2. EKIMENA Spri-ren kanpo-sarea indartu, lehentasunezko herrialdeetan zabaltzen jarraituz.
3. EKIMENA Nazioartekotzeko estrategiak ebaluatu, aztertu eta zehazteko Adimen Lehiakorreko Unitatea sortu.
4. EKIMENA Euskal enpresari nazioartekotzeko eta aukera ekonomikoak bilatzeko laguntza eman. BC Lizitazio Plataforma sortu.
5. EKIMENA Enpresen esportazio-jarduerari laguntzeko programak indartu.

- | | |
|------------|--|
| 6. EKIMENA | Giza kapitala prestatu eta trebatu, Nazioartekotzeko Bekak eta Global Training Bekak ematen jarraituta. |
| 7. EKIMENA | “Invest in the Basque Country” estrategia indartu, atzerriko enpresak Euskadira lotzeko eta erakartzeko tresna gisa. |
| 8. EKIMENA | “Basque Country” marka sustatu, euskal enpresak kanpoan hobeto kokatuta egon daitezen. |

Lehen sektore errentagarri, berritzaile eta lehiakorra

26. konpromisoa: Euskadiko lehen sektorea garatu.

- | | |
|------------|---|
| 1. EKIMENA | Nekazaritza-sektoreari laguntza integrala emateko Planaren edukiak gauzatu (Landa Garatzeko Osoa Programa, 2015-2020), sektore hori lehiakorragoa eta jasangarriagoa izan dadin, eta, hala, balioetsi eta gizartera dadin. |
| 2. EKIMENA | Landa Ingurunearen Garapeneko apirilaren 8ko 10/1998 Legea aldatzeko lege-proiektua izapidetu eta onartu. |
| 3. EKIMENA | Landako eta kostako eremuak azpiegitura eta zerbitzu egokiz hornitu, hiri-inguruneke bizi-baldintza bertsuak bermatzeko modukoak eta populazioari eutsiko zaiola ziurtatzeko modukoak. |
| 4. EKIMENA | Elikaduraren sektorean, basogintzan eta arrantzan ekintzailtza bultzatu, eta bertako nekazaritza-elikagaiak eta baso-produktuak merkaturatzea sustatu. |
| 5. EKIMENA | “Sendotu” finantza-erreminta zabaldu, nekazaritza, basogintza, arrantza, elikagaigintza eta landa-garapeneko ekintzetan inbertsio-proiektuak garatzea bultzatzeko xedez. |
| 6. EKIMENA | Lehen sektorea gaztetu, etorkizuneko bermea izan dezan; horretarako, Nekazari Gazteentzako Gaztenek 2020 Plana ezarriko dugu, eta gazteak arrantza-sektorean sartzeko “Itsasoratu” ekimena. |
| 7. EKIMENA | Azpisektore guztien lehiakortasuna hobetzeko berrikuntza- eta ikerketa-estrategia integral bat bultzatu: nekazaritza, arrantza, basogintza eta abeltzaintza azpisektoreena. |
| 8. EKIMENA | Sasoikako Lanaren Arretarako IV. Plan Integrala (2017-2021) egin. |
| 9. EKIMENA | Nekazaritza Ekologikoaren Plana aurrera eraman, nekazaritza ekologikoa eta bere industria eraldatzailea garatzeko laguntza gisa. |

- 10. EKIMENA Egurraren sektorea egituratu Euskadin, osoa, lehiakorra eta teknologikoki aurreratua, eta Europan eredugarri izango dena.
- 11. EKIMENA Euskadiko Arrantza eta Akuikulturako 2020 Plana garatu.
- 12. EKIMENA Arrantzako Erakunde Ordaintzailea eratu.
- 13. EKIMENA Arrantza-kuotak kudeaketa propio batetik abiatuta finkatu eta banatu, euskal flotak arrantza jasangarria eta lehiakorra egiteko aukera izan dezan.

27. konpromisoa. Nekazaritzako elikagaiak eta jarduera sustatu

- 1. EKIMENA Gastronomia- eta elikadura-plan bat ezartzea, elikagai-kate osoa, euskal produktuen eta gastronomiaren berrikuntza eta kalitateagatik, nazioarteko erreferente bihurtzeko xedez.
- 2. EKIMENA Euskal elikagaiak merkaturatzeko, zabaltzeko eta haien inguruan sentsibilizatzeko estrategia integrala garatu.
- 3. EKIMENA Eusko Label eta jatorri-deiturak dituzten produktuen araudiak egokitu.
- 4. EKIMENA Elikagaigintza-enpresen nazioartekotzea sustatu.

Turismoa, tokiko merkataritza eta kontsumo arduratsua sustatu

28. konpromisoa: Bikaintasuna eta jasangarritasuna sustatu euskal turismo-jardueran.

- 1. EKIMENA 2017-2020 urteetarako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Planaren esparruan, Turismoaren Plan Gidaria egin.
- 2. EKIMENA Produktu turistiko lehiakorrek sortzea bultzatu, eta turismo-jardueraren esparruan ekimen berritzaileak sustatu.
- 3. EKIMENA Sektorearen pertsonalizazioa bultzatu, eta turismo-lanbideak babestu.
- 4. EKIMENA Euskadiren turismo-baliabideen sustapena bultzatu.

5. EKIMENA Turismo-eskaintzaren merkaturatzea sustatu, bai formatu konbentzionaletan, bai proposamen berritzaileetan; teknologia berriak erabiltzea sustatuko dugu, eskaintza turistikoan proposamen berri baliotsuak prestatzeko.
6. EKIMENA Kongresu, konbentzio eta azoken segmentuaren alde apustu egiten jarraitu, MICE turismoaren helmuga direnez gero, eta turismo enogastronomikoaren alde ere bai, Euskadi mundu mailako erreferente bihurtzeko xedez.
7. EKIMENA Hainbat turismo-eskaintza sustatu, bikaintasunezko tartean dagoen turistaren "target"-aren arabera dagoen eskaera espezializatuari kasu eginez.
8. EKIMENA Arau-esparrua eguneratu, Turismoaren Lurralde Antolamenduko Plana idatzi, eta neurketa-sistemak ezarri, sektoreko estrategia publikoen eta pribatuen ikuspegi egokia izateko.
9. EKIMENA Euskal turismoaren, merkataritzaren eta sukaldaritzaren arteko sinergiak sustatu, eta ekimen arrakastatsuen balioa azpimarratu (Basque Culinary Center, kasurako).
10. EKIMENA Turismo-sektoreko laguntzak egokitu, jasangarritasunaren irizpidea sartuta.
11. EKIMENA Euskadiren turismo-irizgarritasunaren eredua eguneratu.
12. EKIMENA Herri osoaren seinaleetika moderno, ulergarri eta integratua ezarri.
13. EKIMENA Turismo-arloan inguruko lurraldeekin edo gure herriaren antzekoak direnekin lankidetzeta-harremanak izatea bultzatu.

29. konpromisoa: Turismo esperientzialaren aldeko apustua.

1. EKIMENA Turismo-baliabide eta -esperientzia nagusiak lehenetsi eta definitu.
2. EKIMENA Eskaintza esperientziala hobetu, turismo-sektoreari egindako deialdien bidez, eta sektore horri informazioa eman, kudeaketa hobetzeko.
3. EKIMENA Turismo-eskaintza esperientziala kudeatu, jarraipena, kontrola eta balorazioa egiteko sistema baten bidez.
4. EKIMENA Euskadiko eskaintza esperientziala hedatzen eta garatzen lagundu, sustapen-ekintzen bidez.

30. konpromisoa: Herriaren turismo-marka, Euskadi Basque Country

1. EKIMENA Gure helmuga berezi egiten duten elementuak sustatu, Euskadi Basque Country marka turistikoa kokatzeko oinarrizko erreferentzia gisa.
2. EKIMENA Gure turismo-enpresen nazioartekotze-proiektuetan lagundu, turismo-jarduera erakartzen laguntzeko.
3. EKIMENA Euskadi marka sustatu nazioarteko foro eta azoketan, Euskadi Basque Country nazioartekotzeko estrategiari jarraituz.
4. EKIMENA Euskadi Basque Country herri-marka gisa proiektatu, erakundeen eta agente publiko zein pribatuen kudeaketa-estrategia koordinatua baliatuz.
5. EKIMENA Euskadi Basque Country helmuga sustatu, euskal turismo-administrazioaren elementu integratzaile eta harmonizatzaile gisa.

31. konpromisoa: Euskal merkataritza-sektorearen lehiakortasuna sustatu.

1. EKIMENA Euskal Merkataritzaren Gida Plana egin, 2017-2020 urteetarako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Planaren ezarpen- esparruan.
2. EKIMENA Tokiko merkataritza bultzatu eta bere lehiakortasuna sustatu, funtsezko elementua baita enplegua finkatzeko eta herriak eta hiriak dinamizatzeko, eta, horrekin batera, hiri-espazioak modu eraginkorrean kudeatu.
3. EKIMENA Merkataritza-sektorea informazioaren teknologietan sar dadin bultzatzen jarraitu, eta sektorea kontsumo- eta erosketamodu berrietara egokitzeko bitartekoak areagotu.
4. EKIMENA Merkataritza-sektorean modernizazio-programak eta kalitatearen, teknologiaren eta jardunbide egokien arloko prestakuntza bultzatu.
5. EKIMENA Euskal merkataritza-sarea osatzen duten enpresen ekintzailatza eta talentua sustatu, eta nazioartekotzen eta berrikuntzan lagundu.
6. EKIMENA Merkataritza-lankidetzak sustatu, merkataritzaren lankidetzak, dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatuta eta merkataritzako enpresarien elkarteak indartuta.
7. EKIMENA Ekintzaile berrien prestakuntza eta gaitasuna hobetu, bai eta merkataritza-sektoreko profesionalen trebetasunak ere, sektoreari laguntzeko zerbitzua eta jakintzaren transmisioa indartuta.

32. konpromisoa: Kontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutua

1. EKIMENA Herritarrei informazio eta prestakuntza arina eta eraginkorra eman, talde bakoitzaren beharrei eta kontsumo-joera berriei zuzendutakoa, hartara kontsumitzaile konprometituagoak eta arduratsuagoak lortzeko.
2. EKIMENA Kontsumo-gatazkak modu eraginkor eta efizientean konpondu, eta erreklamazioak kudeatzeko eta ebazteko prozedura erraztu. Horretarako, bitartekaritza sustatuko da gatazkak konpontzeko bide gisa, baita Kontsumoko Arbitraje Sistemari atxikitzea ere, eta hobetu egingo da erreklamazioen eta arbitraje-eskaeren izapidetze telematikoa.
3. EKIMENA Enpresek kontsumo-ekintzetan kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideekiko errespetu handiagoa izan dezaten sustatu. Horretarako, Kontsumobideren kontrol-ekintzek aitorpen handiagoa eduki dezaten sustatuko da, eta alertak arinago kudea daitezen bultzatuko da.
4. EKIMENA Sail arteko eta erakunde arteko lankidetzaren sare bat sendotu; batetik, kontsumitzaileen eskubideak defendatzeko ekintza eraginkorragoak bermatzeko, eta, bestetik, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak defendatzeko entitateekin sinergiak sortzeko.
5. EKIMENA Kontsumobide ikusgarriagoa egin, kontsumo arloko gatazkak prebenitzeko eta konpontzeko bitarteko erabilgarritzat har dadin. Komunikazio-ekintzak planifikatuko dira, eta areagotu egingo da sarean duen ikusgarritasuna eta estatuko zein nazioarteko foroetan duen parte-hartzea.

I.2. Ardatza: Hazkunde jasangarria

BIDE-ERAKUSLEAK

1. *Lurralde sozial, orekatu eta jasangarria. Euskadi lurralde orekatu eta iraunkorra izan dadin nahi dugu, ingurune degradatu gutxiago izango dituen, berroneratzearen eta bizi-kalitatearen alde egingo duena eta pertsonak, uneoro, kontuan izango dituen. Horixe da gure apustua: bai fisikoki bai sozialki elkarri lotutako lurraldea.*
2. *Ingurumen-politika arduratsua. Euskadik konpromisoa hartua dauka garapen iraunkorraren helburuekin eta berotegi efektuko gasen isurketa % 20 gutxitzeko erronkarekin.*

Erronka horrek aldaketa handiak eskatuko ditu energia-politikan, garraio-sisteman, nekazaritza-eta abeltzaintza-ereduan, gure lurraldearen hiri-eraketako dinamiketan, gure industrien ekoizpidean, etxeetan hondakinak kudeatzen eta uraren eta energiaren kontsumoan jartzen duten arretan, eta herritarrek ondasun eta zerbitzuak erosteko egunero hartzen dituzten erabakietan. Azken batean, ingurumen-trantsizioko prozesu bat da, eta, erakunde publiko eta pribatuei ez ezik, euskal gizarte osoari dagokio.

3. *Garapenerako azpiegiturak. Ziur gaude eta bat gatoz: azpiegitura berdeak, hiri-garraioan energia berriztagarriak erabiltzea eta eraikinen energia-efizientzia giltzarri dira Euskadi klima-aldaketaren aurrean kokatzeko eta 2015eko abenduan Parisen egindako goi-bileran hartutako konpromisoei begira jartzeko.*
4. *Mugikortasun iraunkorra. Baliabide mugatuak dituen planeta honetan, garraio-eredu iraunkor eta efiziente baterantz jo behar dela defendatzen dugu. Garraio-sistemak integratzearen alde egiten dugu: garraiorako bideratzen diren baliabide ekonomikoek, baliabide materialek eta giza baliabideek efizienteak izan behar dute. Garraio-sistema iraunkorrak bultzatzeak lehentasuna ematen dio garraio-bide nagusi gisa burdinbidea erabiltzeari.*

KONPROMISOAK***Mugikortasun jasangarria eta garraio publikoa*****33. konpromisoa: Garraio publikoa eta intermodalitatea sustatu.**

1. EKIMENA Garraio Jasangarriaren Gida Plana: Euskadi 2030 egin eta ezarri.
2. EKIMENA Intermodalitatea bultzatu, bai pertsonen garraioan bai salgaienean, garraio publikoaren sare integratu eta koordinatua indartuz, eta zentro logistikoak elkarrengandik gertu jarritz, hartara mugikortasun motorizatua murrizteko.
3. EKIMENA Mugikortasun Elektroaren Plan Integrala egin eta ezarri.

34. konpromisoa: Mugikortasun Iraunkorraren Estrategia.

1. EKIMENA Mugikortasun Jasangarriaren Legea onartu. Lege horretan, tarifen diseinuaren eta operatzaileen koordinazioaren elementu komun guztiak integratuko dira, zerbitzu-prestazioa bermatuko da, operadoreen arteko lankidetzak ekonomiko eta teknologikorako bideak jasoko dira, eta klima-aldaketaren aurkako borrokan lagunduko duten energia garbien erabilera eta ingurumenerako iraunkorrenak diren garraio-bideak bultzatuko dira. Halaber, Euskadiko Garraio Agintaritzaren Legearen aldaketa jasoko da.

35. konpromisoa: Txartel bakarra

1. EKIMENA Tarifa-integratioko eta txartel bakarreko sistema ezarri Euskadiko garraio publikoaren operatzaileetan; ordaintzeko bide teknologiko eta tarifikazio-modu berriak bultzatuko dira, garraio publikoa erabiltzea sustatzeko eta kudeaketa-kostuak gutxitzeko.

36. konpromisoa: Euskadiko Garraio Agintaritzaren barruan, garraio agintaritzak koordinatuta jardutea.

1. EKIMENA Euskadiko Garraio Agintaritzaren Legea aldatu, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako garraio-agintaritzak Euskadiko Garraio Agintaritzaren barruan sartu eta garatzeko; beren harremanak, antolaketa eta funtzionamendua argituko dira horrela, eta Euskadi osoan jardun integratua bideratuko duten koordinazio tresnak indartuko dira.

Garapen jasangarria lortzeko azpiegiturak.

37. konpromisoa. Euskadi, nodo logistikoa. Euskal Y amaitu.

1. EKIMENA Euskadik Iberiar Penintsularen eta Europaren artean Ardatz Atlantikoaren lotune izateko duen kokagunea indartu, Euskal Y azpiegitura amaituz eta hiriburuetan eta Irunen izango duen hiri- integrazioari konponbidea emanez.
- AHT Donostian Atotxako geltokiraino sartuta.
 - AHT Bilbon Abandoko geltokiraino sartuta; hala, desagertu egingo da gaur egun lur gainean dagoen burdinbide multzoa.
 - Gasteizen burdinbidea lurpera eramanda, hiriak gune berriak irabaz ditzan.
 - Irunen, muga dagoela kontuan hartuta, lurpean geltoki berri bat eraikita, 2011ko martxoan Estatuarekin izenpetutako protokoloaren arabera.
2. EKIMENA "Basque Country Logistics" lankidetzaren publiko-pribatuaren eredua bultzatu, plataforma logistikoa eta intermodal berriak garatzeko: Jundiz-Foronda, Lezo eta Arasur.
3. EKIMENA Euskal hirien artean tren-autobideak bultzatu eta "intercity zerbitzuak" garatu.

38. konpromisoa: Trenbideko garraioa hobetu.

1. EKIMENA Renferen eta Feveren aldirietako lineen transferentzia eskatu.
2. EKIMENA Euskotren sarearen hiri-integrazioa hobetu hirietan, dagokien udalekin kasuan kasuko hitzarmenak eginez.
3. EKIMENA Donostialdeko metroa eraikitzen jarraitu, Donostiako alderik aldekoa eraikiz eta Loiolako Erriberako aldageltoki berria bukatuz.
4. EKIMENA Gasteizko tranbia Unibertsitatera eta Salburura luzatu, eta gero Zabalgana auzora.
5. EKIMENA Bilboko tranbia luzatu (Zabalburu-Plaza Biribila), tranbia-eraztuna osatzeko helburua betetzen jarraitzeko.

6. EKIMENA Bilboko metroaren 3. linea guztiz amaitu, eta 4. eta 5. linea aztertzen jarraitu.
7. EKIMENA Loiuako aireportuarekin bat egiteko tren bidezko lotura diseinatu.

39. konpromisoa: Jarduera integral eta koordinatua portu eta aireportuetan.

1. EKIMENA Aireportu arloan egiteke dagoen transferentzia eskatu, Loiu, Foronda eta Hondarribiko aireportuen kudeaketa-eredu koordinatu eta osagarria ezartzeko.
2. EKIMENA Bilboko eta Pasaiako portuen kudeaketaren transferentzia eskatu, kudeaketa deszentralizatu bat garatzeko eta zentro logistiko intermodalekin dituzten konexioak optimizatzeko.
3. EKIMENA Euskadiko Udalen Lege Proiektua onartu.

40. konpromisoa: Nafarroa eta Akitaniarekiko interkonexioa hobetu.

1. EKIMENA Mugaz gaindiko garraio-politikak garatu; eskualdeetako agintariekin lankidetzaz itatea bultzatuko da, zerbitzu-eskaintza optimizatzeko xedez.

Ingurumen-politika arduratsua

41. konpromisoa. Karbono gutxiko ekonomia lehiakorra bultzatu.

1. EKIMENA Klima Aldaketaren Estrategia 2050-Klima 2050 ezarri.
2. EKIMENA Aurrezte eta efizientzia energetikoa sustatzeko programak egin.
3. EKIMENA Energia berriztagarrien erabilera bultzatu, % 20ra iritsi arte
4. EKIMENA Eraikuntza jasangarria, ekodiseinua sustatzea eta garraio publikoa erabiltzea sustatu.
5. EKIMENA Klima-aldaketara egokitzeko ikuspegia txertatu Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak onartzeko prozesuetan eta lurralde- eta hiri-plangintza antolatze bitartekoetan.
6. EKIMENA Udalekin lankidetzan aritu, klima-aldaketara egokitzeko politikak eta neurriak ezartzeko, Udalsarea 21 sarearen esparruan.

42. konpromisoa: Ekonomia zirkularra bultzatu.

- | | |
|------------|---|
| 1. EKIMENA | Foru-aldundiekin koordinatuta, zerga-sistema berdearen tresnak proposatu. |
| 2. EKIMENA | Hondakinak berrerabiltzea, birziklatzea eta balorizatzea sustatuko duten tresna ekonomikoak bultzatu. |
| 3. EKIMENA | Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020 garatu. |
| 4. EKIMENA | Enpresen gizarte-erantzukizun korporatiboko politiken barruan ingurumen-protokoloak txertatzea sustatu. |

43. konpromisoa: Ingurumenari, Klima Aldaketari eta Natura Zaintzeari buruzko Legea.

- | | |
|------------|--|
| 1. EKIMENA | Ingurumenari, Klima Aldaketari eta Natura Zaintzeari buruzko Lege Orokor baten proiektua onartu, arlo honetan dagoen legedia integratu eta eguneratuko duena, isurketen murrizketa-helburuak jarriko dituen eta klima-aldaketaren aurkako borroka bultzatzeko neurri arautzaileak ezarriko dituen. |
|------------|--|

44. konpromisoa: Enplegu berdea.

- | | |
|------------|---|
| 1. EKIMENA | Ekintzailtza sustatu, indartzen ari den sektore ekonomiko honetan, enpresa eta enplegu berriak sortzeko aukera-iturri bihur dadin. |
| 2. EKIMENA | Enplegu berdea sustatu, sinergiak bultzatuz euskal enpresekin, elkarteekin, erakundeekin eta klusterrekin, eta I+G+b-ren aldeko apustu sendoa eginez. |
| 3. EKIMENA | Ikerketa eta berrikuntza bultzatu, Ekoberrikuntzaren proiektuen bidez, Ekodiseinua sustatuta, eta Unibertsitatearekin elkarlanean. |

45. konpromisoa: Politika publikoetan ingurumenaren aldagaia txertatu.

- | | |
|------------|---|
| 1. EKIMENA | Indarrean dagoen IV. Ingurumen Esparru Programa 2020 garatu eta ebaluatu. |
| 2. EKIMENA | Euskal Ingurumen Estrategia berria egiten hasi, non ingurumena oparotasunaren eta ongizatearen faktoretzat hartuko den. |
| 3. EKIMENA | Ingurumenaren arloan eredugarria izango den administrazioa eratzeko urratsak egin, EAEko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa zabalduta. |
| 4. EKIMENA | Ingurumen-kudeaketako prozedurak eta izapideak sinplifikatu. |

5. EKIMENA Foru-aldundiekin elkarlanean, nekazaritza- eta basogintza- politikan ingurumen-aldagaiak erantsi, bereziki Natura 2000 Sarea.
6. EKIMENA Enpresen gizarte-erantzukizun korporatiboko politiken barruan ingurumen-protokoloak txertatzea sustatu.

46. konpromisoa: Ingurune naturalaren kalitatea hobetu.

1. EKIMENA Uraren kalitatea bermatzeko eta xahutzea, espekulatzea eta kutsatzea eragozteko ur politika bultzatu, URA-Uraren Euskal Agentziaren bidez.
2. EKIMENA Plan Hidrologikoa 2015-2021 eta Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana 2015-2021 berrikusi.
3. EKIMENA Ura hornitzeko, saneatzeko eta arazteko azpiegitura hidraulikoak garatu eta eraiki, dagoen plangintzaren arabera.
4. EKIMENA Airearen kalitatea hobetzen jarraitu, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) emandako gomendioei jarraituz.
5. EKIMENA Lurzoru kutsatuak babesteko Plana egin, eta lurzoru horiek ikertzeko eta berroneratzeko proiektuak berariaz sustatu.
6. EKIMENA Txinbadia+ Europako proiektua sustatu. INTERREG V-A Espainia-Frantzia-Andorra Europako Programaren esparruan sartzen da, lurraldeen arteko elkarlanean gauzatzen da, eta lurralde mugakideen garapen jasangarria sustatzeko sortu zen.
7. EKIMENA Ingurumen-hezkuntzako politikak indartu, eta aurrera egin herritarrek ingurumena babesteko eta zaintzeko duten benetako erantzukidetasunean, Ekoetxeen zeregin aktiboaren bidez.
8. EKIMENA EAEren Biodibertsitate Estrategia 2030 garatu.
9. EKIMENA Euskadin Natura 2000 Sarea osatzen duten espazioak antolatzeko planak egin, eta sinergiak indartu beste politika batzuekin (besteak beste, basogintza, nekazaritza eta arrantzakoak). Helburua da aurrera egitea ingurune naturala zaintzen eta berroneratzen, kontserbazio-egoera onean.

47. konpromisoa: Lurraldearen oreka. Lurralde-plangintza eta -estrategia

1. EKIMENA Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak-Lurraldea 2040 berrikusi, berariaz bultzatuz degradatutako guneak berroneratzea eta ekosistemen galera

mugatuz, populazio-dentsitate handiagoak nagusitzeko, eta lurzorua erabilera-konbinazioa eta berrerabilera indartzeko.

2. EKIMENA Lurralde-plangintza, partziala zein sektoriala, Lurralde-antolamenduaren gidalerro berrien joerara egokitu.
3. EKIMENA Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio guztien koordinazioa sustatu lurralde-antolamenduaren gaian, Lurralde Antolamendurako Batzordearen bidez.
4. EKIMENA Udal-plangintzaren informazio geografikoa eta lurralde-informazioa kudeatzen jarraitu.
5. EKIMENA Lurzorua legedia eta hirigintza egokitu, jasangarritasunaren eta hiri-berroneratzearen eta -berritzearen helburuen zerbitzura. Horretarako, erregelamendu bidez garatuko dira Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea eta Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legea, eta Hirigintza eta Eraikuntza Ordenantzak egingo dira.
6. EKIMENA Paisaiaren balioa azpimarratu, herritarren bizi-kalitatean elementu garrantzitsua baita, eta LAG eta gainerako lurralde-planetan txertatu, paisaiaren balioak kontserbatuko direla bermatzeko moduan.
7. EKIMENA Euskal Herriko Unibertsitatearen “Kultur paisaiak eta ondarea” UNESCO Katedrerekiko lankidetzara indartu eta berritu, eta paisaiaren garrantzia sustatu eskoletan.

48. konpromisoa: Hiri-birgaitzea, -berroneratzea eta -berritzea.

1. EKIMENA Europako 27/12 Zuzentaraua betez, eraikita dagoen parkean esku hartzeko epe luzerako estrategia bat zehaztu, bide emango duena egoerak zehaztu eta dagokion ekintza-planak hiri-garapen jasangarriaren ikuspegitik egiteko (hiri-habitata).
2. EKIMENA Hirietan eta auzoetan esku hartzeko programa berri bat sustatu, beharrezkoa den erakunde arteko lankidetzarekin. Horrela, batetik, hiri-birgaitze, -berritze eta -berroneratzeari lotutako esku-hartzeak planifikatu ahal izango dira (“Hiri-birgaitzearen eta -berroneratzearen aldeko udalerriak” programa) eta, bestetik, Euskadi lurralde orekatu eta jasangarri batean antolatu ahal izango da, gune degradatuak murriztuta.
3. EKIMENA Birgaitze Integratuko Eremuak, Eremu Degradatuak edo Europar Batasuneko Eskualdeetako Laguntzen Mapan sartutako eremuak berroneratzea sustatu, eta lurzoru industrialak berreskuratzea bultzatu, berriz ere Industria Aurriak Eraisteko Programa sustatuta.

4. EKIMENA Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin elkarlanean, tokiko ekonomia eta enplegua sustatu, hiri-berroneratzearen esparruan, Ekintza Plan Integralaren bidez. Jarduera/enplegua sortzera, guztion ona eta jasangarritasuna lortzera bideratutako ekimenei emango zaie lehentasuna, auzo edo distritu mailako ekonomia-jarduerak bultzatuko dira, eta, aldi berean, hiri-birgaitzea eta -berroneratzea sustatuko dira.
- Lurraldean esku hartzeko diziplina anitzeko zeharkako prozesu horietan, azken urteotan egindako lana txertatuko da, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren barruan, RIS3ren esparruan; halaber, eguneratu egingo da Eraikuntza Jasangarrirako Ibilbide Orria - BULTZATU 2025, berrikusi eta eguneratu, 2050era bitartean lortu beharreko helburuak definitzeko, eta 2030 eta 2040an lortu beharreko tarteko urratsak zehazteko.
5. EKIMENA Hiri-zaugarritasunaren inbentarioa eta eraikita dagoen parkean esku hartzeko beharren diagnostikoa eguneratu, bizitegi-parkearen ezaugarriak zehaztuta, eta, horrekin batera, kontsumoen ebaluazioa eta herritarren baldintza sozioekonomikoen azterketa ere eguneratu.
6. EKIMENA Finantza-mekanismo eta -bitarteko berri eta berritzaileak bultzatu eta garatu, elkarlanean jardunez tokiko, lurraldeko, autonomiako, Estatuko eta Europako entitate eta erakundeekin.

49. konpromisoa: Pasaiako badia berroneratu.

1. EKIMENA Erakundeen artean behar diren akordioen bitartez, Pasaiako badiaren berroneratze progresiboa garatzen jarraitu eta bere ingurunea berreskuratu.

I.3. Ardatza: Hazkunde arduratsu, moderno eta gardena

BIDE-ERAKUSLEAK

Kudeaketa arduratsua.-

- 1. Eusko Jaurlaritzaren eta euskal erakunde guztien kudeaketa ekonomikoak zorrotasun eta erantzukizun printzipioari jarraitu behar dio. Beharrezkoa da finantzen saneamendua eta aurrekontu-orekaren helburuekiko konpromisoari eustea, jasangarritasun ekonomikoaren berme direlako. Erantzukizun-printzipioan oinarrituta, Europako politika berri bat nahi dugu, modu orekatuagoan uztartzeko, alde batetik, defizit publikoaren kontrola, eta, bestetik, enplegua sortzeko ezinbestekoak diren ekonomia berraktibatzeke neurriak.*
- 2. Pertsonen oinarritzko beharrekiko sentiberatasunak eta konpromisoak izan behar dute, aurrerantzean ere, erakunde publikoen ekintzaren funtsezko printzipioa. Funtsezko zerbitzu publikoak eta gizarte politikak bermatzea da Euskadiko kohesioa eta bizi-kalitatea oinarritzeko ardatza. Kalitatezko hazkunde ekonomikoaren alde gaude, baina desberdintasuna areagotu gabe. Ildo horretatik, kontu publikoak bateratu, eta ekonomian eta aurrekontuetan zorrotz jokatu da, kalterik egin gabe gure ongizate mailari, funtsezko zerbitzu publikoei eta ekonomia produktiboaren eta hazkundearen bultzadari.*
- 3. Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari dagozkion gaiei buruzko araudi eraginkor, moderno, egonkor eta gardena garatuko du, eta euskal administrazio publikoen finantza-nahikotasuna bermatzen jarraituko duen baliabideen banaketa-eredua finkatuko du. Beharrezkoa iruditzen zaigu sarrera eta gastu publikoen arteko oreka bikaina bermatuko duen zerga-sistema ekitatezko, progresibo eta nahikoari eustea.*
- 4. Zerga-iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borroka helburu adostua eta etenik gabea izan behar du euskal administrazio publiko guztirako, eta plan bateratu eta koordinatuen arabera jardun.*

Kudeaketa ireki eta gardena.-

- 5. Gardentasuna, eraginkortasuna, parte-hartzea eta emaitzak ebaluatzea oinarri izango dituen administrazio kultura berri baten zutabeak eraiki nahi ditugu. Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunean aldarrikatutako gobernu ona eta administrazio ona izateko eskubidearen ardatz bermatzaileak izan behar dute plangintzak eta herritarren parte-hartzeak.*
- 6. Gardentasuna eta herritarren parte-hartzea lehentasunezko eta zeharkako alderdiak izatera heldu dira. Sareak sortzeko eta herritarren eskaerak entzun, artatu eta partekatzeko gai den administrazio publiko eredu baten alde gaude. Herritarren parte-hartzea demokraziaren ideia bihotz-bihotzean dago: herritarrekiko elkarrizketa arazoei aurre egiteko, konponbideak entzun eta partekatzeko; hori izango da gure bidea..*

KONPROMISOAK***Finantza publikoen kudeaketa arduratsua.-*****50. konpromisoa: Ekonomia Ituna eguneratu eta defendatu.**

- | | |
|------------|--|
| 1. EKIMENA | Estatuarekin akordioa lortu, 2007-2011 bosturtekoari dagozkion kupoetan egiteke dauden likidazioak egiteko, eta 2012-2016 aldiari dagozkion behin-behineko kupoak behin betiko likidatzeko. |
| 2. EKIMENA | Kupoa Zehazteko Metodologiaren Bosturteko Legea (2017- 2021) onartzea bultzatu. Lege berri horretan jasoko dira Estatuko Aurrekontu Orokorrek sarreretan eta gastuetan izan dituzten egiturazko aldaketak, eta tributu berrien hitzarmenean egindako aldaketek eta eskumenen eskualdaketek eragindako aldaketak. |
| 3. EKIMENA | EAEren eta Estatuaren arteko Ekonomia Ituna eguneratu, tributu itunduetan autonomia handiagoa lortzeko, eta Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa bultzatu, Estatuaren eta Euskadiren arteko ekonomia- eta finantza-harremanak arautzeko instantzia gisa. |

51. konpromisoa: Aurrekontu-politika zorroztasunean eta jasangarritasunean oinarritzen dela eta defizit publikoaren helburua betetzen duela zaindu

- | | |
|------------|--|
| 1. EKIMENA | Euskadiren defizit publikoaren muga erabaki eta beteko dela bermatu. |
| 2. EKIMENA | Euskal zor publikoaren maila egonkortu, Europar Batasunak ezarritako helburuekin eta Estatuaren egonkortasun-planeari jasotakoekin bat etorritik, eta, betiere, gizarte-politikei eta funtsezko zerbitzu publikoei eragin gabe. |
| 3. EKIMENA | Euskal ekonomia eta finantza arloko gardentasun-politika publikoaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitate guztiek kontu publikoak emateko eskura jartzen dituzten aurrekontu- eta ekonomia-gaietako informazioa areagotu, aurrekontu-egonkortasunaren esparruan. |
| 4. EKIMENA | Gastu arruntari eusteko politikarekin jarraitu, eta egoera ekonomikoen balizko aldaketa baten aurrean eraginkorrak diren jarduketa-neurriak bultzatu. |

52. konpromisoa: Zerga- eta finantza-politika hazkundearen eta elkartasunaren zerbitzura jarri

1. EKIMENA Zerga Koordinazioko Organoak zerga-araudian beharrezkoak diren eguneratzeak egitea; batetik, jarduera ekonomikoa, berrikuntza eta enplegua sustatzeko, eta, bestetik, gizarte-politikak eta oinarrizko zerbitzu publikoak babesteko.
2. EKIMENA Edozein zerga-aldaketa onartu aurretik zerga-sistemari buruzko osoko bilkura monografiko bat egitea bultzatu, Euskal Autonomia Erkidego osoko zerga-politika ebaluatu, orientatu eta harmonizatze aldera.
3. EKIMENA Zerga- eta sustapen-tresna egokien bidez, inbertsioak erakarri, bai jarduera eta sektore ekonomiko berriei bultzada emateko bai gaur egungo jarduerari eusteko.
4. EKIMENA Finantza-tresna publikoak arrazionalizatu.
5. EKIMENA Ekonomiaren Garapena eta Azpiegitura Sailarekin elkarlanean, teknologian eta nazioartekotzen gaitasuna duten euskal enpresen hazkundera eta sustraitzea bermatzeko 250 milioiko funts publiko-pribatu bat bultzatu.
6. EKIMENA Eskualde Garapenerako Europako Funtsa (EGEP) 2014- 2020ren Euskadiko Programa Operatiboaren kudeaketa eraginkorra egin.
7. EKIMENA Euskal enpresen sarean produktu berritzaileak garatzea eta energetikoki efizienteak diren ekipamenduak erostea bultzatzen duten erosketa publikoen programak sustatu.

53. konpromisoa: Ekonomi- eta finantza-ordenamendua eguneratuta eduki

1. EKIMENA Finantza Publikoen Euskal Kontseiluan, Euskadiko Tokiko Erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legea indarrean sartzeak dakartzan xedapenak garatzeko beharrezkoak diren akordioak bultzatu.
2. EKIMENA Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2017-2021 aldian aplikatuko den metodologiari buruzko lege-proiektu berri bat onartu. Erakundeen arteko adostasunean oinarrituko da, eta euskal administrazio publikoek hurrengo urteetako lehentasunei aurre egiteko finantza-nahikotasuna badutela bermatuko du.

3. EKIMENA Diru Laguntzen Legea eta Euskadiren ordenamendu juridikoa etengabe eguneratzen jarraitu, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari dagozkion gaietan eta, oro har, ekonomia- eta finantza-arloko gaietan.
4. EKIMENA Euskal Autonomia Erkidegoko aurrezki-kutxen eta banku- fundazioen esparru juridikoa egokitu eta arautu.
5. EKIMENA Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei aplikatzeko araudia garatu, gardentasuna eta informazioa areagotuz, eta borondatezko gizarte-aurreikuspena herritarren artean zabaldu.
6. EKIMENA Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-jarduera antolatzen jarraitu, Estatistikaren Euskal Plana 2014-2017 bukatuta, eta 2018-2021 aldirako plangintza berria onartu, Estatistikaren Euskal Plana 2018-2021 onartzeko Legearen bidez.

54. konpromisoa: Zerga-iruzurraren aurkako borroka.

1. EKIMENA Zerga-iruzurrari eraginkortasunez aurre egiteko foru- aldundiekin izan beharreko lankidetzeta eta koordinazioa bultzatu, Zerga Koordinaziorako Organoari dagozkion jardueren bidez.
2. EKIMENA Urtero, Zerga Koordinaziorako Organoan, Zerga-iruzurrari aurreko egiteko Plan Integral Bateratua egin, foru-aldundiekin lankidetzan arituz eta koordinatuz. Bilketa-helburuen urteko zenbatekoa jasoko da hor, eta zerga-iruzurrari aurre hartzeko eta aurre egiteko jardueren katalogoa ere bai.
3. EKIMENA Erakunde arteko informazioa trukatzeko sistemekin jarraitu eta optimizatu, zerga-iruzurra kontrolatu, jarraitu eta zigortzeko jarduerak eraginkorragoak izan daitezen.
4. EKIMENA Apurka-apurka, zerga-heziketa ezarri unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan, Hezkuntza Sailarekin eta Foru Ogasunekin elkarlanean.

55. konpromisoa: Gizarte-erantzukizuna zaindu kontratazio publikoan.

1. EKIMENA Kontratazio publikoko prozesuetan klausula sozialak txertatu, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legean eta kontratazio publikorako ingurumen-irizpideen euskal araudian xedatutakoaren arabera.

Administrazio ireki, garden eta eraginkorra

56. konpromisoa: Enplegu publikoaren arau-esparrua zerbitzu publiko gehiago eta hobeak eskatzen dituen gizartearen beharretara egokitu. Euskal Enplegu Publikoaren Legea.

1. EKIMENA Euskal administrazio guztietarako enplegatu publikoen eredu komun bat ezarriko duen Euskal Enplegu Publikoaren Legea onartu. Araudi berri hori enplegu publikoaren erakunde-kalitatea hobetzera bideratuko da; horretarako, sindikatuen eta enplegatu publikoen parte-hartzea, haien profesionalizazioa, lanpostuak betetzeko moduak eguneratzea, bitartekotasuna gutxitzea eta enplegu publikoa finkatzea bultzatuko duten elementuak sartuko dira, administrazio publikoaren funtzionamendu onari kalterik egin gabe eta sindikatuekiko adostasuna lortzen saiatuz, Eusko Jaurlaritzak 2015eko abenduaren 1ean onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Enplegu Planean azaltzen diren baldintzetan eta moduetan.

57. konpromisoa: Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu publikodunen integritate etikoa ziurtatu.

1. EKIMENA EAEko sektore publikoko kargu publikodunek "Etika eta jokabide onaren kodean" jasotako estandar etikoak beteko dituztela zaindu.
2. EKIMENA 1/2014 Legeak ezartzen dituen betebeharren jarraipena eta kontrola egiteko "Langileen Erregistro Zerbitzua" bultzatu (Kargu publikodunen Jokabide Kodea eta haien interes gatazkak arautzen ditu 1/2014 Legeak, eta Eusko Legebiltzarrak onartu zuen).

58. konpromisoa: Euskal enplegu publikoa erronka berrietara egokitu.

1. EKIMENA 2015eko abenduaren 1ean onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Enplegu Plana gauzatzen jarraitu, administrazio publikoko plantillak berritzeko eta gaztetzeko.
2. EKIMENA Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako I. Plana garatu (2016ko irailaren 6koa).
3. EKIMENA Lanpostu-zerrendaren beste balorazio bat egin, euskal administrazio moderno, telematiko, zero papereko eta gardenari egokitzeko, eta hizkuntza-eskakizunak egokitzen eta eguneratzen jarraitzeko.

59. konpromisoa: Sektore publikoa sinplifikatu.

1. EKIMENA Enpresa-sektore publikoa berrantolatzeko hasitako prozesuarekin jarraitu, tartean diren eragile eta erakundeekin elkarlanean.
2. EKIMENA Euskal Sektorre Publikoaren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Legea onar dadin bultzatu. Lege horrek euskal sektore publiko guztiarenak diren printzipio orokorrak aplikatzea bermatuko du; langileen, aurrekontuen eta enpresen eta fundazio publikoen finantzazioan kudeaketa eraginkorraren formulak sartuko ditu; eta bikoiztasunak eragotzi, eta enpresa eta sozietate publikoen sarea arrazionalizatu eta sinplifikatuko du.

60. konpromisoa: Efizientzian eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu.

1. EKIMENA Xedapen Orokorrak egiteko Prozedura aldatzeko Lege- proiektua onar dadin bultzatu, prozeduren digitalizazioa jaso dezan eta Estatuaren oinarritzko araudiari egokitu dakion, zehazki Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeari.
2. EKIMENA Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea aldatzeko lege bat onar dadin bultzatu.
3. EKIMENA Paperik gabeko administrazioa eta administrazioen arteko benetako elkarreragingarritasuna burutu, plataforma eta izapidetze- sistema elektronikoen bidez, eta NISAE plataforma hedatu, Euskadiko administrazioaren elkarreragingarritasunaren eta segurtasunaren nodo gisa, euskal administrazioen artean eta Estatuako gainerako administrazioekin datuak trukatzeko. Horri dagokionez, Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailarekin elkarlanean, Euskadiko Dokumentu Kudeaketa Integraleko Lege bat bultzatuko da, EAEko administrazio elektronikoa erabat gauzatzea arautuko duena.
4. EKIMENA “Konbergentzia Plan Orokorra IKTen arloan” ekintza- planaren neurriak ezarri. Halaber, egokitu egingo da informazio- eta telekomunikazio-sistemen egitekoak eta kudeaketa-modalitateen planifikazioa, eraketa eta banaketa arautzen dituen otsailaren 18ko 35/1997 Dekretua.
5. EKIMENA Gobernu digitalaren estrategia sustatu, mundu digitalak euskal gizarteari dakartzkion erronka eta aukera berriei aurre egiteko. Horretarako, EAEko administrazioen arteko elkarlana eta plataforma digital konpartituak garatzea bultzatuko da, eta ekintza publiko-privatuan sortutako datu digitalek sortutako aukerak aprobeztatuko dira zerbitzu publiko berriak optimizatu, aldatu edo sortzeko. (Digital Moments).
6. EKIMENA Eusko Jaurlaritzaren azpiegitura teknologikoak prestatu, IoT- tik datozen aukerak aprobeztatzeko moduan. (Gauzen Internet).

7. EKIMENA Informazio administratiboa ireki eta berrerabiltzearen esparruan, "open data" datu irekien plan operatiboa garatu.
8. EKIMENA Euskadiko Administrazio Orokorreko maila anitzeko erakundez osatuta dauden kontseiluak aztertu, eta identifikatu horietatik zeinen zereginak bete ditzakeen "Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluak".
9. EKIMENA Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea eta EAEko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea erregelamendu bidez garatzeari ekin.

61. konpromisoa: Gardentasuna eta herritarren partaidetza sustatu.

1. EKIMENA Euskal Sektore Publikoaren Gardentasuna, Herri Partaidetza eta Gobernu Oneko Legea onar dadin bultzatu. Hala bermatuko da informazio publikoa herritarren artean zabaltzea eta herritarrek erabili dutela, eta ulergarria, argia, irisgarria eta egiazkoa dela. Administrazioaren eta herritarren arteko noranzko biko harremana ere sustatuko da, batetik, herritarren parte hartzeko eskubidea norainokoa den eta zein eduki dituen zehaztuta, eta, bestetik, eskubide hori baliatzeko eskura dauden bitartekoak zehaztuta (hala nola "erregelamenduzko herri-ekimena" eta *Gobernu Irekia* plataforma).
2. EKIMENA Gardentasunaren Sail arteko Batzordea eratu Eusko Jaurlaritzan.
3. EKIMENA Gardentasunaren arloko jardunbide egokiak elkarrekin landu eta horien berri eman elkarri, erakunde publiko autonomiko, lokal eta nazioartekoaren eta gobernu kanpoko erakundearen artean.
4. EKIMENA "Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zurian" jasotako konpromisoak bete.
5. EKIMENA Politika eta zerbitzu publikoen ebaluazioa sustatu, elkarlanaren ikuspegitik eta kontuak emate aldera.
6. EKIMENA ZUZENEAN Herritarrentzako Arreta Zerbitzua garatu eta hobetu, herritarrei zerbitzuak eskura izatea erraztuz eta kanal anitzeko zerbitzu eraginkorra bermatuz.
7. EKIMENA Jaurlaritzaren informazio osoaren publizitate aktiboa sustatu modu proaktiboan, herritarrek eskatu beharrik izan gabe.

62. konpromisoa: Gobernantza publikoan berritzailea den Europako eskualde gisa sendotu Euskadi.

1. EKIMENA Gobernantzaren eta Berrikuntza Publikoaren 2020 Plan Estrategikoa onartu, Gobernu Programa honetan administrazio publiko, berritzaile, ireki eta parte-hartzailea eraikitzeko jaso diren konpromisoen lana planifikatzeko.

63. konpromisoa: Hiriburutza dela-eta Gasteizekin hartutako erantzukidetasun-konpromisoari eutsi

1. EKIMENA Gasteizen hiriburutza-kanona areagotu, erakunde komunen egoitzak izateagatik hiriak duen zama konpentsatzeko elementua baita.

II.1. Ardatza: Osasun eskubide unibertsala

II. Oinarria: Giza garapena, gizarteratzea, berdintasuna eta kalitatezko zerbitzu publikoak

Ardatzak:

II.1. Osasun eskubide unibertsala

II.2. Bikaintasunezko hezkuntza, oreka soziala bermatzeko

II.3. Bizikidetzarako giza eta kultur garapena

II.4. Integraziorako eta berdintasunerako agenda soziala

II.5. Kalitatezko zerbitzu publikoak

II.1.Ardatza: Osasun eskubide unibertsala

BIDE-ERAKUSLEAK

1. *Osasuna gizakiaren funtsezko eskubide bat da. Zentzu horretan, uste dugu pertsonak osasun-sistemaren ekintzaren ardatz nagusia direla, eta beharrezkoa iruditzen zaigu euskal osasun-sistema finkatzea, unibertsala eta zuzena. Hala, kalitatezko osasun-zerbitzuen estaldura eta irisgarritasuna bermatuko zaie Euskadin bizi diren pertsona guztiei, Antolamendu Sanitarioaren Legean oinarrituz.*
2. *Sistemaren kudeaketa publikoa indartuko dugu, eta osasun-zentro eta zerbitzuen titulartasun publikoa mantenduko dugu, sektore pribatuak justifikatuta dauden egoeretan izan dezakeen paper osagarria gorabehera; sektore pribatuaren parte-hartze horrek beti errespetatuko ditu gardentasun-, kalitate- eta kontrol-irizpideak.*
3. *Guretzat osasuna banakako ondasuna eta gizartearen ondare komuna da, erakunde guztiek zaindu eta babestu beharrezkoa, 2013-2020 Osasun Planarekin bat etorriz. Horretarako, bizitza-estilo, balio eta ohitura osasuntsuak sustatuko dira, kontuan hartuz, besteak beste, dieta, ariketa fisikoa edo tabakoaren, alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoa.*
4. *Aldaketa demografikoek eta, batik bat, herritarren zahartze mailakatuak behar berriak eragiten dituzte; horregatik, funtsezkoa da aurrera egitea arreta integratuko eredurantz, gaixotasun kronikoen tratamendu jarraitura bideratuz, arreta soziosanitarioa finkatuz eta lehen mailako arretaren papera indartuz. Hori guztia, pertsona guztien beharrei arreta egokia ematen zaiela bermatzeko eta sistemaren jasangarritasuna ziurtatzeko.*
5. *Profesionalak dira osasun-sistemaren aktibo eta indar nagusia; ikuspuntu horretatik, osasun-enplegu egonkorra eta kalitatezkoa finkatzeko eta sustatzeko lan egingo dugu, baita rol profesional berriak garatzeko ere.*
6. *Erabat ziur gaude biozientzien eta osasunaren eremuko ikerkuntzan eta berrikuntzan inbertitzea funtsezkoa dela pertsonen osasuna hobetzeko, osasun-sistemaren eraginkortasuna handitzeko eta Euskadin enplegua eta aberastasuna sortzen laguntzeko.*

KONPROMISOAK

Pertsonak hartzea politika guztien ardatz nagusizat, eta, halaber, politika horiek unibertsaltasunaren, elkartasunaren, ekitatearen, kalitatearen eta herritarren parte-hartzearen printzipioetan oinarritzea.

64. konpromisoa. Osasun-sistemaren estaldura unibertsala eta irisgarritasuna bermatu.

- | | |
|------------|--|
| 1. EKIMENA | Herritarrak osasun-sistemara gerturatzea eta iristea errazten duten zerbitzu telematikoak bultzatu eta aurrez aurrekoak ez diren harreman-bideak finkatu. |
| 2. EKIMENA | Gaixotasun kronikoak dituzten pazienteen etxez etxeko arretaren zerbitzu telematikoak sustatzen jarraitu; Osakidetzako erakundeen zerbitzu-eskaintzan sartuko dira. |
| 3. EKIMENA | Desgaitasun fisikoa edo sentSORIALA dutenen irisgarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren jarduerak egin euskal osasun-sistemaren zentro, instalazio, baliabide eta zerbitzu guztietan. |
| 4. EKIMENA | Herritarren parte-hartzeari leku handiagoa eman osasun-zerbitzuen antolaketan eta erabakiguneetan, eta pazienteen elkarrekin lankidetzaz izatea sustatu, gaixotasuna hobeto ezagutzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko tresnak garatzeko xedez. |

65. konpromisoa. Itxarote-zerrendak ezarritako ratioen azpitik mantendu.

- | | |
|------------|---|
| 1. EKIMENA | Abian jarritako neurrietan sakondu, arreta espezializatuko kontsultetara eta proba osagarrietara iristeko itxaron beharreko denbora laburtuta. |
| 2. EKIMENA | Prozedura kirurgikoetarako batez besteko itxarote-denbora martxoaren 21eko 65/2006 Dekretuak ezarritako ratioen azpitik mantentzea bermatu; dekretu horren bidez, Euskadiko Osasun Sistemaren konturako prozedura kirurgiko programatuetara eta urgenteak ez direnetara iristeko gehienezko epeak ezarri ziren. |

66. konpromisoa. Osasunaren zainketan pertsonen erantzukidetasuna sustatu.

1. EKIMENA Osasun Eskola" ekimena indartuko da, haurtzarotik bizitza- estilo osasuntsuagoak sustatzeko, baita osasun-zerbitzuen erabilera egokia ere.
2. EKIMENA Herritarrak gaixotasuna ezagutu, prebenitu eta kudeatzen inplikazio handiagoa edukitzea erraztu.
3. EKIMENA Gaixotasun kronikoak dituzten pazienteei "Paziente Bizia " Programaren bidez lagundu, dauzkaten osasun-arazoek kontrol handiagoa izan dezaten.

67. konpromisoa: Ekitatea babestea osasun-arretan, arreta berezia jarritz genero-ikuspegiaren eta giza talde ahulenetan.

1. EKIMENA Osasun-zerbitzuen ekitatea bultzatu, eta herritarren osasunari arreta egokia ematen zaiola bermatu, prestazioak eta horien iraupena homogeneizatu.
2. EKIMENA Osasun maila baxuagoak dituzten pertsonen bideratutako jarduketara espezifikokoak garatu, desberdintasunak saihesteko. Hala, arreta berezia jarriko da adineko pertsonengan, desgaitasunen bat duten pertsonengan, immigranteengan, gaixotasun mentalak dituzten pertsonengan eta askatasunik ez duten pertsonengan.
3. EKIMENA Osasunaren Tokiko Sareak finkatu eta zabaldu, Lehen Mailako Arretako zerbitzuen, Osasun Publikoko zerbitzuen, udalen eta tokiko sektore eta elkarrean artean lankidetzan aritzeko egitura gisa.
4. EKIMENA C hepatitisa duten paziente guztiei kasu egin, gaixotasuna sendatzeko tratamenduak emateko; eta gaixotasun hori goiz detektatzeko eta ez zabaltzeko plan bat ezarri.
5. EKIMENA Genero-ikuspegiaren sustatu osasun-arloko jarduketara guztietan, desberdintasunik egon ez dadin.

68. konpromisoa: Pazienteari informazio eta arreta pertsonalizatu osoa eta kalitatezkoa eman.

1. EKIMENA Informazio eta arreta pertsonalizatu osoa eta kalitatezkoa eman pazienteari, osasun-sistemaren baliabideak eta funtzionamendua hobeto ezagutu ditzan, eta, horrela, osasun-arreta pertsonal eta indibidualizatua bultzatu dadin.

2. EKIMENA Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak sartu, herritarrek harreman arinagoa izan dezaten osasun-sistemarekin egiten dituzten kudeaketetan, ahalik eta segurtasun eta konfidentzialtasun handiena bermatuz.
3. EKIMENA Osasun Karpeta bidez, osasun-sistemetara sarbide pertsonala izatea sustatu, segurtasun eta konfidentzialtasun osoa bermatuta.
4. EKIMENA Herritar guztiei osasun-arreta bere lehentasunezko hizkuntzan, euskaraz ala gaztelaniaz, emango zaiela bermatu.
5. EKIMENA Osasun-sistemaren prestazioetan izandako atzerapenei buruzko aldizkako informazioa eman, eta prozedura kirurgikoei buruzko informazioa eskuratzeko gardentasuna sustatu, osasun-karpeta bidez.

Prebentzioaren eta osasun-sustapenaren kultura garatzen jarraitu.

69. konpromisoa. Osasuna sustatu ingurune komunitarioan.

1. EKIMENA Elikadura osasuntsua, ohiko ariketa fisikoa eta bizitza-estilo osasuntsuak sustatu. Elikadurari dagokionez, Elikadura Osasuntsuaren Estrategia egingo da.
2. EKIMENA Haurren Obesitatea Prebenitzeko Plana egin. Informazioan, osasun-heziketan, jarduera fisikoan eta elikadura osasuntsuan oinarritutako neurriak bilduko ditu, gizartea kontzientziatzeko eta obesitatea prebenitzeko jardunbideak ezartzeko.
3. EKIMENA Gazteen artean alkoholaren kontsumoa prebenitzeko ekintza instituzionala indartu, ingurune komunitarioan, hezkuntzan, osasunean arau-esparruan eta gizartearen sentsibilizazioan neurriak hartuta. "Adingabeak eta alkohola" programa.
4. EKIMENA Txertaketa-egutegiak etengabe berrikusi eta eguneratu, irizpide zientifikoak eta datu epidemiologikoak kontuan hartuta.
5. EKIMENA Gazteen aho-hortzetako osasuna sustatu, Haurrentzako Hortz Arreta Programak eskaintzen dituen zerbitzuen irisgarritasuna eta erabilera hobetuta.

70. konpromisoa: Osasun publikoa sustatu, eta zaintza-sistema integral bat abian jarri.

- | | |
|------------|---|
| 1. EKIMENA | Zaintza-sistema integral bat abian jarri, hobeto erantzun ahal izateko gaixotasun-agerraldien, gaixotasun berrien eta osasun publikoko alerten aurrean. |
| 2. EKIMENA | Hainbat eragileren eta mailaren artean koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko formula berriak jarri. |

71. konpromisoa. Koordinazioa bultzatu, osasuna hobetzeko.

- | | |
|------------|---|
| 1. EKIMENA | 2013-2020rako Osasun Planetik eratorritako ekintzak ezarri, eta tokiko osasun-sareei bultzada eman. |
| 2. EKIMENA | Osasun-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzen jarraitu, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren lidergotik abiatuta eta 2017-2020rako Ildo Estrategiko Soziosanitarioen testuinguruan. |
| 3. EKIMENA | Politika eta plan sektorial guztiek osasunean duten eragina ebaluatu. |
| 4. EKIMENA | Osasun-sistemako eta osasun publikoko profesionalen artean sarean lan egin. |
| 5. EKIMENA | Gaixoen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko jarduerak egiteko elkarrean proiektuei lagundu. |

72. konpromisoa. Arreta berezia eman mendekotasun-arazoak dituzten pertsoneri.

- | | |
|------------|---|
| 1. EKIMENA | Mendekotasunen Euskal Autonomia Erkidegoko VII. Plana egin; mendekotasunak prebenitzeko programak eta ekintzak bilduko ditu, bereziki familia-, hezkuntza-, erkidego- eta lan-eremuetara bideratutakoak. |
| 2. EKIMENA | Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko Legea garatzeko dekretu bat onartu. Besteak beste, honako hauek jasoko ditu: koordinaziorako eta parte hartzeko bitartekoen antolaketa eta funtzionamendua; tabakoaren, zigarro elektronikoaren eta alkoholaren eskaintza murrizteko neurriak, eta Mendekotasunen Behatokiaren arauketa. |

73. konpromisoa: HIESaren eta beste gaixotasun infekzioso batzuen prebentzioa.

- | | |
|------------|---|
| 1. EKIMENA | Sexu-transmisiozko infekzioen prebentzioari buruz kontzientziatu gizartea, talde zaurgarrienengan arreta berezia jarrita. |
|------------|---|

2. EKIMENA GIBa ez kutsatzeko prebentzio-programak sustatu arrisku- taldeetan.
3. EKIMENA Neurri berriak hartu gaixotasun horiek eta, batik bat, C hepatitisaren goiz detektatzeko

Osasun-arloko erronka berriei erantzun egokia emateko arreta integratuko ereduan sakondu

74. konpromisoa: Osasun-esparruko arreta integratua indartu, Osasun Erakunde Integratuen eredia finkatuz.

1. EKIMENA Diziplina anitzeko ekipo profesionalak sortu, pazienteei arreta integrala emateko.
2. EKIMENA Ebaluazioaren kultura sustatu, Osasun Erakunde Integratuak kudeaketaren eta emaitza asistentzialen etengabeko hobekuntzara bideratuz.
3. EKIMENA Epidemiologiako edo osasuna sustatzeko zereginak dituzten Osasun Publikoko eskualde edota lurralde mailako egituren koordinazioa hobetu Erakunde Sanitario Integratuetan.
4. EKIMENA Paziente kronikoentzako Ospitalizazio Unitateak sortzea bultzatu.

75. konpromisoa: Informazio Klinikoko Sistema Bateratua sendotu.

1. EKIMENA Informazio Klinikoko Sistema Bateratua zabaldu Osakidetzaren baliabide guztietan.
2. EKIMENA Informazio Klinikoko Sistema erabiltzea bultzatu egoitza- baliabide guztietan, gizarte- zein osasun-sektorekoetan.
3. EKIMENA Osasunaren eta Asistentzia Zerbitzuen Behatokia sortu, zerbitzuen erabilera eta erabilera horren emaitzak hobeto ezagutzeko.

76. konpromisoa: Koordinazio soziosanitarioa sustatu.

1. EKIMENA Erakunde Sanitario Integratuetako Batzorde Soziosanitarioak sustatu.
2. EKIMENA Koordinazio soziosanitarioa bultzatu, pertsonak modu integralean ebaluatuko dituzten lehen mailako arreta soziosanitarioko taldeak ezarri eta hedatu.

3. EKIMENA Historia Soziosanitarioa zabaldu, osasun- eta gizarte- eragileen artean elkarreragiteko informazio komunaren oinarri gisa.
4. EKIMENA Jarduketa-protokoloak sinatu tokiko erakundeekin, koordinazio sozial eta sanitarioa sustatzeko.

Osasun-sistemaren hobekuntza eta modernizazioa sustatu, espezializazio altua bultzatuz eta berariazko planak eta programak sustatuz

77. konpromisoa: Espezializazio altua eta bikaintasun klinikoaren sustatu.

1. EKIMENA Espezializazio altuko baliabideak erreferentziako ospitale jakin batzuetan bildu, jarduera bikaintasun klinikoaren arabera garatu ahal izateko.
2. EKIMENA Kasuak kontzentratzeko eta profesional adituen jakintza baliatzeko bide ematen duten erreferentziako unitateak sendotu.

78. konpromisoa: Morbimortalitatean eraginik handiena duten arazoentzako prozesu asistentzialak berrantolatu.

1. EKIMENA "Infartu kodearen" sareko lana sustatu, jarduketa-denborak hobetzeko eta, ondorioz, miokardioko infartu akutuaren morbiditate jaisteko.
2. EKIMENA "Iktus kodea" modu homogeen eta orekatuan garatu EAE osoan.
3. EKIMENA Prozesu onkologikoetarako eta morbiditate garrantzitsua duten beste gaixotasun batzuetarako irispide azkarrak jartzea sustatu.
4. EKIMENA Gaixotasun neurodegeneratiboei heltzeko estrategia bat ezarri.

79. konpromisoa. Asistentzia onkologikoa berrantolatu. Plan Onkologiko Integrala

1. EKIMENA Euskadiko Plan Onkologiko Integrala garatu. Euskadik onkologian dituen baliabide guztiak bildu eta antolatuko dira bertan, eta hurrengo urteetarako helburu eta estrategia asistentzialak ezarriko dira, oraingo egoeraren azterketatik abiatuta eta Euskadiko onkologiaren bikaintasun-helmuga definituz.

2. EKIMENA Minbiziaren Aholku Batzordearen bidez, minbizia bahetzeko egungo programak ebaluatu eta beste programa batzuen ebidentzia zientifikoa aztertu, ezar daitezkeen ikusteko.

80. konpromisoa: Zainketa aringarria bultzatu. Zainketa Aringarrien Plana zabaldu.

1. EKIMENA Zainketa aringarria orokortu. Horretarako, Euskadiko Zainketa Aringarrien Planean (2020) jasotako lan-lerroak garatuko ditugu eta bertan proposatutako ekintza guztiak ezarriko ditugu.

81. konpromisoa: Gaixotasun kronikoei, gaixotasun mentalei eta gaixotasun arraroei berariazko arreta eman.

1. EKIMENA Paziente kronikoentzako ospitaleratze-unitateak sortzea bultzatu, paziente horiei tratamendu globala emateko, eta egonaldi ertaineko eta egonaldi luzeko ospitaletako antolamenduari eta baliabideei ekin.
2. EKIMENA Gaixotasun kronikoak dituzten pazienteen errehabilitazioa sustatu.
3. EKIMENA Osasun mentaleko programa espezifikoaren garapena bultzatu.
4. EKIMENA Gaixotasun arraroei berariazko arreta eman. Horretarako, informazio-jarioak eta epidemiologiaren erregistroa biziartean gain, asistentziaren koordinazioa, diagnostikoa eta tratamendua areagotuko ditugu, eta gizarte-zerbitzuekiko eta hezkuntza-sistematikiko koordinazioa hobetuko.
5. EKIMENA Gaixotasun neurodegeneratiboen arreta-programa garatu: alboko esklerosi amiotrofikoa (ELA); esklerosi anizkoitza; Parkinson eta Alzheimer.

82. konpromisoa: Arreta farmazeutikoa

1. EKIMENA Farmazia-bulegoak Euskadiko Osasun Sistema Publikoan eragile gisa sartzea sendotu.
2. EKIMENA Euskadiko zahar-egoitzetan eta zentro soziosanitarioetan artatutako pertsona guztiei farmazia-arreta egokia ematea bultzatu.
3. EKIMENA Farmazia-gastua arrazionaltasunez kudeatu, preskripzio efizientea eta kalitatezkoa eginez, farmazia komunitarioaren balioa azpimarratuz, farmazia-arretaren programa garatuz, eta haren etengabeko segimendua eginez.

Baliabide sanitarioen kudeaketa efizientea eta berrikuntza kudeaketa-metodoetan.

83. konpromisoa: Pazienteen premietara egokitutako osasun-azpiegiturak bermatu.

1. EKIMENA Eibarreko Ospitalea eraikitzen amaitu eta zabaldu.
2. EKIMENA Urdulizeko Ospitale berriaren zerbitzu eta ekipamendu mediko guztiak zabaldu.
3. EKIMENA Bio-Cruces Osasun Ikerketa Institutua jasoko duen eraikin berria amaitu.
4. EKIMENA Arabako Unibertsitate Ospitaleko zerbitzu orokorretako eraikin berria eraiki, Gasteizko Txagorritxu auzoan.
5. EKIMENA Basurtoko Unibertsitate Ospitaleko Kirurgia eta Bizkorketa Bloke berria abian jarri.

84. konpromisoa: Lehen mailako arreta eta hark sistema sanitarioan jokatzeko duen eginkizun nagusia bultzatu.

1. EKIMENA Lehen mailako arretarako zentro berriak zabaldu (sei).
2. EKIMENA Diagnostiko-, terapia- eta segimendu-baliabide teknikoak hornitu, osasun-arazo gehienak konpontzeko gaitasun handiagoa egon dadin.

85. konpromisoa: Osasun-sistemari eutsi, metodoak eta baliabideak optimizatu.

1. EKIMENA Ohiko ospitaleratzearen alternatibak bultzatu, telemedikuntza sustatuz, bereziki paziente kronikoentzat.
2. EKIMENA Teknologia berriak sistematikoki ebaluatu, Osakidetzaren ekipamendu teknologikoa eguneratuta egon dadin etengabe. Horretarako, haren finantzazioa bultzatzeko hitzarmenak egingo ditugu Osteba-Ebaluazio Teknologikoko Zerbitzuarekin lankidetzan.
3. EKIMENA Aurrez aurrekoak ez diren zerbitzuen zerrenda zabaldu, pazienteen eta osasun-arloko profesionalen premiak aintzat hartuta.

4. EKIMENA Gai hauek guztiak zorrotz eta sakon aztertu: dauden prestazioak; teknikak eta prozedurak; eta horiek guztiek biztanleen osasun-egoeran duten benetako inpaktua. Horrela, lehentasunak ezarri ahal izango ditugu, eta erabilpen desegokiak saihestu.

86. konpromisoa: Pazientearen Segurtasun Estrategia garatu.

1. EKIMENA Pazientearen Segurtasun Estrategia ezarri, haren segurtasun-kulturaren sustapena lehenetsiz.
2. EKIMENA Sistemek eta esku-hartzeek pazientearen segurtasunean duten eraginkortasuna baloratu, bereziki gizarteari eta pertsonen bizi-kalitateari balioa eranstean diotenak.

87. konpromisoa: Herritarren partaidetza eta Osasun Sistema Publikoaren gardentasuna bultzatu.

1. EKIMENA Euskadiko Osasun Sistema Publikoan Herritarren Partaidetza Programa zabaldu.
2. EKIMENA Herritarren Partaidetzaren Praktika Onen Behatokia sortu, Euskadiko Osasun Sistema Publikoaren barruan. Horretarako, nazioartean arrakastatsua izan diren kasuak antzeman eta aplikatuko ditugu.
3. EKIMENA Gardentasuna areagotu aplikatu daitezkeen tratamenduei buruzko informazioari dagokionez, bai eta kalitateari buruzko adierazleei eta osasun-emitzei dagokienez ere.

Osasun-arloko profesionalen protagonismoa eta inplikazioa bultzatu.

88. konpromisoa: Osasun-arloko profesionalen inplikazioa.

1. EKIMENA Osasun-arloko profesionalen lidergo partekatua bultzatu eta profesional horiek zentroen eta zerbitzuen kudeaketan parte-hartzeko bide eraginkorrak ezarri, erabakiak hartzeko eta sistema eraldatzeko prozesuetan gehiago inplika daitezzen.

- | | |
|------------|--|
| 2. EKIMENA | Osasun-arloko profesionalen gaikuntza eta etengabeko prestakuntza erraztu, profesional horiei zuzendutako prestakuntza ziurtatuz, haien kualifikazioa ziurtatzeko eta garapen profesionala bultzatzeko. |
| 3. EKIMENA | Euskadiko Osasun Sistemaren euskararen erabilpenaren normalizazioan aurrera egin. Horretarako, Euskararen erabilpena normalizatzeko II. Plana ezarriko dugu Osakidetzan, pazienteak aukeratzen duen hizkuntzan eskaintzeko osasun-prestazio guztiak. |
| 4. EKIMENA | Erizaintzako profesionalen gaitasunak eta funtzioak bultzatu, erizainen eginkizun eta autonomia profesionala sustatuz. |
| 5. EKIMENA | Erizaintzako profesionalen birbideratzea bultzatu, bereziki ospitale-loturako eta lehen mailako praktika aurreratuetako profiletan. |
| 6. EKIMENA | Lege-esparru egokia sustatu, zentro publikoetako eta pribatuetako erizainek agindu eta erabili ahal izateko osasun-produktu eta medikamentu ohikoenak. |
| 7. EKIMENA | Osasun-arloko langileen lan-baldintzak hobetu. Horretarako, Euskadiko Osasun Sistemako langileen lana eta familia bateragarriak egiteko neurriak garatuko ditugu. |

Osasun-arloko Ikerketa eta Berrikuntza sustatu

89. konpromisoa: Osasun-arloko ikerkuntzarako eta berrikuntzarako inbertsioa handitu. Jakintzaren kudeaketa sustatu, bai eta osasun-arloko ikerketan parte hartzen duten eragileekiko lankidetzaren ere.

- | | |
|------------|--|
| 1. EKIMENA | Osasun-zientziekin zerikusia duten lanbideak garatu, hezkuntza-sare publikoan zein pribatuan. |
| 2. EKIMENA | Graduaren aurreko eta graduaren osteko prestakuntza bultzatu, osasun-arloko lanbideen premiak ebaluatuz. |
| 3. EKIMENA | Osasun-arloko ikerkuntzarako eta berrikuntzarako inbertsioa mailaka handitu. |
| 4. EKIMENA | Osasun-arloko Ikerketa eta Berrikuntza Estrategian (2020) jasotako ekintzak ezarri. Haien bidez, ikerketa-zentroen eta entitateen sarearen jardura indartuko dugu, bereziki biozientzian eta osasunaren eremuan. |
| 5. EKIMENA | Osasun-sistemari, haren antolamenduari eta pazienteekin egiten den praktika klinikoari emaitzak transferitzea eta aplikatzea bultzatu. |

6. EKIMENA

Osasun-arloko profesionalen eta bikaintasun-zentroen arteko harremanak bultzatu, eta profesional horiek diziplina eta erdigune askoko ikerkuntza-sareetan parte hartzea sustatu.

II.2.Ardatza: Bikaintasunezko hezkuntza, oreka soziala bermatzeko

BIDE-ERAKUSLEAK

- 1. Hezkuntza gizarte oso baten eta herritarren banakako aurrerapenaren faktore nagusia da. Funtsezko elementua da aukera-berdintasuna sustatzeko eta bizikidetzak demokratikoa, solidarioa eta erantzulea eraikitzeko.*
- 2. Ondo prestatutako giza kapitala pilatzea estrategikoa da Euskadiren etorkizunerako. Hortaz, guretzat hezkuntza ere funtsezko faktore bat da aurrerapen ekonomikoa eta ongizatea sortzeko, gure hazkunde ekonomikoko eredia indartzeko eta gure produkzio-sektorearen lehiakortasuna handitzeko. Euskadik gizarte lehiakorra izan nahi badu, bikaintasunerantz bideratu behar du hezkuntza-sistema osoa.*
- 3. Hezkuntzaren ikuspuntu integral batetik, guk ere uste dugu euskal hezkuntza-sistemaren kalitatean aurre egiteko premia dagoela, eta, hori lortzeko, sustatu behar direla zuzentasuna, gizarte-kohesioa, balioen hezkuntza, aniztasunarekiko errespetua eta pentsamendu- eta sinesmen-askatasuna, baita giza-eskubideak eta aniztasunaren defentsa ere. Gure helburua da Euskadiko eskola-porrota % 8koa baino txikiagoa izatea.*
- 4. Euskara orain dela gutxi imajinaezinak ziren mailetaraino hedatu da, eta, hedadura horretan eskola faktore nagusia izan da, eta jarraitzen du izaten. Zentzu horretan, uste dugu eskolan euskararen eta gaztelaniaren erabilera eta ezagutza finkatzen jarraitzea posiblea eta bateragarria dela hezkuntza-sistema sistema hirueledun baterantz mailaka bilakatzearekin, non euskara ardatz nagusia izanik, hobekuntza eta aurrerapen nabarmenak egingo baitira ingelesaren prestakuntzan, sare publikoaren eta itunpeko sarearen arteko oreka bilatuz.*
- 5. Helburu horrekin, XXI. mendeko euskal herritarrei egokitutako hezkuntza-eredu integrala sustatu nahi dugu. Eredu horretan, kultura zientifikoa eta humanitateak konbinatuko dira, bizitza osorako ikaskuntzarekin osatuta, eta errealitatearen ikuspegi kritikoa eta eraldatzailea emango zaie ikasleei. Eredu hori adostutako Hezkuntza Lege berri integratzaile batean oinarrituko da, eta etengabe aldatzen ari den gizarte baten eskaerari eta premia berriei erantzungo die.*
- 6. Gizartearen eta produkzioaren etengabeko bilakaera eta eraldaketa horretan, bikaintasunezko Lanbide Heziketan nagusitasunari eustekak gure hezkuntza-sistemaren balio handienetarikoa bat izaten jarraituko du. Izan ere, Lanbide Heziketa enplegarritasuna handitzeko faktore eta garapen ekonomikoaren eragile izan dadila bermatu behar da.*
- 7. Era berean, unibertsitate-hezkuntzaren eta oinarritzko ikerkuntzaren aldeko estrategia indartu behar da. Hala, jarraituko dugu apustu irmoa egiten bikaintasunaren, espezializazioaren eta nazioartekotzearen alde, gure unibertsitate-hezkuntzaren eta politika zientifikoaren arrakasta lortzeko funtsezkoak direlako.*

8. *Horri dagokionez, adierazi behar dugu euskal politika zientifikoa garatzeko konpromisoa dugula. Horretarako, oinarrizko ikerkuntza finantzatuko dugu unibertsitateen, ikerkuntza-taldeen eta bikaintasun-zentroen bidez. Adimen ikertzailea antzematean, hari eustean eta prestatzean oinarrituko da politika hori.*

KONPROMISOAK***Hezkuntza, gizartearen eta pertsonen aurrerapen-faktore nagusia.*****90. konpromisoa: Hezkuntza Ituna bultzatu, Hezkuntzaren Euskal Lege berri bat sortzeko**

- | | |
|------------|---|
| 1. EKIMENA | Hezkuntza-ituna lortu, hezkuntza-eragile guztien arteko gogoeta bateratua bilatuz euskal hezkuntza-sistema osatzen duten kontuen inguruan, eta guztien arteko akordioak eta adostasunak lortze aldera, geure hezkuntza-sistema egituratzeko eta indartzeko betiere. Itun horrek Eskola Publikoaren funtsezko eginkizuna eta haren izaera laikoa aitortuko ditu, hezkuntza-sistema osoa finantzatzeko oinarri arautzaileak ezarriko ditu, eta haren berrikuntza teknologikoa garatzeko aldaketa materialak eta metodologikoak prestatuko ditu. |
| 2. EKIMENA | Hezkuntzaren Euskal Legearen proiektu berri bat onartu, zeina, lortutako itunean oinarritua, euskal hezkuntzaren egonkortasuna eta kalitatea egituratu eta indartuko baititu, hurrengo hamarkadetan bikaintasunerantz aurrera eginez. |
| 3. EKIMENA | Egitura arinagoak eta gertuagoak bultzatu, Hezkuntza Administrazio berritzailea optimizatu ahal izateko. |

91. konpromisoa: Eskola inklusiboaren, ekitatiboaren eta berritzailearen alde egin, bikaintasunerantz aurrera egiteko.

- | | |
|------------|--|
| 1. EKIMENA | Hezkuntza-kalitatea eta gizarte-berdintasuna integratzen dituzten politikak bultzatu. |
| 2. EKIMENA | Euskal Hezkuntzako Eredu Pedagogikoa garatu. |
| 3. EKIMENA | Bokazio zientifikoak eta bokazio artistikoak bultzatu. |
| 4. EKIMENA | Ebaluazio-kultura eta emaitzen hobekuntza bultzatu, ebaluazioen hezkuntza-sistemaren ardatz gisa. Horretarako, irakurmena eta gaitasun matematiko eta zientifikoa hobetzeko programak sustatuko ditugu, PISA errendimenduko maila baxuenetan dauden ikasleen kopurua murrizteko eta maila altuenetan daudenen ehunekoa handitzeko. |

5. EKIMENA Tratamendu espezifikoa eskaini ikasteko zailtasun handiagoak dituzten ikasleei, eta programa espezifikoak garatu gaitasun handiak dituzten ikasleei behar bezalako arreta emateko.

92. konpromisoa: Oreaka, gizarte-kohesio, kulturartekotasun eta bizikidetza handiagoa lortu gure ikastetxeetan.

1. EKIMENA Oreaka, gizarte-kohesio, kulturartekotasun eta bizikidetza handiagoa lortu gure ikastetxeetan. Horretarako, eskolaratzeko irizpide bateratu berriak aplikatuko ditugu, bizikidetza eta kohesio soziala sustatzeko, eskolaratze inklusiboa baliatuta, hau da, ikasleen aniztasuna kontuan hartuz (jatorria, etnia, premia bereziak...) eta ikasle immigranteak sare publikoan zein pribatuan modu orekatuan sartu ahal izateko.
2. EKIMENA Hezkidetzarako eta Hezkuntza Sistemaren Genero Biontzaren Prebentziorako Plan Zuzentzailea (2017-2020) garatu.
3. EKIMENA Balioen oinarritako heziketa, inklusiboa, eta aniztasuna errespetatzen duena bultzatu, pertsonen garapen integrala lortzen laguntzeko.

93. konpromisoa: Eleaniztasuna bultzatu eskolan.

1. EKIMENA Elebitasuna bultzatu hezkuntza eleanitzaren barruan, zona bakoitzaren errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta.
2. EKIMENA Irakasleak hizkuntzetan egunean jartzea bultzatu, bai eta hizkuntzen didaktikaren gaineko prestakuntzan ere, batez ere hizkuntzen tratamendu integratuarekin eta integralarekin lotuta, eta irakasleen Hizkuntza Prestakuntzarako eta Metodologiarako Plana sustatuz.
3. EKIMENA Ingelesaren prestakuntza zabaltzea bultzatu. Planteatzen dugu, horretarako, haien proiektu eleaniztuna dela-eta aukera ematen duten zenbait ikastetxetan, Lehen Hezkuntzako 4. mailatik aurrera ikasgai bat, gutxienez, ingelesez irakasten hastea, eta prestakuntza horrek aurrera egitea kurtso bat urtero. Orobat, neurri espezifikoak bultzatuko ditugu ingelesaren prestakuntzari dagokionez ikastetxe publikoen sarearen eta itunpeko ikastetxeen sarearen artean dagoen aldea zuzentzeko.
4. EKIMENA Derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehenengo zikloan bigarren kanpoko hizkuntzaren ikaskuntza bultzatu.

94. konpromisoa: Hezkuntza-sisteman sartzean berdintasuna bermatu.

1. EKIMENA Hezkuntza-sistemak oztopo sozioekonomikoak gainditzeko laguntzea eta kohesioa bermatzea bultzatu. Horretarako, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako beken programa indartuko dugu, bai eta familia eta lana bateratzen laguntzeko neurriak ere, ezarritako sistemaren bidez eta haur-eskoletan matrikulatzako hobariak emanez familien errenten arabera.

95. konpromisoa: Irakasleen eginkizuna sustatu, Hezkuntzaren hobekuntzaren eta aldaketaren eragile nagusiak diren aldetik.

1. EKIMENA Komunitate hezitzailearen prestakuntza bultzatu, zenbait ekimen baliatuta. Hala, berdin arteko ikaskuntza sustatuko dugu (“Partekatuz Ikasi”), orain arte izandako esperientzia arrakastatsuak errepikatzen eta eskolen arteko lankidetzako eta trukeko sareetan egiten den lana areagotzeko, eta, halaber, irakasleak prestatzeko eredu berri bat ezarriko dugu, Europako testuinguruaren barruan, Erasmus + “A new way for new talents in teaching” Europako proiektua abiapuntu hartuta.
2. EKIMENA Irakasleen gaitasunen mapa definitu, irakasleen praktika hobetzeko aurrera egiteko ibilbidearen barruan.
3. EKIMENA Irakasleen egonkortasunaren alde egin, urtero enpleguko eskaintza publikoen deialdiak eginez.
4. EKIMENA Zuzendaritza-taldearen lidergoia, egonkortasuna eta jarraitutasuna sustatu, eta ikastetxe autonomian irmoki aurrera egin.
5. EKIMENA Irakasle-lanbideak gizartean duen prestigioa sustatu. Horretarako, gizartea sentsibilizatzeko kanpainak garatuko ditugu, irakasleen lanbidearen prestigio soziala hobetzeko, hezkuntza-komunitatearen sektore desberdinen lankidetzarekin.

96. konpromisoa: Hezkuntza-azpiegiturak sortu, berritu eta egokitu.

1. EKIMENA Hezkuntza-azpiegitura berriez hornitu, eta daudenak handitu, bai lehenengo mailako zein bigarren mailako irakaskuntzetan, baita Lanbide Heziketan ere, eta Azpiegiturak Hobetzeko Planaren barruan.
2. EKIMENA Azpiegiturarako sarbidea hobetu, Hezkuntza-sistemaren kalitatean aurrera egitea ekarriko duenez.
3. EKIMENA Udalekin lankidetzan aritzeko mekanismoak indartu eta erakundearen arteko lankidetzako beste tresna batzuetan aurrera egin, dauden premiak antzemateko eta baliabideak optimizatzeko.

97. konpromisoa: Irakaskuntzaren modernizazio teknologikoa bultzatu.

1. EKIMENA Irakaskuntzaren eraldaketa teknologikoa eta pedagogikoa bultzatu. Horretarako, material didaktikoak, heziketa-eduki inprimatuak eta digital irekiak (REA) sortu eta zabalduko ditugu, batez ere euskaraz. Heziberri Planarekin (2020) koherenteak izango dira.
2. EKIMENA Ikastetxeen sare bidezko ikaskuntzako komunitate birtual bat sortzen jarraitu.
3. EKIMENA Azpiegiturak modernizatu, baliabide digitalak gehiago eta hobeto aprobetxatzera zuzendutako komunikazio bizkorrak eta seguruak errazteko, eta, halaber, sare bidezko ikastetxeak bultzatu.

Lidergoa Lanbide Heziketan**98. konpromisoa: Euskadik Bikaintasunezko Lanbide Heziketan duen lidergoari eutsi. Euskal Lanbide Heziketaren Legea.**

1. EKIMENA Lanbide Heziketaren eremuan, Kualifikazioen eta Espezializazioen Euskal Esparrua garatu. Ereku horren barruan, espezializatzeko programa berriak diseinatzeari ekingo diegu, garatzeko bidean dauden enpresen eta jardueren premia berrien arabera, bereziki landuz Euskadiko Espezializazio Adimentsuaren Estrategian (RIS 3) definitutako eremuak.
2. EKIMENA Prestakuntza-zikloetan ikuspegi eta metodologia berriak sartu, ikasleen gaitasunak hedatzeko eta hobetzeko. Era berean, prestakuntza-eskaintza malguago gehiago eskainiko dugu, eta ikaskuntza erdipresentziala eta urrutiko ikaskuntza indartuko ditugu online prestakuntzaren bidez.
3. EKIMENA Ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa duala bultzatu.
4. EKIMENA Euskal Lanbide Heziketaren Legearen proiektua onartu, euskal gizartean enpresek eskatutako premia berrietara egokitzeko.
5. EKIMENA Bizitza osoan zehar ikasteko (urriaren 10ko 1/2013) Legea garatu, helduen etengabeko heziketa bultzatzeko.

99. konpromisoa: Berrikuntza Aplikatua eta Ekintzailtza babestu, Lanbide Heziketako ikastetxeetan.

1. EKIMENA Lanbide-heziketako ikastetxeetan, berrikuntzaren kultura bultzatu. Horretarako, ikastetxe horietan enpresa txiki eta ertainei berrikuntza aplikaturako ematen zaien laguntza indartu eta bultzatuko dugu, bai produktuei zein prozesu produktiboei dagokienez.
2. EKIMENA Berrikuntza-arloan irakasleen prestakuntza indartu.
3. EKIMENA Lanbide Heziketako ikastetxeetan, berrikuntzaren kultura bultzatu.

100. konpromisoa: Lanbide Heziketako euskal ereduaren nazioartekotzea bultzatzen jarraitu.

1. EKIMENA Lanbide Heziketako Euskal Campusa bultzatu.
2. EKIMENA Atzerrian egoitzak dituzten euskal enpresei lagundu.

101. konpromisoa: Lanbide Heziketako V. Euskal Plana egin.

1. EKIMENA Lanbide Heziketako V. Euskal Plana egin. Planak gai hauek guztiak jasoko ditu: laugarren iraultza industrial, sistema adimentsuak, teknologia aurreratuak eta pertsonak ingurune konplexu horietarako gaitzeko eta kualifikatzeko premia berriak.
2. EKIMENA Lanbide Heziketako ikastetxe integratuak, enpresarekiko harremanak eta prestakuntza duala, berrikuntza teknologiko aplikatua eta ekintzailtza bultzatzen jarraitu.
3. EKIMENA Lanbide Heziketa eraldatu, beste eredu bat lortze aldera, non planteatzen diren premia berriei erantzungo baitzaie, teknologia aurreratuetan eta ingurune konplexuetan oinarritutako enplegarritasunari eta lehiakortasunari ekiteko.
4. EKIMENA Errendimendu handiko Lanbide Heziketa diseinatu eta garatu.
5. EKIMENA TKNIKA eraldatu eta berregituratu, Lanbide Heziketari aplikatutako ikerketaren eta berrikuntzaren garapenean liderra den aldetik, bai teknologietan baita sektore aurreratuetan eta oso aurreratuetan ere.

102. konpromisoa: Euskarazko prestakuntza-zikloak ezartzen aurrera egin eta Lanbide Heziketan eleaniztasuna bultzatzen jarraitu.

1. EKIMENA 2020rako Lanbide Heziketako ikasleen % 50k ikasketak euskaraz egin ditzaten lortu.

2. EKIMENA Prestakuntza-ziklo hirueledunak ezartzen jarraitu, ingelesa lehenetsiz, eta, hala badagokio, frantsesa.

Bikaintasuna, espezializazioa eta nazioartekotzea unibertsitatean.

103. konpromisoa: Unibertsitate-mailako oinarrizko politika zientifikoa eta ikertzailea garatu eta talentua sustatu, bikaintasunaren bila.

1. EKIMENA Ikertzaileen karrera profesionalaren euskal eredia eta ikertzaileak unibertsitate sisteman eta euskal bikaintasun-zentroetan integratzea babesteko behar den arau-esparrua garatu.
2. EKIMENA Ikerbasquen lana sustatu, Euskadin bikaintasunezko adimen ikertzailea hartzeko, prestatzeko eta mantentzeko erakunde sustatzaile gisa.
3. EKIMENA Zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren garapena bultzatu unibertsitate-eremuan eta bikaintasunezko oinarrizko ikerketa-zentroetan, urtero handituz % 5 politika zientifikoari eta oinarrizko unibertsitate-ikerkuntzari zuzendutako baliabideak.

104. konpromisoa: Euskal unibertsitate-sistema garatzen jarraitu, emaitzetara bideratutako kudeaketaz eta inguru global berrira egokitzeko gaitasunaz, euskal gizartearen etorkizuneko erronkei erantzuteko.

1. EKIMENA Euskadiko Unibertsitate IV. Plana egin.
2. EKIMENA Euskal Unibertsitate Sistema bultzatzeko arau-eremua garatu, nazioarteko bikaintasuna lortzeko eta haren inpaktu soziala bultzatzeko.
3. EKIMENA Gizartearekin elkarreraginean eta gizarteak dituen erronkentzat irtenbideak emango dituen Euskal Unibertsitate Sistema bultzatu.
4. EKIMENA On-line prestakuntza irekia bultzatu.

105. konpromisoa: Euskal Unibertsitate Sistemaren nazioartekotzearen alde egin.

1. EKIMENA Euskal Unibertsitate Sistemari lotutako nazioarteko bikaintasunezko campusak sustatu.
2. EKIMENA Euskal unibertsitateetan eta bikaintasunezko ikerkuntza zentroetan diharduten langileen eta ikasleen nazioarteko mugikortasuna erraztu.
3. EKIMENA Nazioartean ere lankidetzaren areagotzea ahalbidetzen duten irakasteko ereduak eta prestakuntzaren eta ikerkuntzaren kalitatea ebaluatzeko ereduak bultzatu.
4. EKIMENA Nazioarteko lankidetzaren babestua Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten unibertsitateen artean, bai eta haien eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Euskal Sareko gainerako eragileen artean ere.

106. konpromisoa: Beken politika indartu ikertzaileen karreraren.

1. EKIMENA Unibertsitate-prestakuntzan eta ikerkuntza-karreraren beka- eta laguntza-programen alde egiten jarraitu.

107. konpromisoa: Unibertsitate-entresako programak sustatu.

1. EKIMENA Prestakuntza- eta jakintza-klusterrak sortzea bultzatu, Zientzia, Teknologia eta Ikerkuntzako 2020ko Euskal Planarekin bat etorrira.
2. EKIMENA Euskal Unibertsitate Sistemaren barruko unibertsitateen eta Euskadiko administrazio publikoen, enpresen eta bestelako eragile ekonomiko eta sozialen arteko harremanak bultzatu, prestakuntzan eta ezagupenaren transferentzian.
3. EKIMENA Ikasle-ohien kolektiboa lan-merkatuan sartzea bultzatu.

II.3.Ardatza: Bizikidetzarako giza eta kultur garapena

BIDE-ERAKUSLEAK

- 1. Kultura integratzailea eta irekia.- Ados gaude kultura sustatzeko helburuarekin, bizikidetzaren, adimena eta aberastasuna sortzeko eta pentsamendu kritikoa sustatzeko eragile bat den aldetik. Eremu horretan, politika kulturalak kultura- eta sormen-industrien garapena ere sustatu behar du, espezializazio adimenduko estrategia gisa, eta, betiere, haien dimentsio ekonomikoa, teknologikoa, kulturala eta soziala barne hartzen dituen ikuspegi batetik.*
- 3. Euskara eta hizkuntza-bizikidetzaren.- Euskara Euskadiko berezko hizkuntza da, ez da bakarra, baina guk bakarrik daukagu. Euskara Euskadikoa den beste hizkuntzarekin bizi da: gaztelaniarekin. Hizkuntzak ez dira baztertzailerik, baizik eta aniztasunaren, pluraltasunaren eta integrazioaren froga. Bien arteko bizikidetzaren hobetzeko behararekin ados gaude, berdintzaileagoa, integratzaileagoa eta orekatuagoa izan dadin, kohesio sozial handiagoari begira.*
- 4. EITB. Eredu anitza, objektiboa eta iraunkorra. Komunikabide publikoak euskal autogobernuaren funtsezko oinarrietariko bat dira. Funtsezko motorra dira komunikaziorako eta informazio erreala eta anitza emateko berezko espazio bat sortzeko, unibertso kulturala sortzeko eta gure gizartearekin lotutako entretenimenduko edukiak eskaintzeko. Gainera, EITB euskara normalizatzeko tresna da, eta euskal ikus - entzunezko sektorearen traktorea.*
- 5. Kirola, osasunaren eta integrazioaren sustatzaile. Kirola gizarte aurreratu baten adierazpenetako bat da, eta osasuna, integrazioa eta berdintasuna sustatzeko tresna gisa nabarmentzea da gure helburua. Euskal kirolariak babesteak geure gainditze-, borondate- eta ilusio-balioak sustatzea ere badakar. Euskal kirolak nazioartean Euskadiren eta bertako kulturaren irudi positiboa proiektatzen laguntzen du.*

KONPROMISOAK

Kultura integratzailea eta irekia.

108. konpromisoa: Kultura dinamizatzeko eta sustatzeko estrategia sustatu, 2020. urteari begira.

1. EKIMENA “Kultura 2020” Plana, hau da, Kulturaren Euskal Plana onartu, estrategia bakar batean sustapen-, kontserbazio-, ikerkuntza-, sorkuntza-, , produkzio-, merkaturatze- eta zabalkunde kulturalako politika publiko guztiak batzeko.
2. EKIMENA Mezenasgo eta mikromezenasgo kulturalako esparru berri bat sustatu.
3. EKIMENA Euskal produkzio kulturalaren kontsumoa eta irisgarritasun ekonomikoa pizteko neurriak bultzatu. Horretarako, prezio sozialen politika indartuko dugu, eta, aldi berean, Kultur Auzolanean strategiaren barruan foru-aldundiek abian jarritako kultura-bonoen inguruko politikak bultzatuko ditugu.

109. konpromisoa: Euskadiko sortzaileen sarearen alde egin, sortzaileei eta kultura-industriei lagunduz.

1. EKIMENA Kultura- eta berrikuntza-sorkuntza lagundu eta bultzatu.
2. EKIMENA Kultura-industrien garapena indartu.
3. EKIMENA Sormen-sarea profesionalizatzea bultzatu.
4. EKIMENA Kultura- eta sormen-industrien finantziazioa erraztu, inbertsio pribatua eta Mezenasgo Legetik ondorioztatzen diren aukerak erakartzea bultzatzeko, foru-aldundiekin lankidetzan. Orobat, foru-aldundiekin batera, finantza-itzulerako mekanismoak aztertuko ditugu, kultura-industriek BEZaren igoera bideratzea izan dezaten.
5. EKIMENA Sortzaileak eta kultura-industriak nazioartekotzen lagundu.
6. EKIMENA Hezkuntzatik sustatu sormen- eta kultura-garapena.
7. EKIMENA “Euskadi Sortzailea” Programa garatu. Sektore kulturalaren eta sortzailearen finantzazioa profesionalizazioa sustatzera bideratuko da, bai eta kultura digitala sustatzera, euskal sortzaileen nazioartekotzea babestera eta atzerrian Euskadiren irudia lurralde sortzaile gisa proiektatzera ere.

110. konpromisoa: Euskadiko kultura-produkzioaren ikusgarritasuna eta irisgarritasuna indartu

1. EKIMENA Euskal produkzio kulturala prestigiotsu bilakatu, eta ikustarazi.
2. EKIMENA Audientzien fidelizazioa eta publiko berriak sortzea bultzatu.

111. konpromisoa: Sormen-industrien sektorearen antolakuntza bultzatu.

1. EKIMENA Euskadiko kultura- eta sormen-industrien garapenaren nazioartekotze-estrategia areagotu.
2. EKIMENA Kultura- eta sormen-industrien arteko elkarrekintza antolatu eta areagotu.
3. EKIMENA Euskadiren sortzaile irudia nazioartekotu.

112. konpromisoa: Erreferentziazko azpiegiturretan egiten diren ekitaldien eginkizun eragilea eta nazioarteko hedadura finkatu.

1. EKIMENA Nazioarte-mailako kultura-azpiegiturarako eta ekitaldietarako diru-laguntza handitu.
2. EKIMENA Erreferentziazko proiektu estrategiko berriei ekin, kultura- eremuan, lurraldeen arteko oreka bereziki zainduz.
3. EKIMENA Erreferentziazko erakundeek eta ekitaldiek duten eginkizun eragilea indartu.
4. EKIMENA Kultura-erakundeek izaera egituratzailea izan dezaten indartu, eta haien aurrekontuen aldetik egonkorrak izan daitezen bermatu.

113. konpromisoa: Ondare kulturala babesteko politikak gehiago zabaldu, bai eta haien eragin soziala ere.

1. EKIMENA Euskadiko ondare kulturalaren babesaren eta baloratzearen ikuspegi integrala areagotu.
2. EKIMENA Kultur Ondarearen Euskal Legearen proiektua egin eta onartu, babesaren ikuspegi integrala areagotzeko eta euskal kultur ondarearen balioa azpimarratzeko.

3. EKIMENA Euskadiko Kudeaketa Dokumental Integralaren Legea egin eta onartu, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailarekin lankidetzan.
4. EKIMENA Euskadiko Liburutegien Sarea berritzea eta dinamizatzea sustatu.

114. konpromisoa: Euskal kulturaren espazio digitala indartu, kultur ondarearen politika publikoak berrituz, eta irisgarritasunean eta herritarren partaidetza aktiboan arreta jarrita.

1. EKIMENA Euskadiko Kultur Ondarea digitalizatzeko Plan Integrala definitu eta abian jarri.
2. EKIMENA Euskadiko Liburutegi Digital Nazionala definitu eta abian jarri.

115. konpromisoa: Gobernantza partekatua areagotu kultura-arloan.

1. EKIMENA Erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzak antolatu.
2. EKIMENA Sektoreko elkarte profesionalekiko eta eragileekiko lotura optimizatu.

Euskara eta hizkuntza-bizikidetzak.

116. konpromisoa: Euskararen gizarte-hazkundera finkatu, euskal hiztunen kopurua handituz eta haien hizkuntza-gaitasuna hobetuz.

1. EKIMENA Helduen euskalduntzea sustatu eta babestu.
2. EKIMENA Helduen euskalduntzea kudeatzeko sistema bakar bat bultzatu, HABEren koordinazioaren pean, zeinak euskararen irakaskuntza sustatzearekin lotutako kontu guztiak hartuko baitu kontuan.
3. EKIMENA Helduek B2 maila lortu arte euskara-ikaskuntza doakoa izateko prozesua amaitu. Ikasketa horiek doakoak izateko, aurreikusitako maila akademikoak gainditu beharko dira.
4. EKIMENA Tituluak lortzeko sistema hobetu, euskaraz hitz egiten duten pertsonen kopurua handitzeko eta pertsona horiek ahalduntzeko.

117. konpromisoa: Aisialdian eta formalak ez diren eremu funtzioaletan zabaldu euskararen erabilpena.

1. EKIMENA Euskararen erabilpena aisialdian sustatu.
2. EKIMENA Euskararen Agenda Estrategikoa (2017-2020) bultzatu.
3. EKIMENA Interneten eta tresna digitaletan euskarazko edukiak sortzea eta sartzera bultzatu, unibertsitateekin, eta hezkuntza-, kultura-, eta aisialdi-arloko edukiak sortzen dituzten erakundeekin eta pertsonekin lankidetzan.
4. EKIMENA Komunikabideetan eta ekintza kulturaletan euskararen erabilpena sustatu, eta, aldi berean, haren erakargarritasuna eta prestigio soziala indartu.

118. konpromisoa: Eraginkortasunez egin aurrera, herritarren hizkuntza-eskubideak eremu publikoan eta pribatuan gauzatze aldera.

1. EKIMENA Herritarrek hizkuntza-eskubideak baliatzeko orduan aurrera egin.
2. EKIMENA Nagusiki euskara erabiltzen duten eremu geografikoak indartu.
3. EKIMENA Zerbitzu publikoetan arreta elebiduna ematen jarraitu, eta Euskararen erabilera VI Plana (2028-2022) bultzatu Eusko Jaurlaritzan.
4. EKIMENA Euskararen corpusaren garapena areagotu eta haren adierazteko gaitasuna aberastu, gazteen eta hiztun berrien premiei erantzuteko.

119. konpromisoa: Euskararen hiru lurraldeen erakundeen arteko lankidetzaren antolatu eta indartu, eta euskararen nazioarteko aitormena bultzatu.

1. EKIMENA Nafarroako Gobernuaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren (EEP) arteko lankidetzaren indartu.
2. EKIMENA Euskararen eta hizkuntza-bizikidetzaren inguruan ahalik eta adostasun sozial eta politiko handiena lortu eta indartu.

120. konpromisoa: Euskal kulturaren eta euskararen nazioarteko proiektzioa sustatu, Etxepare Institutuaren bidez.

- | | |
|------------|---|
| 1. EKIMENA | txepare Institutuaren rola indartu, Euskadiren esanetara dagoen kutura-arloko diplomaziazko tresna gisa. |
| 2. EKIMENA | Kanpoan euskararen irakaskuntza sustatu, irakurlegoen bidez, euskararen eta euskal kulturaren katedren eta Euskara Munduan programaren bidez. |
| 3. EKIMENA | Euskadiko sektore kulturaletikiko koordinazioa bultzatu, haren presentzia nazioartean sustatze aldera. |

EITB. Eredu plurala, objektiboa eta jasangarria.

121. konpromisoa: EITB zerbitzu publikoa izatea bermatu eta bikaintasunezko kudeaketa sustatu.

- | | |
|------------|--|
| 1. EKIMENA | EITB zerbitzu publikoa izatea sustatu eta haren balioa azpimarratu, enterearen erreforma integralari ekiteko zabalduetako prozesuan lagunduz. |
| 2. EKIMENA | Bikaintasun-kudeaketako ereduia sustatu. |
| 3. EKIMENA | EITBren trakzio-izaera areagotu, euskal ikus-entzunezko sektorearekin, kulturarekin eta kirolarekin duen harremanean. Horretarako, kontratu-programaren bidez bermatuko dugu hura finantzatzeko sistema gardena, iraunkorra eta eraginkorra, zeinean kontratu hori betetzeko konpromisoak eta aldizka ebaluatzeko sistemak ezarriko baitira. |

Kirola, osasunaren eta integrazioaren sustatzaile.

122. konpromisoa: Euskal kirol-sistema kalitatezkoa finkatu.

- | | |
|------------|---|
| 1. EKIMENA | Eragile publikoekiko eta pribatuekiko lankidetzia sustatu, euskal kirol-sistemaren kalitatea hobetze aldera, bikoiztasunak saihestuz eta planifikazioa hobetuz. |
| 2. EKIMENA | Kirola arautzeko eta antolatzeko eremu juridikoa gaurkotu, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirolari buruzko (14/1998) Legea aldatuz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-lanbideetara iristeko eta haiek gauzatzeko lege bat onartzea bultzatu. |

123. konpromisoa: Kirola maila guztietan babestu eta kirola egitea sustatu, osasuna, integrazio soziala eta berdintasuna bultzatzeko.

1. EKIMENA Kiroleko dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legearen aldaketa bultzatu.
2. EKIMENA Hezkuntza-maila guztietan kalitatezko kirol-eredua bultzatu.
3. EKIMENA Euskal kirol-sisteman kirol egokitua sartzea babestu.
4. EKIMENA Kirol-federazioei eta errendimendu handiko kirolari ematen zaien laguntza hobetu.
5. EKIMENA Berariaz bultzatu emakumezkoen kirola.
6. EKIMENA Kirol-lanbideen Lege-proiektua egin eta onartu, kirol-klubetan zein eskola-kiroleko programetan sortzen diren lanpostuak eta lan-profilak arautzeko.

124. konpromisoa: Turismoa bultzatzen duten eta inguruan aberastasuna sortzen duten kirol ekitaldien antolakuntza babestu.

1. EKIMENA Kirola babestu haren balio tradizionalak defendatuz: berdintasuna, integrazioa, tolerantzia, elkartasuna, biolentziarik eza.
2. EKIMENA Nazioarteko kirol-ekitaldietan parte hartzen duten euskal kirolariei ematen zaien babesa handitu.
3. EKIMENA Euskal kirol autoktonoa bultzatu, haren alde ludikoa, lehiakorra eta kulturala sustatuz.
4. EKIMENA Euskadin nazioarteko kirol-ekitaldiak antolatzea sustatu, foru-aldundiekin eta udalekin lankidetzan.

II.4. Ardatza: Integraziorako eta berdintasunerako agenda soziala

BIDE-ERAKUSLEAK

1. Uste dugu gizarte-justizia eta kohesioa elkarrekin bizitzeko modu bat direla, baliabideak partekatzeko eta gizartean dauden desberdintasunak errespetatzeko. Ideia horrek eskatzen du arreta berezia jartzea inklusioa sustatzen duten politika publikoen garapenean, baita kalitatezko gizarte zerbitzu irisgarriak bermatzea ere. Printzipio horien arabera, gure helburua da Euskadiko txirotasun-tasa % 20 murriztea.
6. Euskadik, Europako gizartearen gehiengoak bezala, izaera sozial eta demografikoko politikak garatzeko erronka dauka, gizartearen zahartze mailakatuari eta jaiotza-tasa sustatzeko beharrari aurre egiteko. Horri dagokionez, gizarte politiken funtsezko bi oinarri ditugu, batetik, adineko pertsonen zuzendutako arreta, bereziki mendekotasun-egoeran daudenei, eta, bestetik, familiak eta haurrak babesteko politikak.
7. Aitortzen dugu familiek duten garrantzia, gizarte-harremanen eta hezkuntza sozial, afektibo eta komunitarioaren erdiguneak diren aldetik. Hortaz, familia ardurak dituzten eta familia bat eratu nahi duten pertsonen beren bizitza proiektua baldintza onenetan garatu ahal izatea sustatzen duten politiken alde egingo dugu, hori eragotzi dezaketen zailtasun ekonomikoak edo lan zailtasunak gainditzeko lan eginez. Era berean, onartzen dugu familia-ardurak familiako kide guztien artean partekatu behar direla.
8. Ados gaude beharrezkoa dela etxebizitza bat eskuratu ezin duten pertsonen etxebizitza duin bat lortzea errazten duen etxebizitza-politika bat sustatzea, etxebizitzarako eskubide subjektiboari erantzunez eta alokairuko etxebizitzak eskuratzea lehenetsiz.
9. Berdintasunari esker posible da emakumeek eta gizonek beren gaitasun guztiak garatzea, eta erabakiak genero-estereotipoek ezarritako mugarik gabe hartzea. Berdintasun-politika publikoak helburu hauek lortzera bideratu behar dira: gizonen eta emakumeen arteko berdintasun erreala bermatzera, genero-indarkeria deuseztatzea, lan- eta soldata-berdintasuna bermatzera, lan- eta familia bizitza bateragarriak egitera eta bi arlo horietan erantzunkidetasuna sustatzera.
10. Nazio Batuetako Batzar Nagusiak ezarritako Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendatik eratorritako konpromisoa onartzen dugu. Esparru horretan, garapenerako lankidetzako euskal politika finkatzeko konpromisoa hartzen dugu, euskal gizarteak munduan txirotasuna jasaten duten eta aukerarik ez duten pertsonekin duen konpromisoaren adierazle gisa. "Politiken koherentziaren" alde egiten dugu, lankidetzaren aldeko zeharkako konpromiso gisa.
11. Aukeraz betetako etorkizuna gazteentzat. Agintzen dugu gazteei emantzipatzen lagunduko diegula, eta, horretarako, prestakuntza, enplegua eta etxea eskuratzeko aukerak erraztuko

dizkiegula. Gazteak aintzat hartuz eta errespetatuz, haiekin bat egingo dugu bizi-proiektua independentea garatu dezaten, haien lehenengo lan-aukera eta etxebizitza eskura dezaten erraztuz..

KONPROMISOAK

Aukerez betetako etorkizuna gazteentzat.

125. konpromisoa: IV Gazte Plana onartu (Gazteplana 2020)

1. EKIMENA IV. Gazte Plana- Gazteplana 2020 bultzatu. Bertan, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiak, udalek eta zenbait eragile sozialek parte hartzen dute euskal gazteen premia nagusiei erantzuna emateko gai hauek aintzat hartuta: laneratzea, etxebizitza eskuratzea, balioetan hezteak, osasuna, ekintza soziala, aisialdia, kultura, mugikortasuna eta partaidetza.

Kohesioa eta elkartasun soziala, bizikidetzaren-eredu gisa.

126. konpromisoa: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta finkatu.

1. EKIMENA Krisi ekonomikoak eragindako txirotasun-egoera berriei erantzun, bizikidetzaren unitatearen eta haren kide guztien izaera berrikusiz, pertsona horiek guztiak hobeto babesteko eta bizi duten gizarte- bazterketa arazo kroniko bihurtzea saihesteko.
2. EKIMENA Erakundeen arteko Batzorde Tekniko bat eratu, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari atxikitako alderdi guztiak optimizatzeko eta gizarte-kohesioaren tresna gisa finkatzeko.
3. EKIMENA Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta tramitzeko prozesuak sinplifikatu eta normalizatu, Lanbideren bulego guztietan lana homogeneizatzeko eta optimizatzeko, eta barneko antolamendua hobetzeko, prestazioaren kalitatea kudeatzeko sistema baten barruan, eta ISO 9001 kalitate-ziurtagiriak lortzeko asmoz.
4. EKIMENA Gizarte-laguntzen eraginkortasuna hobetu, gizarteratzea erraztuz eta bazterketa kroniko bihurtzea saihestuz. Horretarako, prestakuntza-programak eta lan-eskaintzak sustatuko ditugu aktiboak izan daitezkeen pertsonentzat, arreta berezia jarriz 3 urtez baino gehiagoz baztertuta egon diren eta aktiboak izan daitezkeen pertsonengan, pertsona horiek lehentasunez lan-merkatuara sartzea bultzatzeko asmoz.

5. EKIMENA Gizarte-laguntzen erabilera egokia bermatu gehien behar dituzten pertsonengana heltzeko. Horretarako, laguntza-programak fiskalizatuko ditugu, erakundeen arteko lankidetzeta eta datuen arteko konexioa bultzatuz eta oraingo ikuskapen- eta kontrol-mekanismoak indartuz, egon daitezkeen erabilera desegokiak eta abusuak saihesteko.
6. EKIMENA Eusko Legebiltzarrari Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko proposamen integrala aurkeztu, errenta hori jasangarria eta eraginkorra izan dadin, muga-mugako egoerak pairatzen dituztenen premiei erantzuten jarraitzeko eta egoera hori kroniko bihurtzea saihesteko.

127. konpromisoa: Inklusio Plana (2017/2021) egin eta abian jarri.

1. EKIMENA Inklusio Plana (2017/2021) egin eta abian jarri.

128. konpromisoa: Gizarte-prestazioen eta politiken kudeaketa osoa aldarrikatu.

1. EKIMENA Estatuak kudeatzen dituen kontribuziozkoak ez diren prestazio, subsidio eta pentsio guztien kudeaketa eta eskumena aldarrikatu, diru-sarrerak bermatzeko politika integral eta eraginkor bakar bat diseinatzeko autonomia erkidego osoan, zeinak laguntzak eta prestazioak sinplifikatuko baititu.
2. EKIMENA Hobarien sistemaren ebaluazioa, segimendua eta kontrola egin ahal izateko behar beste informazio emateko eskatu Estatuko gobernari, modu horretan, enpleguko politika aktiboen kalitatea eta efizientzia sustatu ahal izateko.

129. konpromisoa: Gizarte-zerbitzuen Sistema finkatu eta indartu.

1. EKIMENA Adostasun handiko gizarte-ituna bultzatu, Euskal Gizarte Sistemaren finantzazioa finkatzeko eta haren jasangarritasuna bermatzeko.
2. EKIMENA Gizarte Zerbitzuen Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroa eta Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa (2016-2019) garatu.
3. EKIMENA Gizarte Zerbitzuen Erakundeen arteko Organoa garatu, zeinaren bidez, Eusko Jaurlaritzak koordinazio-eskumenak gauzatzen baititu gainerako euskal administrazio publikoekin.
4. EKIMENA Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemaren jasangarritasuna bermatu, behar diren baliabidez hornituta, lankidetzeta publiko eta pribatuko eredu mistoan aurrera eginez.

5. EKIMENA Gizarte-zerbitzuak ematen diharduten langileen gaitasun profesionala hobetu, bereziki mendekotasunaren eta desgaitasunaren kontingentziei dagokienez, eta egoitzetan zein etxeetan ematen den arretan.
6. EKIMENA Ezagutza eta berrikuntza kudeatzeko I+G+b-ren arloko jarduerak sustatu, atentzio- eta gizarte-zerbitzuak emateko ereduetan.
7. EKIMENA Ebaluazioa eta etengabeko hobekuntzako praktika onak bultzatu gizarte-zerbitzuen eremuan.

130. konpromisoa: Gizarte-larrialdiko laguntzak bermatu.

1. EKIMENA Gizarte-larrialdiko laguntzak (GLL) hobeto banatu, laguntzaren egokitasunari buruzko balorazio profesionala aintzat hartuta, eta tokiko erakundeek eta Eusko Jaurlaritzak dirua eta informazioa elkarri helarazteko duten prozedura arrazionalizatuz.
2. EKIMENA Gizarte-larrialdiko laguntzen aurrekontu-zuzkidura handitu. Horrela, gobernua eta inplikaturako gainerako erakundeek egokiro erantzun ahalko diete premia handieneko gizarte-larrialdiko egoera pertsonalei eta familia egoerei.

131. konpromisoa: Pobrezia energetikoari aurre egin.

1. EKIMENA Sustatu arau espezifiko bat pobrezia energetikoari aurre egiteko, egoera hauskorrean edo sozialki baztertuta geratzeko arriskuan dauden familien berehalako premiak leuntzeko.
2. EKIMENA Gizarte-larrialdiko laguntzen banaketa hobetu, pobrezia energetikoa pobrezia-aren forma berritatzeko aldera.

132. konpromisoa: Etxegabeak artatu.

1. EKIMENA Etxegabeen Euskal Estrategia (2017-2020) egin, etxegabeei etxebizitza independentea izateko eskubidea bermatzeko, bai eta autonomia, bizi-kalitatea eta inklusio soziala lortzeko behar dituzten laguntzak jasotzeko eskubidea ere.

133. konpromisoa: Gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen arteko koordinazioa bultzatu.

1. EKIMENA Koordinazioa eta lankidetzaren sustatu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuen eta Gizarte-zerbitzuen Euskal Sistemaren artean, enplegarritasun zaila duten

pertsoneri arreta emateko jarduketak-protokoloak eratuz. Era berean, laneratzeko hitzarmenak indartuko dira.

134. konpromisoa: Osasun-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen arteko lankidetzak estua finkatu.

1. EKIMENA Eredu integral baten barruan egituratu baliabide soziosanitarioak, finantziario-eredu integratua eta koordinatua ezarriz, gizarte-zerbitzuen zorroa eta prestazio soziosanitarioak kontuan hartuta.
2. EKIMENA Arreta soziosanitarioko ekipoak sendotu eta bultzatu, historia soziosanitarioa zabalduz eragile sanitarioen eta sozialen arteko informazio-oinarri gisa, informazio hori erkidea eta elkarrerangigarria izango delarik.
3. EKIMENA Adindunen egoitzen informazio- eta kudeaketa-sistema garatu, historia elektronikako eta preskripzio farmazeutikako tresnak ezarriz.
4. EKIMENA Laguntza etikoko batzordeen komite koordinatzailearen lana bultzatu, kolektibo hauskorrengana zuzendutako politikak formulatze aldera.
5. EKIMENA *BetiON* telelaguntza-zerbitzu publikoaren mailakako garapena sustatu.

135. konpromisoa: Zahartze aktiboa eta belaunaldien arteko elkartasuna.

1. EKIMENA Zahartzeari, gaixotasun kronikoei eta mendekotasunari arreta integrala emateko politika berritzaileak sustatu.
2. EKIMENA Adineko pertsonen komunitateko edo auzoko jardueretan lankidetzan aritzea eta parte hartzea erraztu, eta herritar guztiei zuzendutako gizarte-etxeetan eta kultur etxeetan sartzeko sustatuz, landa-eremuetan batez ere.
3. EKIMENA Zahartze Aktiboko Euskal Estrategia (2015-2020) garatu, bereziki "Euskadi Lagunkoia Sustarrietatik" izenekoari buruzko ekimenak, udalerrit lagunkoien sarea ehuntzen dutenak, eta "Gobernantza +65", gobernantza erkidea bultzatzen duena.
4. EKIMENA Adindunekin zerikusia duten estereotipo negatiboen kontra gizarte sentikortzea bultzatu.

136. konpromisoa: Zaintzaileak babestu.

1. EKIMENA Telelaguntzako Plan bat sustatu, *BetiON* Telelaguntzako Zerbitzu Publikoaren eremuaren barruan, zaintzaileak babesteko, haien bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko, mendekotasunak dituzten pertsonen zainketak hobetzeko, eta sistema ekonomikoki jasangarriago bihurtzeko.
2. EKIMENA *Jakiten* telefono bidezko zerbitzua bultzatu, zaintzaileei orientazioa eta entzuketa aktiboa eskaintzeko.
3. EKIMENA Zaintzaileei laguntzeko estrategia bat abian jarri, laguntzako sare komunitarioak indartzea kontuan hartuta.

137. konpromisoa: Boluntarioen lana bultzatu.

1. EKIMENA Boluntariotzako Euskal Estrategia (2017-2020) egin, partaidetza altruista, antolatua eta solidarioak betetzen duen ezinbesteko rol sozialaren balioa azpimarratzeko. Boluntariotzako Euskal Kontseiluarekiko lankidetzan estuan landuko dugu estrategia hori.

138. konpromisoa: Hirugarren Sektore Soziala babestu.

1. EKIMENA Elkarrizketa Zibilerako Mahaia finkatu, eta estutu harremana Euskadiko hirugarren sektore sozialeko sareak biltzen dituen elkartarekin, alegia, *Sareen Sarearekin*.
2. EKIMENA Hirugarren Sektorea Sustatzeko Estrategia (2017-2020) egin, euskal gizartean, ehun soziala, partaidetza soziala eta elkartasun antolatua indartzen laguntzeko.
3. EKIMENA Hirugarren Sektore Sozialaren Behatokia sortu. Behatoki hori dagoeneko dauden beste behatokiekin koordinatuko da (gizarte-zerbitzuena, familiarena, haurrena eta immigrazioarena), eta informazioa eta jakintza biltzen, sistematizatzen, gaurkotzen eta sortzen jardungo du, bai eta zabaltzen ere, batez ere hirugarren sektore sozialarekin zerikusia duten esferetan.

Familiak eta haurrak babestu.

139. konpromisoa: Familien eta haurren aldeko ituna.

1. EKIMENA Erakundeen arteko estrategia sustatu, euskal gizartea demografikoki aldatzeko eta gaztetzeko, familiak eta haurtzarora babesteko politiken bidez.

2. EKIMENA Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak % 50 handitu, bi urtetik hiru urtera igoz bigarren semearengatik edo alabarengatik ematen diren diru-laguntzak.
3. EKIMENA Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko (otsailaren 18ko 3/2005) Legea egokitu haur eta nerabeen babes-sistema aldatzekoak diren bi lege hauei: uztailaren 28ko 26/2015 Legeari uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoari.
4. EKIMENA Diru-laguntzen, pizgarri fiskalen eta neurri eraginkorren sistema hobetu erantzunkidetasunari eta familia eta lana bateragarriak egiteari dagokionez, hala lanmunduan, nola zainketen eta etxebizitzaren eremuan.
5. EKIMENA Erantzunkidetasunaren aldeko politika publiko eraginkorrak aplikatu, sentsibilizazio- eta prestakuntza-neurrien bidez, etxeko lanak eta zaintzeko lanak gizonen eta emakumeen artean banatzea ahalbidetzeko. Orobat, lana eta familia bateragarriak egiteko eta adingabeak zaintzeko bestelako laguntza-sistemak aztertu.
6. EKIMENA Haurren zainketa eta haur-eskolen zerbitzuak hobetu Hezkuntza Sailarekin lankidetzan, zerbitzu horiek aiten eta amen lan- ordutegietara egokitzeko, eta 2 urteko umeen eskolaratzeko demanda guztiari erantzunez.
7. EKIMENA Eskolaz kanpoko laguntza eta erkidego-aisialdiko programen hedapena sustatu, Hezkuntza Sailarekin lankidetzan.
8. EKIMENA Lana eta familia bateragarriak egiten laguntzen duten neurriak enpresen negozioz kolektiboan sartzeko sustatu, Lan eta Justizia Sailarekin lankidetzan.
9. EKIMENA Enpresei sariak emateko eta aitortpenak egiteko sistema bat aztertu, Lan eta Justizia Sailarekin lankidetzan, lan-ordutegiak malgutzeko planak susta ditzaten eta haien antolakuntza-ereduan telelana sar dezaten.

Aniztasuna eta integrazioa errespetatu.

140. konpromisoa: Gizarte-ituna immigrazioaren alde eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka.

1. EKIMENA Immigrazioari buruzko Itun Soziala bultzatu.
2. EKIMENA Immigrazioarako Euskal Estrategia gaurkotu, 2020. urteari begira.
3. EKIMENA Erakundeen barruko eta erakundeen arteko lankidetzaren antolatu, integrazioaren, bizikidetzaren eta aniztasunaren ildotik berdintasunaren alde egiten den lanean.

4. EKIMENA Immigranteei haien inklusio sozialeko ibilbideetan laguntzeko sistemak indartu.
5. EKIMENA mmigranteeek zerbitzu publikoak berdintasunez eskuratzeko behar diren neurriak bultzatu, osasun- eta gizarte-zerbitzuetara, etxebizitzetara, justiziara eta segurtasunera sarbide normalizatua eta ekitatiboa izan dezaten bermatuz.
6. EKIMENA Herri ijitoaren sustapena lagundu.
7. EKIMENA Aniztasun kulturala eta arrazismoa eta xenofobia prebenitzeko balio positiboak buruz sentikortzeko programak bultzatu.

141. konpromisoa: Aniztasun afektibo-sexualaren errespetua sustatzea.

1. EKIMENA Berdinu 2016-2020 lan-plana sustatu, joera sexualak eta genero identitatea dela-eta diskriminaziorik ez egoteko.
2. EKIMENA Era Berean (Tratu-berdintasuneko eta Diskriminaziorik gabeko Sarea) programaren lan-plana diseinatu, ezarri eta ebaluatu. Beste jardura batzuen artean, gorroto-delituekin edo diskriminazioarekin lotutako prozesuetan, lesbianeiei, gayeiei, transexualei eta bisexualei arreta eta aholkularitza emateaz gain, dibulgazio-materialak eta sentsibilizazio-kanpainak diseinatzea ere jasoko du bere baitan.
3. EKIMENA Transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko (ekainaren 28ko 14/2012) Legearen garapena amaitu.

Etxebizitza eta hiri-berrenoratzea

142. konpromisoa: Etxebizitzaren Legean aitortutako etxebizitza bat izateko eskubide subjektiboa garatu.

1. EKIMENA Etxebizitza duin eta egoki bat eskuratzeko bide egonkorra bermatu baliabide ekonomikorik ez duten pertsonen, edo, hala badagokio, etxebizitza hori eskuratzeko bermatzen duen prestazio ekonomiko bat aitortu, Eusko Legebiltzarrak 2016ko apirilean onetsitako moduan.
2. EKIMENA Etxebizitzaren (ekainaren 18ko 3/2015) Legea erregelamendu bidez garatu, garapen operatibo efektiboa lortze aldera.
3. EKIMENA Arian-arian erakunde publiko bakar batean etxebizitzaren gaineko eskumenak baliatzen lagundu.

4. EKIMENA Etxebizitza Plan Zuzentzailea (2017-2019) egin eta gauzatu.

143. konpromisoa: Alokairu-erregimena lehenetsi, baita gazteen emantzipazioa ere.

- 1. EKIMENA Alokairu sozialeko etxebizitza-parkea handitu, zenbait formularen bitartez, baina etxebizitza hutsen merkatua mugitzea lehenetsiz, Bizigune eta Asap programen bidez (merkatuan bitartekaritza egitekoak) .
- 2. EKIMENA Alokairurako etxebizitzen eraikuntza edota birgaikuntza finantzatzea ahalbidetzen duten sistema berriak bultzatu, eragile pribatuei bermeak eskainiz, baita lankidetzaren eredu berriak ere lurzoruen lagapenaren bidez.
- 3. EKIMENA Gazteak etxebizitza eskuratzea bultzatu, zuzkidura-bizitokien eta alokairuko etxebizitza babestuen bidez.

144. konpromisoa: Eraikita dagoen parkea birgaitzen lagundu.

- 1. EKIMENA Etxebizitzak birgaitzen laguntzeko 2017a eta 2020a bitarteko programa egin eta garatu, eraikinak behar bezala mantentzeko eta kontserbatzeko premiarekin, Europar Batasuneko Horizon 2020 programatik ondorioztatzen diren eraginkortasun energetikoko eta irisgarritasuneko baldintzak beteta.
- 2. EKIMENA Eraikinen Ikuskaritza Teknikoak egitea bultzatu, arau bidez garatuz eta ekintza pizgarriak eginez.
- 3. EKIMENA Euskadin, hiri-birgaitzeari, zaharberritzeari eta berrenoratzeari dagokienez, eragile publikoek eta pribatuek egiten dituzten jarduerak koordinatu, Europatik eutsitako eta orain dela gutxi indartutako ildoan, eta Etxebizitza arlotik erakarrirako FEDER egiturazko finantziarioko mekanismoak erabilia.

Berdintasuna

145. konpromisoa: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu, garapen jasangarria lortzeko funtsezko zutabea den aldetik.

- 1. EKIMENA Baliaok aldatzea bultzatu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko.
- 2. EKIMENA Hezkuntza-sisteman berdintasunaren sustapena bultzatu, Hezkuntza Sailarekin lankidetzan.

3. EKIMENA erdintasunerako gobernantza hobetu, genero-politikak bultzatzeko eta koordinatzeko mekanismoak indartuz.
4. EKIMENA Emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Plana (2018- 2021) egin eta ezarri.

146. konpromisoa: Lan-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatu.

1. EKIMENA Enpresetan, organizazioetan eta eragile sozialetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu, berdintasun- programen bidez, Euskadi genero-berdintasunari dagokionez Europako lehenengo lau herrialdeen artean kokatzea lortu arte.
2. EKIMENA Neurri ekonomikoak eta sozialak sustatu, ordainsariei dagokienez berdintasunean aurrera egiteko, enpresetan soldata- gardentasuna sustatzeko eta soldata-diskriminazioari aurre egiteko.
3. EKIMENA Bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lan-bizitza bateragarriak egitea bultzatu.

147. konpromisoa: Emakumeen kontrako biolentzia desagerrarazi.

1. EKIMENA Gaur egungo Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako (otsailaren 18ko 4/2005) Legeak Emakumeen aurkako biolentziari dagokionez jasotzen duen esparru juridikoa gaurkotu, eta, Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko lege proiektu bat egitea komeni den baloratu.
2. EKIMENA Emakumeen kontrako biolentzia desagerrarazteko gizarte osoari zuzendutako prebentzio- eta sentsibilizazio-jarduerak indartu, batez ere gazteei begira.
3. EKIMENA Neurri zehatzak ezarri emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei ordain ekonomikoa eta morala eta aitorten soziala emateko.
4. EKIMENA Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako arretaren efizientzia eta efikazia bultzatu, erakundeen arteko koordinazioaren bidez.
5. EKIMENA Emakumeen aurkako indarkeria goiz antzemateko planak ezarri, gaitz sozial hori aldeztu aurretik prebenitzeko.
6. EKIMENA Gizarteratze-laneratze programa espezifikokoak garatu, biktimek indarkeriarik gabeko bizitza askea hastea izan dezaten.

7. EKIMENA

Plan integral bat abiarazi, adingabekoen aurkako genero- indarkeria prebenitzeko eta haren kontra babesteko eta genero- indarkeriaren biktima adingabeko horiei eragindako kaltea konpontzeko.

II.5.Ardatza: Kalitatezko zerbitzu publikoak

BIDE-ERAKUSLEAK

- 1. Segurtasuna funtsezko zerbitzu publikoa da, kalitatezko, eraginkortasunezko, prebentziozko eta delitua jazartzeko printzipioetan oinarritu behar dena. Horri dagokionez, Ertzaintzaren, udaltzaingoaren eta Estatuko eta Europako segurtasun kidego eta indarren arteko koordinazio eta lankidetzaren mekanismoak bultzatzen dituen segurtasun-ereduaren alde gaude. Ertzaintzak Euskadiko polizia integralaren eginkizuna betetzea aldarrikatzen dugu, betiere Europako segurtasun-estrategiaren barruan, zeinak operazio- eta inteligentzia-mailan nazioarteko lankidetzaren handia eskatzen baitu.*
- 12. Sistema judizial modernoa, azkarra eta eraginkorra defendatzen dugu, askatasun publikoak eta herritarren eskubideak bermatzen dituen, eta batez ere euskal administrazioak diseinatuak. Gure helburua da, hain zuzen, justizia administrazioaren giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketa hobetzea, zerbitzu publiko hori kalitatezkoa eta berritzailea izateko, sistema demokratiko ororen funtsezko elementua den aldetik.*
- 13. Etorkizuna eraiki nahi dugu Justizia Administrazioa pertsonen zerbitzura jarri; horrela, herritarren irisgarritasuna eragozten duten oztopo guztiak baztertzeko konpromisoa hartzen dugu, baita eskubideak gauzatzeko berdintasuna eragozten dutenak ere, beti ere benetako babes judiziala bermatze aldera, bereziki talde ahulenen eta hauskorren kasuan.*

KONPROMISOAK***Segurtasuneko zerbitzu publiko efizientea eta gertukoa*****148. konpromisoa: Segurtasun-zerbitzuak eta Ertzaintza herritarrengana gerturatzen jarraitu.**

- | | |
|------------|---|
| 1. EKIMENA | Ertzaintzak ematen dituen asistentzia-zerbitzuen garrantziaren balioa azpimarratu eta balio hori gizarteratu. |
| 2. EKIMENA | Herritarrekiko arreta eta zuzeneko komunikazioa hobetu. |
| 3. EKIMENA | Euskal Segurtasun Sistemaren Informazio eta Telekomunikazio Sistemak modernizatzeko programan aurrera egin. |
| 4. EKIMENA | Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra (2020) onartu. |

149. konpromisoa: Ertzaintzaren prestakuntza eta egokitzapen profesionala bultzatu.

- | | |
|------------|---|
| 1. EKIMENA | Etengabeko prestakuntza-programak garatu, Ertzaintzako kideen ezagupen teknikoak eta juridikoak gaurkotzeko, segurtasun-arloko mehatxu berriei aurre egiteko. |
| 2. EKIMENA | Delitu espezifikoak ikuskatzen, ikertzen eta jazartzen diharduten Ertzaintzako unitateetara zuzendutako baliabideak hobetu. |
| 3. EKIMENA | Ertzaintzako plantillak behar duen belaunaldi-berritzea bermatu, eta karrera profesional horizontalaren proiektua garatu. |

150. konpromisoa: Beste polizia-kidego batzuekiko koordinazioa eta lankidetzaren indartzea.

- | | |
|------------|--|
| 1. EKIMENA | Euskadiko Segurtasun Sistema osatzen duten polizia-kidego guztiekin eta eragile guztiekin lankidetzan aritzeko eta koordinatzeko mekanismoak ezarri. |
| 2. EKIMENA | Beste polizia-kidego batzuekin informazioa trukatzeko eta datuak finkatzeko lanak egiten jarraitu. |
| 3. EKIMENA | Leialtasun instituzionalean abiatuta lan egin, Segurtasun Batzarrari bultzada politikoa emateko berriz ere. |

151. konpromisoa: Ertzaintza, polizia integrala eta eskusiboa Euskadin.

1. EKIMENA Autogobernua defendatu segurtasun-kontuetan.
2. EKIMENA Polizia-inteligentziaren gaineko metodologia definituan oinarritu polizia-eredua.
3. EKIMENA Euskal Poliziaren Legea aldatzeko lege-proiektua onartu, herritarren eskaerei eta gizartean planteatzen diren segurtasun-erronka berriei erantzuteko.

152. konpromisoa: Segurtasuna eta mugikortasuna hobetu gure errepideetan.

1. EKIMENA Bide-segurtasuneko eta mugikortasun seguru eta jasangarriko 2015-2020 bitarteko Plana ezarri, errepideetan 2020an 2010ean baino % 50 heriotza gutxiago gertatzea lortzeko, ildo horretan Europak hartutako konpromisoa gure eginda.
2. EKIMENA Bide-segurtasunaren aldeko kontzientziazio-programak sustatu eta trafikoaren kudeaketa hobetu bide nagusietan eta bigarren mailako errepideetan, informazio-sistema berriak erabiliz eta errepideen titularrak diren erakundeekin koordinatuz.
3. EKIMENA Bide-hezkuntza istripuak prebenitzeko tresna gisa eratu, hezkuntza-planen barruan.

153. konpromisoa: Larrialdiak prebenitzeko eta ohartarazteko sistema eta herritarren autobabesa indartu.

1. EKIMENA Itsas Salbamenduaren gaineko eskumen osoa transferitzeko erreklamatu, bai eta Meteorologiaren gainekoa ere.
2. EKIMENA Herritarrentzako ohartarazpenak egiteko prozedura pertsonalizatua gaitu, "112" zenbakiaren eta teknologia berrien bidez, modu horretan, ohartarazpen- eta alerta-sistema indartuz.
3. EKIMENA Gerta daitezkeen egoera arriskutsuei buruzko etengabeko informazio-sistema bat ezarri, autobabesa bermatu ahal izateko informazio erreal, arin eta osoaren bidez.
4. EKIMENA Larrialdiko kudeaketa koordinatua sustatu, ukitutako administrazioekin lankidetzak eta koordinazio- protokoloak ezarri.

154. konpromisoa: Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia, segurtasun publikoaren bermea.

- | | |
|------------|--|
| 1. EKIMENA | Segurtasun publikoko sisteman parte hartzen duten erakunde eta organismo guztiekiko lankidetzak eta erantzukizun partekatuko kultura bultzatzen duten prestakuntza-programak egin. |
| 2. EKIMENA | Hautaketa-, prestakuntza- eta segimendu-prozesuak hobetu, eta irakaskuntza-arloan teknologia berriak sartu. |
| 3. EKIMENA | Akademiaren barruko kudeaketa egokitu, segurtasun publikoko sistemaren premiei hobeto erantzuteko. |

Kalitatezko Justizia

155. konpromisoa: Sistema judicial modernoa, azkarra eta eraginkorra.

- | | |
|------------|---|
| 1. EKIMENA | Honelako Justizia-eredu baten alde egin: aukera-berdintasunean eta gatazka sozialaren prebentzioan oinarritua, arreta eta zerbitzu efikaza eta efizientea ematen duena, teknologia berri guztiak sartuz, eta benetako babes judiziala bermatzen duena. |
| 2. EKIMENA | Herritar guztiek Justiziarako bidea eskuratzea bermatu, eta, behar denean, doako Justiziarako bidea eskuratzea ziurtatu. |
| 3. EKIMENA | Bulego Judiziala behar beste giza baliabidez eta baliabide materialez hornitzearen alde egin, Justizia Administrazioaren eta herritarren interkonexio elektronikoaren gaikuntza sustatuz, bai eta prozedura judizialaren informatizazio integrala ere. Horretarako, Justizia Administrazio Elektronikoa bultzatzeko Planari ekingo diogu. |
| 4. EKIMENA | Epaitegiari, bereziki espezializatuei, eman beharreko laguntza ekonomikoa eta materiala bermatu. Orobat, behar diren neurriak hartuko ditugu plantilla judiziala eta ez judiziala egonkortzeko, Justizia Administrazioaren zerbitzuplean lan egiten duten langileen laneko osasuna eta segurtasuna bermatzeko lan egingo dugu, eta arian-arian berrituko dugu egoitza judizialen ekipamendua. |
| 5. EKIMENA | Justizia elebidunaren garapena bultzatu, euskal herritar guztien hizkuntza-eskubideen errespetuaren berme gisa, Justizia Administrazioaren Hizkuntza Normalizatzeko Plan Orokorraren (2011-2020) garapenaren bidez. |
| 6. EKIMENA | Epailen, fiskalen, letratuen eta Justizia Administrazioaren zerbitzuplean lan egiten duten langileen prestakuntzaren kalitatea indartu. |

7. EKIMENA Euskadiko sistema judizialaren auditoretza eta ebaluazio publikoa egiteko prozesu bat bultzatu, haren efizientzian, efikazian eta jasangarritasunean oinarritutako irizpideak eta parametroak erabilia.

156. konpromisoa: Hurbiltasunezko Justiziaren eta koordinazio judizialaren eredia indartu.

1. EKIMENA Bake-justizia babestu, arinago tratatzen diren konplexutasun gutxiko gatazkak konpontzeko.
2. EKIMENA Euskal Autonomia Erkidegoko justizia-sistemen eta Estatuan diharduten prozesu-kudeaketako gainerako sistemen arteko elkarreragingarritasuna ezarri.

157. konpromisoa: Genero-indarkeriaren biktimei zuzendutako arreta judiziala hobetu.

1. EKIMENA Elkarrizketa bateratu zuzena eta erraza ahalbidetu epaitegien, auzitegien eta fiskaltzaren eta Politika Sozialeko arloaren eta beste erakunde publiko batzuen artean, gizarte-larrialdiei berehalako erantzun eraginkorra emateko.
2. EKIMENA Letratuen asistentzia-zerbitzuak indartzen jarraitu, deklarazioak atzeratzea eta luzatzea saihesteko.
3. EKIMENA Behar diren aretoez hornitu, zentzuzko pribatutasuna eta erosotasuna ziurtatzeko.

158. konpromisoa: Adingabeentzako arreta judiziala garatu.

1. EKIMENA Behar adina plaza eskuragarri egotea sustatu, Zigor Legearekiko gatazkan sartu diren adingabeei judizialki ezarritako neurriei erantzuteko.
2. EKIMENA Kanpoko adituek arau-hausle adingabeentzako hezkuntza- zentroetako langile- eta funtzionamendu-sistemak aldizka ikuska ditzaten bultzatu.
3. EKIMENA Gazte Justiziaren V. Plana (2019-2020) bultzatu.

159. konpromisoa: Gatazkak ebazteko sistema alternatiboak sustatu.

1. EKIMENA Gatazka judizialak ebazteko sistema alternatiboen protokolo berri bat abiarazi, Biktimaren Estatututik eratorritako errekerimenduetara egokitutakoa.
2. EKIMENA Bitartekaritza behin betiko sustatu, gatazkak ebazteko modu gisa.

160. konpromisoa: Desagertutako pertsonen inguruneari lagundu.

1. EKIMENA Desagertutakoen eta haien senideen aldeko programa bat hasi, Segurtasun Sailarekin lankidetzan.

III. Oinarria: Bizikidetza eta giza eskubideak

Ardatzak:

III.1. Bizikidetza eta giza eskubideak

Indarkeriaren amaiera ordenatua.

Biktimekiko elkartasuna.

Memoria kritikoa.

Espetxe-politika.

Sortzen ari diren erronkak.

Aniztasunaren kudeaketa positiboa.

Bake-eta bizikidetza-kultura.

Elkarrizketa eta akordioa.

**Garapenerako lankidetza,
bizikidetza eta giza eskubideen
faktore gisa.**

III.1. Ardatza: Bizikidetza eta giza eskubideak

PREMISAK

- *Akordio hau izenpetzen dugun alderdi politikook adierazten dugu lankidetza prozesu bati hasiera ematea erabaki dugula, helburu hartuta bakea eta bizikidetzaren normalizazioa irmo sendotzea, eta, horretarako, ETArekin behin betiko amaiera gauzatzen ere laguntzea.*
- *Elkarrekin urrats erabakigarri bat emateko borondatea dugu biok, eta bat gatoz azken urteotan pluraltasunik handienaz lortu izan diren adostasunak abiapuntutzat hartzeko. Ikuspegi horretatik, geure egiten ditugu Eusko Legebiltzarrean 2012ko uztailaren 12an onartu ziren akordioak.*
- *Salatzen dugu ez dela zilegi indarkeria erabiltzea helburu politikoak lortzeko, eta berresten dugu Giza Eskubideak zehatz-mehatz errespetatzearekin dugun konpromisoa, ideologiaren edo kideatasun sentimenduen gainetik herritarren duintasuna bat bera dela ñabardurarik gabe onartzen, bai eta euskal gizartearen pluraltasuna defendatzen ere.*
- *Konpromisoa dugu bizikidetza egiatik, oroimenetik eta justiziatik eraikitzeko, eta hausnarketa plurala sustatuko dugu argi adieraziz ez dagoela ETArekin indarkeria, ez giza eskubideen beste edozein bortxaketa minimizatu, justifikatu edo legitimatzeko argudiorik, ez gatazka giro edo teoriarik, ez aurka jarritako bandoei buruzko tesirik, ez bestelako zeinuko urratzeen salaketarik, ez estatu arrazoirik, ez etorkizunaren prebalentziarik ere.*
- *Etorkizunera begiratzeak ez du esan nahi biktimen oroimena eta ohorea baztertuz iragana ahaztu behar dugunik. Lan egingo dugu biktima guztiek, inor baztertu gabe eta beren biktimizazioaren kausen gainean paralelismorik ezarri gabe, merezi duten ezagutza eta ordaina jaso dezaten.*
- *Gure ustez, bizikidetzaren normalizazioak, legezko posibilitate esparruaren barruan, kontuan hartu behar ditu presoek auzia, espetxe-politika eta presoek birgizarteratzea, errealitate sozial berriarekin bat etorritik.*
- *Uste osoa dugu terrorismoaren eta indarkeriaren amaierak berekin ekarri behar duela bizikidetzaren integrazio eta egituraketa soziala, eta, horretarako, elkarrizketaren, giza eskubideetan oinarritutako heziketaren eta kultura demokratikoaren balioekin konprometitu behar dugu.*

OINARRIZKO DIAGNOSTIKOA

- *2011n ETAk ekintza armatuaren amaiera iragarri ondoren, 2012-2016 aldira aurrerapen mamitsuak gertatu dira bizikidetzan, ez baita erailketa eta mehatxurik izan. Hala ere, oraindik beharrezkoa da bizikidetza normalizatzearen arloan lan egiten jarraitzea, eta konpontzeke*

dauden hiru gairi heldu beharra dago: ETA armagabetu eta behin betiko desegiteari, espetxe politikari, eta iraganari buruzko oroimen kritikoari.

- Halaber, bizikidetzaren eta giza eskubideen errespetuaren esparruan, XXI. mendeko errealitateari egokitutako kezka agenda berri bat sortu da arian-arian. Sortzen ari diren eztabaidak dira, bizikidetzako edo hezkuntzako aniztasuna eta elkartasuna bezalako balioen kudeaketarekin zerikusia dutenak, eta iheslariengan, migrazioetan, erlijio eta kultura pluraltasunean, bazterkeria eta injustizia era berrietan, edo nazioarteko terrorismoaren edo gerraren mehatxuari ematen zaizkion erantzunetan islatzen dira.*
- Giro horretan, beharrezkotzat jotzen dugu, alde batetik, Eusko Jaurlaritzatik 2016-2020 Legealdirako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan Integral bat bultzatzea.*
- Eta bestetik, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordearen barruan, Euskadiko Oroimen eta Bizikidetzari buruzko berriazko batzorde txostengile bat sortzea. Batzorde txostengile hori sortzeak elkarrekiko apustu bat dakar bizikidetzaren adostu baten alde eta printzipio demokratikoei eta giza eskubideei lotutako konpromiso multzo baten alde.*

KONPROMISOAK

161. konpromisoa: Indarkeriaren amaiera ordenatua.

1. EKIMENA Bizikidetza eta Giza Eskubideen Plana egin eta ezarri.
2. EKIMENA ETaren armagabetzea eta desegitea. Behin betiko armagabetzeko egutegia ziurtatzea babestu. Aldez arretik ETak adierazpen bat egin behar du, non azaldu behar baitu armagabetzea atzeraezina eta baldintzarik gabekoa dela, desegiteko borondatearen seinale.
3. EKIMENA Gogoeta kritikoa egin, iraganean giza eskubideen urraketan erantzukizuna edo biktimekiko sentikortasun-falta ekarri duen denari buruz.
4. EKIMENA Iragana argitu, 1960a eta 2010a bitartean gertatutako giza eskubideen urraketari eta haien biktimei dagokienez.

162. konpromisoa: Egia-, justizia- eta erreparazioa- eta elkartasun-politika publikoak ezarri biktimei dagokienez.

1. EKIMENA Terrorismoaren biktimei dagokienez, jarraitu bultzatzen, indarrean dauden araei eta bereziki 4/2008 Legeari jarraikiz, azken legegintzaldiko politikak, asistentzia-, aitorten- eta erreparazio-gaietan.
2. EKIMENA Arrazoi politikoengatiko indarkeriaren ondorioz giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta ordaina emateari buruzko 12/2016 Legea garatu (Eusko Legebiltzarrak 2016ko uztailaren 28an onartua).
3. EKIMENA Batera konpromiso-agirian oinarrituta, biktimen eta gizartearen arteko batasuna bultzatzen duten jarduera-lerroak bultzatu, bai eta haren partaidetza etorkizunaren eta bizikidetzaren eraikuntzan ere.
4. EKIMENA Legealdiaren amaieran, biktimen aitortzaren arloan egiteke dauden zereginak ebaluatu.
5. EKIMENA Egia-, justizia- eta erreparazioa- eta elkartasun-politika publikoak ezarri biktimei dagokienez.

163. konpromisoa: Memoria kritikoa, terrorismoaren edo indarkeriaren edozein formaren legitimazioa, konpentsazioa edo minimizazioa arbuiazen oinarrituta.

1. EKIMENA 'Gogora' Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren 2017-2020 Plan Estrategikoa ezarri.
2. EKIMENA Oroimen historikoaren arloan, zehaztu oroimen historikoaren egia argitzeko eta euskal erakundeek aitortzeko eta biktimei ordaina emateko prozesu baten edukia.

164. konpromisoa: Espetxe-politika legezko printzipio hauek oinarri hartuta: indibidualizazioa, humanitatea, sortutako kaltearen aitortpena eta birgizarteratzea.

1. EKIMENA Espetxe-politika berrorientatzeko oinarri-proposamen bat bultzatu, zeinaren helburu nagusia izango baita birgizarteratzea, eragin humanitario handieneko arazoei lehentasunezko arreta ematea, presoek hurbilketa erraztea eta espetxe eskumena EAERI eskualdatzeko eskatzea.
2. EKIMENA Legebiltzarreko ekimenak prestatzen lagundu, proposamen hori babesteko eta Espainiako gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko adostasuna eskatzeko.
3. EKIMENA Europako justizia konpontzailearen ildotik, birgizarteratzeko politika publikoak arautu eta sustatuko dituen dekretu bat onartu eta garatu.

165. konpromisoa: Aniztasuna positiboki kudeatu, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan sortzen ari diren erronken aurrean.

1. EKIMENA Erlijioen arteko elkarrizketarako eta lankidetzarako programa bat bultzatu, hiru ekintzen bidez: konfesio desberdinak ezartzeko mapa bat egin; entitate erlijiosoen erregistro bat sortu; eta erlijioen arteko kontseilua antolatu.
2. EKIMENA Kultuzko zentroen Legearen proiektua onartu, aurreko bi legegintzaldietan egindako lanetan oinarrituta.
3. EKIMENA Bizikidetzan aniztasuna ezagutzeko eta haren gaineko pedagogia egiteko tokiko gidaren eredu bat egin, horrela, arrazakeria, xenofobia eta gorroto-delituak prebenitzeko udalerrri edo eskualde guztietan.

4. EKIMENA Herritarren eta elkarteen inplikazioa sustatu, giza eskubideen diru-laguntzen deialdietan aniztasunaren sustapena sartuz, bai eta arrazakeriaren eta gorroto-delituen prebentzioa ere.
5. EKIMENA Elkartasuna sustatu, giza eskubideei dagokienez hauskortasun handiko egoerak antzemateko mekanismoak bultzatuz, herritarren eta elkartein inplikazioa erraztuz eta errefuxiatuei eta migratzaileei harrera eta elkartasuna ematea ahalbidetuz.

166. konpromisoa: Bake- eta bizikidetza-kultura, giza eskubideen eta pluralismoaren errespetuan oinarrituta.

1. EKIMENA Hiru ardatz hauetan bizikidetzarako heziketa- eta giza eskubideen heziketa indartzeko programa bat garatu: biolentziarik eza eta giza eskubideak; aniztasuna eta giza eskubideak; eta elkartasuna eta giza eskubideak.
2. EKIMENA Bizikidetzaren eta giza eskubideen kulturari buruzko dibulgazio- eta sentsibilizazio-jarduerak egin, informazio-kanpainen eta komunikabideekiko akordioen bidez edo sariak emanez.
3. EKIMENA Elkarte-mugimenduan parte hartzea eta harekin lankidetzan aritzea bultzatu, edo tokiko eremuan giza eskubideen alde egiten diren jarduerak babestu.
4. EKIMENA Lankidetzaren estrategikoak garatu bizikidetzaren eta giza eskubideen alde eginkizun aktiboa garatzen duten beste sail edo erakunde batzuekin.
5. EKIMENA Giza eskubideen gaian lankidetzan aritu nazioarteko erakundeekin.

167. konpromisoa: Elkarriketa eta akordioa, funtsezko lanabes demokratiko gisa bizikidetza-kultura sustatzeko.

1. EKIMENA Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordearen barruan Euskadiko Oroimen eta Bizikidetzari buruzko berariazko batzorde txostengile bat sortzea babestu.
2. EKIMENA Erakundeen, gobernuen eta indar politiko eta parlamentarioen areko lankidetzaren eta lan partekatuko espazioak sortu.
3. EKIMENA Espainiako gobernuarekin komunikazio egonkorra eta aldizkako koordinazioa egiteko komunikabideak ezartzea proposatu, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan honekin erlazionaturako arlo guztietan.

Garapenerako lankidetzaren, bizikidetzaren eta giza eskubideen faktore gisa.

168. konpromisoa: Garapenerako lankidetzari buruzko politika finkatu, eta euskal lankidetzaren ereduak gaurkotu.

- | | |
|------------|---|
| 1. EKIMENA | Euskal eragile publikoek lankidetzaren arloan duten harremana areagotu. |
| 2. EKIMENA | Euskal kooperazioaren mapa egin (eragileak, zeharkakoak, sektorialak, geografikoa). |
| 3. EKIMENA | Garapenerako lankidetzaren diharduten euskal eragileen gaitasunak, abileziak eta eskumenak indartu. |
| 4. EKIMENA | Garapenerako lankidetzaren tresna berrikusiak eta berriak eskura izan, eta estrategia espezifikoaren ezarpena bultzatu. |

169. konpromisoa: Ebaluazio-kultura sustatu, lankidetzari dagokionez.

- | | |
|------------|--|
| 1. EKIMENA | Garapenerako Lankidetzaren IV. Plan Zuzentzailea egin eta garatu. |
| 2. EKIMENA | Lankidetzaren gaietan ebaluazio-eta etengabeko hobekuntza- dinamikak bultzatu. |
| 3. EKIMENA | Lankidetzaren eremuan, jakintzaren kudeaketa hobetu. |

170. konpromisoa: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren gaitasunak indartu, garapenerako lankidetzaren politika diseinatzeko eta kudeatzeko.

- | | |
|------------|---|
| 1. EKIMENA | Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren administrazio-modernizazioa bultzatu, kudeaketa efizienteagoa eta efikazagoa erraztuz, bai eta babestutako ekimenei kalitatezko laguntza ere. |
| 2. EKIMENA | Lankidetzaren arloan, planifikatzeko eta kontuak emateko prozesuak hobetu. |
| 3. EKIMENA | Genero-ikuspegia zeharka sartu, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian. |

171. konpromisoa: Lankidetzaren politika koherenteagoa, koordinatuagoa eta partaidetzazkoagoa izan.

1. EKIMENA Garapenerako lankidetzaren politika publikoen koherentzia bultzatu, bai eta erakundeen arteko koordinazioa ere.

2. EKIMENA Estatu-mailan aliantzak garatzea bultzatu, Estatu-, Europa- eta nazioarteko mailan, ekimen estrategikoak abian jartzeko.

IV Oinarria: Autogobernu gehiago eta hobe

Ardatza:

IV.1. Autogobernu gehiago eta hobe

**Autogobernu aitortuaren
defentsa eta eskakizuna**

Barrura begirako autogobernua.

**Oraingo erakunde-ereduari
buruzko proposamenak.**

Estatutu-ituna eguneratu

IV.1. Ardatza: Autogobernu gehiago eta hobe

BIDE-ERAKUSLEAK

ESTATUTUAREN ESPERIENTZIARI BURUZKO

GOGOETA

1. *Positibotzat jotzen dugu Gernikako Estatutua izan dena eta izaten jarraitzen duena, Euskadin bizikidetzaren demokratikoa hezurmamitzeko tresna gisa eta herritarren ongizate-iturri gisa.*

Haren arauak zehaztu duten erakunde eta autogobernu-esparruan, euskal gizarteak hasi duen ibilbidea, zalantzarik gabe, esperientzia arrakastatsua izan da.

Horren ondorioz, bizikidetzaren demokratikoa sakontzeko eta kohesioan eta justizia sozialean aurrera egiteko asmoz, autogobernua eguneratzeko prozesu bati ekin nahi diogu XI. legealdi honetan, aldaketaren doikuntza juridikoa eta legezkoa bermatuko duena eta indarrean dauden arauen eta legezko prozeduren arabera izapidetuko dena.

2. *Espanian indarrean dagoen eredu autonomikoa birformulatu behar da, euskal autogobernua eta bere berezitasun historiko, juridiko-instituzional eta kultural berekiak balioztatzeko. Konstituzioa ildo horretatik aldatuz gero, autogobernua hobetu eta bermatzeko aukerak zabalduko lituzke, euskal gizarteak eskatzen duen bezala.*
3. *Euskadin gizarte esparru propioa eta bereizi bat, garatuagoa arlo ekonomikoan eta aurrerakoiagoa arlo sozialean, osatzen haste aldera autogobernuaren muga zabaltzeko gogo komunaz gain, iruditzen zaigu urgentea eta geroraezina dela euskal autogobernuaren defentsarako baliabide instituzional eraginkorragoak prestatzea, kezka ikusten baitugu Estatuan bultzada birzentralizatzaile gogorra, lurraldearen borondate politikoa ezagutzen ez duena eta bere pluraltasun eta aniztasunari ezikusi egiten diona.*
4. *Euskadiri legez aitortutako autogobernuaren defentsaren ildo berean, berriro diogu Gernikako Estatutua osorik bete behar dela. Horretarako, berriro azpimarratu behar dugu Eusko Legebiltzarrak dagoeneko duela hamarkada bi baino gehiago onartu zuen eginkizun, ondasun eta zerbitzu eskuratu gabeen katalogoaren balioa, eta, halaber, eskatu behar dugu transferentzia prozesua gehiago luzatu gabe burutzeko, nahiz eta, aldi berean, indarrean dagoen autogobernua eguneratu beharra aldarrikatzen dugun.*
5. *Beste alde batetik, ideia honetan ere ados gaude: autogobernuaren eztabaidak barrura begirako hausnarketa adostu bati ere aurre egin behar dio, eta, zehazkiago, herrialdea egituratzen duen erakunde arkitekturari buruz, nahiz eta horrek, aurrez, Gernikako Estatutuan diseinatu zen eredu osorik edukitzea eskatzen duen, finantza orekak, erdibanako ardurak eta arrisku partekatutak*

argituta, eta, egin ere, hausnarketa hori autogobernuaren kanpo dimentsioari buruzko eztabaidaren emaitza –hau da, gure ingurunearekiko zer garen eta hori edo zer izan nahi dugun– nahastu, blokeatu eta baldintzatu gabe egin behar da.

- 6. Aldaketa prozesu hau hastean konpromisoa hartzen dugu, legegintzaldi honetan, Legebiltzarrak hausnartu, eztabaidatu eta adosteko berariaz duen autogobernu batzorde txostengilea berriro aktibatzeko, bere baitan, ezberdinen arteko adostasunik zabalena bilatuaz, aldaketa giltzatzeko prozesua gidatuko duten oinarri eta printzipioak adostu daitezten.*

Batzorde txostengilean dauden taldeek erabaki beharko dute testu artikuludun baten zirriborroaren idazketa lan teknikoa egiteko prozedura egokiena. Aztertu eta onartu ondoren, ados dauden Legebiltzarreko taldeek sinatutako lege-proposamen baten bitartez Ganberan erregistratu ahal izango litzateke eta indarrean dauden arauen eta legezko prozeduren arabera izapidetuko litzateke, ordenamendu juridikoa, metodo demokratikoak eta herritarren eskubide eta askatasunak begiraturaz

KONPROMISOAK

172. konpromisoa: Autogobernu aitortuaren defentsa

Lortutako autogobernuaren defentsa. Baliabide politiko, juridiko eta instituzionalak.

- | | |
|------------|---|
| 1. EKIMENA | Eusko Legebiltzarrak edo Jaurlaritzak beren eskumenez baliatuaz onartzen dituzten izaera sozialeko politika publikoetan eskua sartzea, baldintzatzea edo murriztea dakarten Estatuaren ekintzak salatu eta saihestu. |
| 2. EKIMENA | Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluan Estuari esleitutako eskumen sektorial batean estaldura espres eta argirik ez duten eta zeharkako titulu gerizan soilik oinarritzen diren estatuak esku hartzeko politika guztiak salatu eta errefusatzeko lan egin. Bereziki Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak inbaditzeko edo husteko haren 1., 13., 14. edo 18, klausulen erabilera instrumental eta abstraktuak errefusatzeko ditugu. |
| 3. EKIMENA | Halaber, euskal Ekonomia Ituna errespetatu gabe eta beronen bitariko batzordeen bilera deialdirik egin gabe eta, kasua bada, bertan arlo ekonomiko-finantzarioko jarduera publiko orotarako neurri egokiak adostu gabe euskal finantza eta zerga politikaren gainean esku hartzea bilatzen duten Estatuaren ekintzak salatu eta errefusatu. Gure interpretazioaren arabera, Konstituzioaren 156. artikuluen gerizan koordinazio eskumenak aktibatuta hartzen diren neurri guztiek, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasu konkreturako, aplikatu edo gauzatu aurretik, ezinbestean behar dute alde biak biltzeko organoak edo Ekonomia Itunaren Bitariko Batzordeak bilkura egitea, eta, beste, Konstituzioaren aurkakotzat joko da Euskadiri dagokionez. |
| 4. EKIMENA | <p>Estatuaren arau-ekimenen legalitate konstituzionalari eta Gernikako Estatutuarekiko errespetuari buruzko txostenak egin. Txosten horiek autogobernuaren defentsa-arloan eskumena duen sailak egingo ditu, eraginpeko sektorearen sailari galdetu ondoren.</p> <p>Euskal autogobernuaren urraketak detektatzen direnean, Espainiako Gobernuari galdatu egingo zaio, lankidetzaz gutun baten bidez, gatazka judizialak saihesteko aurreneurriak bilatzen esku har dezan.</p> |
| 5. EKIMENA | Ikerketa bat egin, non Estatuaren arau-ekintzak edo Konstituzio Auzitegiaren doktrinak gai edo eskumen-titulu batzuetan autonomiaren eskumenetan eragindako higaduraren balorazio bat jasoko duen. |

6. EKIMENA Autogobernuaren defentsaren arloan eskumena duen sailak, eraginpeko sektorearen sailari galdetu ondoren, Gobernu Kontseilura eramango ditu, legezotasun txostenekin batera, mota guztietako konstituzio- edo auzi-prozesuetara jotzeko proposamenak euskal autogobernuaren, Euskadiri esleitutako eskumenen eta Autonomia Erkidegoko erakunde antolakuntzaren defentsarako.
7. EKIMENA Bai Eusko Jaurlaritza auzi-jartzailea denean, bai EAeko arau eta egintzen aurka Estatuak jarritako errekurtsoen ondorioz diren auzietan, autogobernuaren defentsaren arloan eskumena duen sailak lehenengo negoziazioak egitea bultzatuko du, eraginpeko sektorearen sailak lagunduta, Bitariko Elkarlan Batzordean, euskal autogobernua ahalik eta egoera onenean zaintzeko, eta, komeni denean, judizializazio konstituzionala eta autogobernuaren interpretazio hutseko epaiak jasotzeko arriskuak saihesteko, gure eskumen eremurako ondorio murriztaileak izan ditzakeen doktrina bat sendotzen joan ez dadin.

173. konpromisoa: eskuratzeko dauden Gernikako Estatutuko eskumenen transferentzia burutzeko eskatu.

1. EKIMENA Eusko Legebiltzarrean eratutako Autogobernuaren Batzorde Txostengileak eskatuta, Eusko Jaurlaritzak proposamen bat bidaliko dio Ganberari, non oraindik egiteke dauden transferentzien katalogoa gaurkotzeaz gain, zehatz-mehatz islatuko da Gernikako Estatutua amaitutzat eman ahal izateko Euskadiri legez aitortutako baina oraindik gauzatzeko dagoen autogobernu formalaren quantuma.

1993ko eta 1995eko txosten horietatik abiatuta, eta haietan jasotzen diren interpretazio eta jarrerak errespetatuz, egiteke dauden transferentzien zerrenda hau aurreratu dezakegu:

Lehen arloa:

- Langabeziagatiko prestazioak.
- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala.
- Itsasoko Gizarte Institutua.
- Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketa, Estatuak bosgarren xedapen iraunkorrean ezartzen dituen itunen arabera.
- INSALUD eta INSERSOri atxikitako ondasun higiezinak, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren titulartasuna dutenak.

- Ikerketako eta laguntza teknikoko zentroak (CIAT). Laneko segurtasuna eta higieena.
- Soldatak Bermatzeko Funtza (FOGASA)

Bigarren arloa:

- Meteorologia.
- Aireportuak.
- Lagapen erregimeneko autobideak (AP-1 eta AP-68)
- Trenbideko zerbitzuak eta azpiegiturak.
- Interes orokorreko portuak.
- Itsas salbamendua.
- CEDEX (herri-lanen azterketa eta esperimentazio-zentroa).
- FROM (arrantzako eta itsas kultiboetako ekoizkinen merkatua arautu eta antolatze funtza)
- Arrantza-ikuskaritza.
- Nekararitza-aseguruak.
- Farmazia-gaiei buruzko legediaren betearazpena.

Hirugarren arloa:

- Lehiaren defentsa.
- Kreditua eta banka.
- Aseguruak.
- Kreditu ofiziala.
- Balore-merkatua.

- Estatuaren sektore publikoa.
- Hidrokarburoak (petrolio eta gasa).
- Enpresa Txiki eta Ertainen Institutua (IMPI).

Laugarren arloa:

- Unibertsitateko irakaskuntzetan tituluak eta ikasketak homologatu eta baliozkotu (kontuan hartu ekainaren 28ko 135/2011 Dekretuaren aipamena, unibertsitateaz besteko irakaskuntzen eskualdatzeaz).
- Eskola-asegurua.
- ISBN -liburuen nazioarteko zenbaki normalizatua- eta ISSN esleitzea.
- Zinematografia (babes-funtsa).

Bosgarren arloa:

- Ibilgailuen matrikulazioaz eta zirkulazio baimenez, bai eta gidabaimenez ere, betearazteko eginkizunak.
- Segurtasun pribatua.
- Udal hauteskunde-araubidea.
- Espetxeak.

2. EKIMENA

Eusko Jaurlaritzak, berori eusten dioten alderdi politikoen babesaz eta adostasunez, lehentasuna emango die transferentzia hauek erreklamatzeari eta negoziatzeari:

- a) Espetxeak.
- b) Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketa, Gernikako Estatutuak aldi baterako bosgarren xedapenean xedatzen duen moduan.

Barrura begirako autogobernua.

174. konpromisoa: Hobetu barrura begirako autogobernua. Egungo erakunde-esparruari buruzko proposamenak

1. EKIMENA Lankidetzaren autogobernari buruzko Legebiltzarreko batzorde txostengilearekin.
- Eusko Jaurlaritzak gogoz lan egingo du autogobernuaren batzorde txostengilearekin, Euskadiko erakunde eredua hobetuz eta euskal autogobernuak eskatzen duen jokaleku ekonomiko, sozial eta politiko berriari egokituaz, bai "barruko harremanen" bai "kanpoko harremanen" geure arkitektura eguneratu eta berraztertzea bultzatu behar da adostasunez.
- Erakunde-antolakuntza gaurkotzeko eta berrikusteko prozesu hori EAE osatzen duten lurraldetako bakoitzaren nortasuna eta bereiziaren ezagutzan oinarrituko da. Aldi berean, Autonomia Erkidegoaren erakunde komunaren eta Lurralde Historikoen arteko harreman orekatu bat bermatu behar dugu, eta udalak ere txertatu behar ditugu, Euskadiko Toki Erakundearen Legea oraintsu onartu denez gero. Hori guztia, erkidego modernoago eta iraunkor eta berdintsuago baterantz aurrera egiten jarraitzeko.
2. EKIMENA Euskal Zuzenbide Zibilaren garapena bultzatu, abian jarrita Batzorde kodifikatzailea eta gaien planifikazio ordenatua eginez Euskal Zuzenbide Zibila etengabe kontserbatzeko eta berrikusteko, Eusko Legebiltzarrean planteatzen diren legegintzako proiektu berrien bidez, zenbait arlotan, hala nola Familia Zuzenbidean, jardura ekonomikoan eta bizikidetzan.

Eremu juridiko eta politiko berria.

175. konpromisoa: Estatutu-ituna eguneratzea

1. EKIMENA Legebiltzarreko batzorde txostengilearekin lankidetzan aritu, estatutu-ituna eguneratzeko.
- Eusko Jaurlaritza, PNVren eta PSEren artean lortutako gobernu- akordioarekin bat etorruta, autogobernuaren batzorde txostengilearen esanetara jarriko du, eskatu beste informazio, aipatutako batzordearen helburuak betetze aldera.
2. EKIMENA Gobernuak, baldin eta Legebiltzarrak horrela egiteko eskatzen badu, Estatutua berritzeko proposamen-zirriborroa egingo du autogobernuaren batzorde txostengilean adostutako oinarri eta printzipio zehatzei buruz.